

Euskadiko 55 urteko
eta gehiagoko pertsonen
bizi-baldintzei
buruzko ikerketa



78

GIZARTEA HOBETUZ
DOCUMENTOS DE BIENESTAR SOCIAL

Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen Bizi-baldintzei buruzko ikerketa

APBBI-EUSKADI 2014

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2015

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la red Bibliotekak del Gobierno Vasco: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia:

1.a, 2015eko iraila

Ale-kopurua:

50 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

www.euskadi.eus

Egileak:

Elena del Barrio
Olga Mayoral
Mayte Sancho

MATIA INSTITUTO GERONTOLÓGICO

Landa-lana:

Demométrica

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinu eta maketazioa:

Kabinetearen eta Komunikazio Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Itzulpena:

Belaxe Itzulpen zerbitzua

Inprimaketa:

Eusko Jaurlaritzako Inprenta eta Errepografia Zerbitzua

L.G.:

VI 540-2015

Aurkibidea

1. SARRERA	8
2. HELBURUAK	10
3. METODOLOGIA	12
3.1 Fitxa teknikoa	13
3.1.1 Laginaren diseinua	13
3.1.1.1 Esparru geografikoa eta biztanleria	13
3.1.1.2 Laginketa-mota	13
3.1.1.3 Laginketaren geruzapena eta esleipena	13
3.1.1.4 Laginaren errorea	13
3.1.1.5 Laginketa-unitateen hautaketa	14
3.1.1.6 Laginaren banaketa adin-taldearen arabera	14
3.1.2 Informazioaren bilketa	15
3.2 Gai-multzoak	15
3.3 Ageing Active Index - AAI (Zahartze Aktiboaren Indizea)	17
4. ZAHARTZEA EUSKADIN	20
5. EUSKADIKO 55 URTEKO ETA GEHIAGOKO PERTSONEN BIZI-BALDINTZEI BURUZKO IKERKETAREN EMAITZAK	34
5.1 Laginaren profil soziodemografikoa	35
5.2 Bizikidetzaren ereduak eta gizarte-sarea	46
5.2.1 Etxeen osaera	46
5.2.1.1 Belaunaldi anitzeko etxeak	50
5.2.1.1.1 <i>Beren etxebizitzan</i>	50
5.2.1.1.2 <i>Seme-alaben etxebizitzan</i>	52
5.2.1.2 Bikotekidearekin	53
5.2.1.3 Pertsona bakarreko etxeak	55
5.2.2 Gizarte-sarea	57
5.2.2.1 Hurbiltasuna	58
5.2.2.2 Harremana	59
5.3 Etxebizitza eta ingurunea	62
5.3.1 Edukitze-erregimena eta ekipamenduak	62
5.3.2 Etxebizitzaren eta ingurunearen irisgarritasuna	66
5.3.3 Baliabideen eskuragarritasuna	70
5.3.4 Lagunkoitasuna	72

5.4	Osasuna, mendekotasuna eta gizarte-baliabideak	74
	5.4.1 Osasun-egoera subjektiboa	74
	5.4.2 Mendekotasuna eta desgaitasuna	77
	5.4.2.1 Laguntza behar duten pertsonen profila	78
	5.4.3 Gizarte-baliabideak	82
5.5	Familia-elkarrekikotasuna	86
	5.5.1 Emandako laguntza	86
	5.5.1.1 Zaintza	86
	5.5.1.1.1 Seme-alabak zaintzea	86
	5.5.1.1.2 Bilobak zaintzea	87
	5.5.1.1.3 Adineko senideak edota desgaitasunen bat dutenak zaintzea	89
	5.5.1.1.4 Erabateko zaintza	91
	5.5.1.2 Laguntza ekonomikoak	94
	5.5.1.3 Etxeko lanak	97
	5.5.1.4 Familia-harrera	97
	5.5.1.5 Laguntzak krisialdian	99
	5.5.2 Jasotako laguntza	99
	5.5.2.1 Jasotako zaintza	99
	5.5.2.2 Beste motaren bat	103
	5.5.3 Laguntzei buruzko balantzea	104
5.6	Eguneroko bizitza	106
	5.6.1 Etxeko lanak	107
	5.6.2 Aisialdia	108
	5.6.2.1 Ariketa fisikoa eta kirol-jarduerak	109
	5.6.2.2 Jarduera sedentarioak	112
	5.6.2.3 Aisiako etxeko jarduerak	112
	5.6.2.4 Kultura-jarduerak	115
	5.6.2.5 Bizitza sozialeko jarduerak	117
	5.6.2.6 Turismoa, bidaiak eta irteerak	121
	5.6.2.7 Erljio-jarduerak	123
	5.6.2.8 Interneten erabilera	125
	5.6.2.9 Hezkuntza-jarduerak	126
	5.6.2.10 Gizartean parte hartzeko jarduerak	128
	5.6.3 Zahartze Aktiboaren Indizea (AAI)	132
5.7	Ongizatea	139
	5.7.1 Gogobetetasuna eta ongizatea	139
	5.7.2 Zahartzaroari buruzko pertzepzioak	141
5.8	Erretiroa	142
5.9	Emaitzak lurraldearen arabera	147
	5.9.1 Datu Soziodemografikoak	147
	5.9.2 Bizikidetzaren ereduak eta gizarte-sarea	149
	5.9.3. Etxebizitza eta ingurunea	151
	5.9.4 Osasuna, mendekotasuna eta gizarte-baliabideak	153
	5.9.5 Familia-elkarrekikotasuna	154
	5.9.6 Eguneroko bizitza	157
	5.9.7. Gogobetetasuna, ongizatea eta kezkak	160
	5.9.8 Erretiroa	161

6.	LABURPENA	162
6.1	Datu soziodemografikoak	163
6.2	Bizikidetzaren eredu eta gizarte-sarea	163
6.3	Etxebizitza eta ingurunea	164
6.4	Osasuna, mendekotasuna eta gizarte-baliabideak	165
6.5	Laguntza-trukea	166
6.6	Eguneroko bizitza	168
6.7	Ongizatea	169
6.8	Erretiroa	171
7.	BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK	172
8.	LABURDUREN GLOSARIOA	178
9.	ERANSKINA: GALDE SORTA	182

/1/

Sarrera

Euskadiko biztanleriaren zahartzeari buruzko ikerketa kuantitatiboan jatorria 1993ko *Hirugarren Adinekoen Inkesta* da. Inkesta hori Eusko Jaurlaritzaren 1994ko Plan Gerontologikoaren esparruan egin zen. 2010ean, adineko pertsonen gizarte-errealitatearen berri izateko modu horri ekin zitzaion berriro; hau da, bizi-baldintzei buruzko inkesta bat egin zen. Ikerketa hau aurreko bien jarraipena da. 55 urteko eta gehiagoko pertsonen egungo beharrak zein diren jakiteko asmoz egin da, baina baita pertsona horien portaerak eta ikuspegiak etorkizunean nola aldatuko diren jakiteko ere.

Kasu honetan, biztanleria-lagina zabaldu egin da; hain zuzen ere, 55 urteko eta gehiagoko pertsonak hartu dira aintzat, adineko pertsonak osatutako belaunaldiak zer jarrera eta portaera dituzten jakiteko, etorkizunera begira zahartzearen joerak zein izango diren aztertzeke. Bestalde, beste zenbait adierazle erabili izan ditugu inkesta honetan, Nazio Batuen eta Europako Batzordearen Active Ageing Index (AAI) (Zahartze Aktiboaren Indizea) Euskadira egokitzeko. Indize horrek lurralde bateko biztanleriaren zahartze aktiboaren maila adierazi nahi du zenbaki bakar batez. Hura egiteko, 55 urteko eta gehiagoko biztanleei buruzko informazioa behar da.

Bizi-baldintzei buruzko ikerketak 1990eko hamarkadan finkatu ziren nazioartean. Askotan, beharrei buruzko diagnostikoak dira, eta plangintza gerontologikoak egiteko informazioa biltzeko asmoa dute. Hala ere, adineko pertsonen bizi-baldintzei buruzko inkesten diseinua berri samarra da oraindik ere Estatuan eta Euskadin. Ikerketa-modalitate honen erreferentzia Europar Batasunak (EB), Espainiak eta Euskadik biztanleria osoaren bizi-baldintzei buruz egiten dituzten inkestak dira. Lehen kasuan, Europako inkesten helburu nagusia erkidegoko estatistika-azpiegitura indartzea da. Horretarako, EBko herrialde bakoitzeko eta Europako errentari eta pobrezia-erregulazioaren mailari eta osakerari buruzko datuak sortzen dira, zeharkakoak eta luzetarakoak, alderagarriak eta eguneratuak.

Euskadiko Autonomia Erkidegoan (EAE), bizi-baldintzei buruzko lehen inkesta 1989an egin zen. Pertsonen bizi-kalitatea hobetzea edo okertzea eragiten duten faktoreak ezagutzeko egiten dira inkestak, bost urtean behin. Kasu honetan, bi helburu ditugu: batetik, bizi-kalitatearen dimentsioak zenbait adierazleren bidez deskribatzea, eta bestetik, dimentsio nagusien arteko loturak eta dimentsio bakoitzeko barne-elementuen artekoak aztertzea, bizi-kalitatea hobeto ulertzeko asmoz.

Eusko Jaurlaritzak, Enplegu eta Gizarte Politeketako Sailaren bidez, ikerketa hau jarri du martxan, 2015-2020ko Zahartze Aktiboari buruzko Estrategiaren oinarria izan dadin, eta gizartean eta erakundeetan adineko pertsonen autodeterminazio-erregulazio eusteko gakoak eta ildoak zein diren identifikatzeko. Orobat, ikerketa honen bidez, adineko pertsonen premien mailak eta ezaugarriak zehazten dituzten elementu bereizgarriak sakon ezagutu nahi dira.

Matia Institutuak bere gain hartu du lan hori, eta ondokoak dira haren emaitzak. Hurrengo orrialdeetan, informazio zehatza aurkituko duzue, 700.000 pertsona baino gehiagokoen bizimoduari, bizi-baldintza materialei, egitura sozialari, arreta eta zaintza partekatzei, pertzepzioei, osasunari, mendekotasunari, eguneroko bizitzari, erretiroari eta beharrezkoen buruz. Pertsona horiek, "adineko pertsonak" deitzen zaienean, gero eta talde heterogeneoa osatzen dute, eta gero eta homogenea, edozein adineko herritarrekin alderatzean.

Azken urteetako aldaketa ekonomiko eta sozialek joera soziodemografikoak aldatzea ekarri dute: egitura eta harreman familiarak, etxeen osaketa, kontsumo-ohiturak, jarduerak egiteko modua, laguntza-trukeak, etab. Aldaketa horiek duela gutxi gertatu dira, krisi ekonomikoaren ondorioz, eta eragin zehatza dute adineko pertsonengan. Pertsona horien egungo egoerari buruzko ikerketa xehea biztanleria-talde horiekin lotutako politika, plan eta esku-hartzeak egiteko eta garatzeko erabiltzen da.

/2/

Helburuak

Ikerketa honen helburu nagusia hau da: gizarte-politiken planifikatzaile eta arduradunei informazio zehatza eta eguneratua ematea, Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko biztanleen bizi-baldintzei (familiarak, banakakoak eta ingurukoak) buruz. Halaber, Euskadiko adineko pertsonen errealitateari buruzko informazioa bildu eta sistematizatu nahi da, eta errealitate horren berri eman; horretarako, biztanleria-talde horri dagokion alderdi-sorta handia hartu da aintzat.

Helburu orokor hori hiru helburu espezifikotan adieraz daiteke. Hona hemen:

1. Adineko pertsonen eguneroko bizitzako hainbat alderdiri buruzko ikuspegi eguneratua ematea. Hauek dira alderdi horiek, besteak beste: baldintza materialak, osasun-egoera, heziketa-maila, aisia, parte-hartzea, gizarte-harremanak eta ingurunea.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko adineko pertsonen premiak identifikatzea.
3. Zaharkitzearen inguruko etorkizuneko joerak aurreikusi adineko pertsonen osatutako belaunaldien jokabide eta beharriak detektatuz.

/3/

Metodologia

3.1. Fitxa teknikoa

3.1.1. Laginaren diseinua

3.1.1.1. Esparru geografikoa eta biztanleria

Biztanleriari dagokionez, etxebizitza familiarretan bizi diren 55 urteko eta gehiagoko gizon-emakumeek osatzen dute lagina. Esparru geografikoa Euskal Autonomia Erkidegoa da.

3.1.1.2. Laginketa-mota

Proposatutako laginketa-mota etapa anitzeko konglomeratu-laginketa da, lehen etapako unitateak geruzatuta dituena. Lehen etapako unitateak errolda-atalak dira; bigarren etapakoak, etxebizitzak; eta azken etapakoak, edo laginketa-elementuak, etxe bakoitzeko pertsonak.

3.1.1.3. Laginketaren geruzapena eta esleipena

Proposatutako laginketa-motak emaitza onak izan ditzan, komeni da laginketa-unitateak geruzatzea. Geruzapenak bi helburu ditu: alde batetik, ahalik talderik homogeneousenak lortzea, aztertu beharreko aldagaiak kontuan hartuta; eta beste batetik, emaitzak bereiztea beharrezko egin dezaketen ezaugarriak aintzat hartzea. Gure kasuan, lurralde historikoa eta habitat-geruza hartu ditugu geruzapen-irizpidetzat. Habitat-geruzak bost geruza ditu:

1. taula. Laginaren behin betiko banaketa, habitataren eta lurraldearen arabera.

GERUZA/HERRIAK	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	GUZTIRA
5.000 baino gutxiago	59	61	125	245
5.001-20.000	40	308	234	582
20.001-50.000	0	127	313	440
50.000 baino gehiago	0	65	209	274
Hiriburuak	301	218	409	928
GUZTIRA	400	779	1.290	2.469

Lagin-esleipena 2.460 elkarrizketak osatzen dute guztira. Lurralde historikoaren arabera lagin-esleipena ez zen portzionala izan, lurralde bakoitzeko datuen ustiapenak gutxieneko fidagarritasuna duela bermatzeko. Esleipena egi-tean, lurralde bakoitzaren biztanleria hartu zen kontuan, baita laginketa-errorea gehienez % 5ekoa izatea ere.

3.1.1.4. Laginaren errorea:

Aldagai bakoitzean hartutako balioaren arabera bada ere, ehunekoen kalkuluen % 95eko konfiantza-tartea, lagin osoari dagokionez, diseinuaren efektuaren 1,4 onartuta, % +/- 2,0 mugatu daiteke. Lurralde historiko bakoitzerako, honako hauek dira:

- Araba: +/-5,0
- Gipuzkoa: +/-3,6
- Bizkaia: +/-2,7

3.1.1.5. Laginketa-unitateen hautaketa

Lehen etapako unitateak (errolda-atalak) biztanleria-tamainarekiko (55 urteko eta gehiagoko biztanle-kopuruan neurtua) proportzionalki hautatu dira. Elkarriketak era konstantean esleitu dira errolda-ataletan; hain zuzen, 12 elkarriketa esleitu dira atal bakoitzean. Azken hautaketa-etapan, sexuaren eta adin-taldearen arabera kuota-sistema bat erabiltzen da (50-54 bitartekoa, 65-79 bitartekoa ...).

3.1.1.6 Laginaren banaketa adin-taldearen arabera

Ikerketaren helburuei begira, eta laginketa-esleipenaren ondorioetarako, hiru adin-talde ezarri dira: 55-64 urte, 65-79 urte, eta 80 urte eta gehiago. Adin-taldearen arabera banaketan, irizpide hauek hartu dira kontuan:

- Interes bereziko adin-taldeak 55-79 urtekoak dira.
- 55 eta 79 urte bitarteko bi adin-taldeetako bakoitzean eta sexu bakoitzean, egokia izango litzateke gutxienez 500 elkarriketa izatea.
- 80 urteko eta gehiagoko taldean, elkarriketa 150 gizoni eta 150 emakumeri egitea. Gainera, horrek haztapen-faktoreak aplikatzeko aukera emango du ondoren. Adin-taldearen arabera haztapen-faktore horiek beharrezkoak dira, laginketa proportzionala ez bada.

Irizpide horiek kontuan hartzen dituen banaketa 3. taulan ageri da.

3. taula. Laginaren itxarondako banaketa, sexuaren, adin-taldearen eta lurraldearen arabera.

		ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	GUZTIRA
Gizonak	55-64 urte	88	161	260	510
	65-79 urte	89	163	260	511
	80 urte eta gehiago	20	47	83	150
	Guztira	197	371	603	1171
Emakumeak	55-64 urte	91	167	279	537
	65-79 urte	96	193	322	611
	80 urte eta gehiago	19	48	83	150
	Guztira	206	408	684	1298
Guztira		403	779	1.287	2469

(*) Arabako eta Bizkaiko azken laginaren desbiderapena gelaxka bakoitzeko hamartarren doikuntzen ondorio da.¹

Azken lagin baliagarria 2.496 elkarriketari dagokie.

¹ Lurralde historiko bakoitzerako esleipena ez zenez proportzionala izan, erregistro bakoitzari esleitutako haztapen-koefizientea ere erantsi da datu-fitxategian, datuak ustiatzeko

4. taula. Laginaren banaketa, sexuaren, adin-taldearen eta lurraldearen arabera.

		ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	GUZTIRA
Gizonak	55-64 urte	87	160	265	512
	65-79 urte	91	170	265	526
	80 urte eta gehiago	19	43	77	139
	Guztira	197	373	607	1177
Emakumeak	55-64 urte	90	158	279	527
	65-79 urte	97	191	328	616
	80 urte eta gehiago	19	64	93	176
	Guztira	206	413	700	1319
	Guztira	403	786	1307	2496

3.1.2. Informazioaren bilketa

Informazioa 2014ko uztailetik (16) urrira (24) bitartean bildua izan zen. Honelako ikerketak egiten eskarmentu handia duten talde batek egin zituen. Udako oporraldietan, ez zuten elkarrizketarik egin.

Ikerketaz arduratu diren elkarrizketatzaileak eta ikuskatzaileak ikerketa hasi baino lehen aukeratu ziren, galde-sortaren edukiari eta laginketaren metodoari buruzko beharrezko jarraibideak jasotzeko saio informatibo edo briefing baten bidez. Briefing hori Bilbon egin zen 2014ko ekainaren 9an.

Inketa bidezko ikerketa orotan bezala, ikuskatzaileek elkarrizketatzaileen lana kontrolatu zuten, aldez aurretik proba pilotu batean zehaztutako irizpideak kontuan hartuta. Ikerketa honetan, ikuskaritza-lana telefonoz egin zen: ikuskatzaileak elkarrizketatutako pertsonekin jarri ziren harremanetan, sendoak ez ziren edo osatu gabe zeuden erantzunen galderak berriz egiteko eta elkarrizketa baliagarritzat jo ahal izateko. Ikuskaritza-planaren azken emaitza hau izan zen:

- Elkarrizketen %35 telefonoz ikuskatu zen.
- Elkarrizketatzaile bakoitzaren lanaren %15 ikuskatu zen.

Ikuskaritza-jarduera informazioa biltzeko erabilitako hilabeteetan egin zen.

3.2. Gai-multzoak

1. multzoa: Etxearen osaera

Zer etxe-mota den, zer pertsonarekin bizi den, pertsona horiekin zer senidetasun-harreman dituen.

2. multzoa: Soziodemografikoa

Aldagai soziodemografikoak (egoera zibila, jaioterria, sexua, adina, ikasketa-maila, lan-egoera, lanbidea, sarrera-maila, maila ekonomikoaren pertzepzioa eta gabezia materialaren indizea).

3. multzoa: Gizarte-ehuna eta laguntza-trukea

Gurasoekin, seme-alabekin, neba-arrebeekin edo beste senide batzuekin, auzokoekin eta lagunekin izaten diren harreman presentzialen eta ez-presentzialen maiztasuna kuantifikatzen da. Hurbilen bizi den seme-alabaren etxea zer distantziantan dagoen ere adierazten da.

Elkarri laguntzeko sare informalak: Emandako eta jasotako laguntza informalarri buruzko informazioa biltzen da. Emandako laguntzari dagokionez, laguntza-motak zehazten dira: zaintzak (seme-alabei, bilobei, adinekoei edota desgaituei eta mendekotasun egoeran daudenei), laguntza ekonomikoak, etxean hartzea, etxeko lanetan laguntzea, edo beste laguntza-motaren bat. Zaintzaren kasuan, hau zehazten da: zer zaintza-mota den (pertsonea, afektiboa, etxeko lanak, laguntza izapide eta kudeaketetan), zenbat pertsonari laguntzen zaien, horretan zenbat denbora ematen den, zaindutako pertsona etxean bizi den, eta pertsona horrek jasotzen duen laguntza bakarra den. Laguntza ekonomikoa ematen bada, zenbatean behin, zenbat eta noiztik ematen den adierazten da. Etxeko lanei dagokienez, zenbatean behin eta noiztik laguntzen den adierazten da. Pertsonak etxean seniderik hartu badu, noiztik hartzen duen zehazten da. Jasotako laguntza informalarriaren kasuan, laguntzaren arrazoiari buruzko informazioa biltzen da: osasuna (zaintzak ematen dituen pertsona: sexua, adina, senidetasuna, ematen duen laguntza-mota eta maiztasuna), laguntza ekonomikoa (zenbatean behin, zenbat eta noiztik), etxeko lanak (zenbatean behin eta noiztik), eta beste senide baten etxera joan beharra. Informazio horri esker, elkarri laguntzeko sarea egituratu dezakegu, eta horri esker, laguntza informaleko fluxuak kuantifikatu.

4. multzoa: Etxebizitza, ingurunea eta lagunkoitasuna

Multzo honetan, etxebizitzaren eta ingurunearen alderdi objektiboei buruzko informazioa biltzen da: etxebizitzaren ezaugarriak (edukitze-erregimena, ekipamenduak eta irisgarritasun-maila), aldaketa-beharrak (egokitzapena eta mugikortasuna), ingurunearen ezaugarriak (irisgarritasuna, eta baliabide eta zerbitzuen hurbiltasuna), delinkuentzia-arazoak, eta lagunkoitasuna (Euskadiko eta haien herriko eta auzoko lagunkoitasunari buruzko pertzepzioa, eta udalerrria adiskidetsuagoa izateko hobetu daitezkeen alderdi garrantzitsuak). Alderdi objektibo horiek guztiak funtsezkoak dira etxebizitzari buruzko plangintza egiteko

5. multzoa: Zahartze aktiboa, parte-hartzea eta jarduerak

Jardueretan parte hartzeko maiztasunari buruzko aldagai bat sartu da: ariketa fisikoa, jarduera intelektualak edo sedentarioak (telebista ikustea, irakurtzea, irratia entzutea...), zaletasunak, jarduera sozialak (lagunei bisita egitea, afaltzera joatea...), bidaiak, teknologia berrien erabilera, erlijio-ekitaldiak eta heziketa-jarduerak. Gainera, jarduera horietako bakoitza sarriago egitea gustatuko litzaieken ere galdetzen zaie, eta baiezkoaren kasuan, zergatik ez duten egiten.

Gizarte edo boluntariotza erakundeetan (elkarteak, GKEak, etab.) parte hartzearen maiztasunari buruzko informazioa ere biltzen da. Halaber, parte hartzen ez dutenei galdetzen zaie parte hartzea gustatuko litzaieken eta zergatik ez duten parte hartzen.

Horrez gain, zenbait galdera egin zaizkie gizarte-partaidetzako edo boluntariotzako programetan parte hartzeko interes-mailari buruz.

Horrelako jardueretan parte hartzea oinarrizkoa izan daiteke pertsona batek bere burua balioets dezan, bere autoeraginkortasuna handitu dadin, kontrol handiagoa duela hauteman dezan eta, azken batean, pertsonaren autonomia-nahia handitu dezaketen aldagaiak hobetu daitezten.

6. multzoa: Osasuna eta mendekotasuna

Aldagai baten bitartez, osasun-egoera objektiboa neurtzen da. Oso adierazle garrantzitsua da biztanleriaren osasun-egoera deskribatzeko; izan ere, osasun fisikoaz eta gaixotasunez gain, pertsonaren faktore sozialak, ekonomikoak eta inguruneak ere islatzen ditu. Orobat, mendekotasun-maila neurtzeko jarduera-zerrenda bat ere sartu da; hain zuzen, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko behar den laguntza neurtzen da.

Osasun-egoera eta mendekotasun-egoerak funtsezko elementuak dira adineko pertsonak zer baldintza funtzioaletan bizi diren jakiteko.

7. multzoa: Gizarte-baliabideak

Galdera-multzo honetan, laguntza behar izanez gero non bizi nahiko lukeen galdetzen zaio pertsonari, bai eta zer laguntza-mota jaso nahiko lukeen eta, etxetik joango balitz, nora joango litzatekeen ere.

8. multzoa: Ongizatea

Zenbait galdera subjektibo egiten dira. Hona hemen gaiak: bizitzarekiko gogobetetze-maila, osasun-egoera, lorpenak, harreman pertsonalak, segurtasun- eta babes-sentsazioa, komunitate batekiko pertenezia-sentimendua, etorkizunarekiko segurtasuna eta bizitza espirituala.

Gainera, ohiko sentimendu eta emozioei eta norberaren zahartzearekiko kezkar buruzko galderak ere egin zaizkie pertsonari.

9. multzoa: Erretiroa

Multzo honetan, zenbait aldagai biltzen dira. Hauek dira haietako batzuk: erretiratuta daudenen erretiro-adina; erretiratuta ez daudenen zer adinetan hartu nahiko luketen erretiroa; egungo erretiro-adina luzatzeari buruzko iritzia; lanaldia eta pentsio partzial bat uztartzeko aukera zenbateraino gustatuko litzatekeen; eta erretiroan denbora zertan eman beharko litzatekeen zer iritzi duten.

3.3. Ageing Active Index (AAI) – (Zahartze Aktiboaren Indizea)

Zahartze Aktiboaren Indizea (AAI) ikerketa-proiektu baten emaitza da. Proiektu hori batera kudeatu zuten Europako Batzordeko Enplegu, Gizarte Gaietarako eta Inklusio Zuzendaritza Nagusiak eta Nazio Batuen Europarako Batzorde Ekonomikoak (UNECE).

Zahartze aktiboaren lau alderdi hauek neurtzen dituen tresna bat da: enplegua, partaidetza, independentzia eta gaitasunak. Alderdi bakoitza 22 adierazleren bidez kalkulatzen da. Adierazle horiek berez deskribatzaileak dira.

1. Enplegua:

- 1.1. 55 eta 59 urte bitarteko pertsonen enplegu-tasa.
- 1.2. 60 eta 64 urte bitarteko pertsonen enplegu-tasa.
- 1.3. 65 eta 79 urte bitarteko pertsonen enplegu-tasa.
- 1.4. 70 eta 74 urte bitarteko pertsonen enplegu-tasa.

2. Partaidetza

- 2.1. Boluntarioritza.
- 2.2. Seme-alabak eta bilobak zaintzea.
- 2.3. Adinekoak edo desgaitasunen bat duten pertsonak zaintzea.
- 2.4. Partaidetza politikoa.

3. Independentzia, osasuna eta segurtasuna.

- 3.1. Ariketa fisikoa.
- 3.2. Mediku- eta hortz-zerbitzuak eskura izatea.
- 3.3. Bizikidetzaren modu independentea (bakarrik edo bikotean).
- 3.4. Batez besteko errenta.
- 3.5. Pobrezia-arriskua.
- 3.6. Gabezia material larririk eza.
- 3.7. Segurtasun fisikoa.
- 3.8. Bizitzan zeharreko ikasketa.

4. Zahartze aktiborako gaitasuna eta ingurune egokia.

- 4.1. Bizi-itxaropena.
- 4.2. Desgaitasunik gabeko bizitzeko itxaropena.
- 4.3. Ongizate eta osasun mentala.
- 4.4. IKTen erabilera.
- 4.5. Gizarte-sarea.
- 4.6. Heziketa-maila.

Euskadin, bi helbururekin kalkulatu da AAI indizea: lehenengoa eta garrantzitsua politika publikoetako zer arlotan eragin behar den hautematea da, herritarren bizi-kalitatea gehiago sustatzeko; eta bigarrena Euskadiko datuak Estatuarekin eta Europakoekin alderatzea da, zer egoeratan gauden jakiteko.

/4/

Zahartzea

Euskadin

Biztanleen Udal Erroldaren (INE, 2013) azken datuen arabera, 2.191.682 pertsona daude Euskadin. Biztanle horien %20,2k 65 urte baino gehiago dituzte; alegia, 443.250 pertsonak. Horietatik, %44,63 gizonak dira eta %55,37 emakumeak.

55 urteko eta gehiagoko biztanleei dagokienez, 725.789 dira, biztanle guztien %33,12, ia biztanleri osoaren herena.

Gainzahartutako biztanleria -80 urtekoak eta gehiagokoak- 139.629 pertsonakoa da. Horrek esan nahi du biztanle guztien %6,37 direla. Laurogei urte beteak dituzten pertsonak sexuaren arabera banatuta, %65,5 emakumeak dira, eta %34,5 gizonak. Alegia, 65 urtetik gorako pertsonen ia herenak (% 31,5) 80 urte edo gehiago dituzte

Euskadi: Biztanleriari buruzko datuak, 2013

	BI SEXUAK	GIZONAK	EMAKUMEAK
Biztanleak, guztira	2.191.682	1.068.746	1.122.936
55 urte eta gehiagokoak, guztira	725.789	323.957	401.832
55 urtekoen edo gehiagoko %	33,1	30,3	35,8
65 urte eta gehiagokoak, guztira	443.250	186.372	256.878
65 urtekoen edo gehiagoko %	20,2	17,4	22,9
80 urte eta gehiagokoak, guztira	139.629	48.295	91.334
80 urtekoen edo gehiagoko %	6,4	4,5	8,1

Iturria: INE: INEBASE: Biztanleen Udal Errolda, 2013. Egileek egina.

Zahartzearen errealitate bitxi hori argi eta garbi adierazten da biztanleria-piramide honetan; gizonen eta emakumeen artean adinaren arabera zer alde dauden ikus daiteke. Hain zuzen ere, neska baino mutil gehiago jaiotzen dira, eta horren ondorioz, helduarora arte, emakume baino gizon gehiago daude. 40 urtetik aurrera, gizonen kopurua azkar txikitzen da, eta emakumeena, berriz, handitzen doa. Besteak beste, bi arrazoi hauek daude: gizonen heriotza-tasa handia eta emakumeen bizi-itxaropen handia. Heriotza-tasen arteko aldeak gero eta txikiagoak dira, baina, oraindik ere, gizonen bizitza-luzera txikiagoa da emakumeena baino; hau da, emakume gehiago daude zenbait adin-tartetan.

Euskadi: Gizonen eta emakumeen arteko biztanleria-aldeei buruzko piramidea, 2013



Iturria: INE: INEBASE: Biztanleen Udal Errolda, 2013. Egileek egina.

1996-2013 denboraldian, Euskadiko biztanleria handitu egin zen; hain zuzen, 93.638 biztanle gehiago daude orain. 65 urteko eta gehiagoko biztanlerian, 121.297 pertsona gehiago daude, eta laurogei urte beteak dituzten artean, 70.023 gehiago. Biztanleriaren datu absolutuen hazkunde harrigarri hori bi urte horietako piramideetan ikus daiteke.

Euskadi: Biztanleriari buruzko datuak, 1996

	Bi sexuak	Gizonak	Emakumeak
Biztanleak, guztira	2.098.044	1.027.108	1.070.936
65 urte eta gehiagokoak, guztira	321.953	131.930	190.023
65 urtekoen edo gehiagoko %	15,3	12,8	17,7
80 urte eta gehiagokoak, guztira	69.606	21.083	48.523
80 urtekoen edo gehiagoko %	3,3	2,1	4,5


Iturria: INE: INEBASE: Biztanleen Udal Errolda, 1996. Egileek egina.

1996ko piramidean, 15 eta 30 urte bitarteko adin-zerrendetan pertsona asko daudela ikusten da, eta 70 urtetik gorako zerrendetan, berriz, oso gutxi daudela. 2013ko siluetak beste profil bat du; belaunaldi gazteenetako pertsonen kopurua nabarmen txikitu da, eta asko handitu da adineko pertsonena. Egituren osieran adinaren arabera gertatutako aldaketa horiek biztanleria baten zahartze demografikoren ezaugarriak dira.

Biztanleriaren zahartze-prozesuan, aldaketak gertatzen dira biztanleria baten adinaren arabera egituraren osieran. Prozesu horrek bi alderdi ditu, bakoitzak bere kausak eta ondorioak dituena. Alderdietako bat emakumeen proportzioa gizartean handitzea da. Horrek esan nahi du adin-talde hori besteak baino azkarrago handitzen dela. Hauek dira aldaketa horren kausa nagusiak: jaiotza-tasa txikitzea eta bizi-itxaropena handitzea.

Piramideek adierazten duten 17 urteko denboraldian (1996-2013), argi eta garbi ikusten da "baby boom" belaunaldiko pertsonak adin-talde zaharragoetara igarotzen direla. Azken hamar urteetan, jaiotza-tasa apur bat handitu da, eta horrek ondorioak izango ditu etorkizunean.

Euskadi: Biztanleria-piramidea, 1996 eta 2013



Iturria: INE: INEBASE: Biztanleen Udal Errolda, 1996-2013. Egileek egina.

"Baby-boom" izeneko fenomenoak Europako herrialde askotan orokortu zen Bigarren Mundu Gerraren ondoren, eta haren ezaugarria 1957 eta 1977 urte bitartean ugalkortasuna asko handitzea izan zen. Belaunaldi horiek biztanle guztien herenak dira gaur egun. "Baby boom" fenomenoko belaunaldiak mendeko hirugarren hamarkadan (2020) iritsiko dira erretiro-adinean. Horrek oso ondorio garrantzitsua izango du, hezkuntza-sisteman edo lan-merkatuan izan zuenaren antzekoa.


XX. mendeko hirurogeiko hamarkadaren amaieratik hona, ugalkortasun-tasa asko txikitu da, eta horren ondorioz, adineko pertsonen portzentajea handitu egin da; horri "oinarririk zahartzea" esaten zaio.

EAEko ugalkortasun-tasa txikiena 1995etik 1996ra bitartekoa izan zen; orduko indizea 0,9 seme-alabakoa izan zen emakumeko. Datu hori oso urrun dago 2,1eko indizetik; alegia, biztanleria itxi batek (migrazioak ez dira kontuan hartzen) denboran zehar bere bolumena txikitu gabe mantentzeko behar den indizetik.

Ama izateko batez besteko adina handitu egin da: 1975ean, 28,6 urtekoa izen, eta 2011n, berriz, 32,4 urtekoa. Joerak adierazten duenaren arabera, emakumeek gero eta beranduago izaten dute lehen seme-alaba. Gainera, lehen seme-alaba ernaltzeko batez besteko adinik handiena Euskadikoa da autonomia-erkidego guztietan.

Jaiotza-tasak berehalako ondorioa du adinen piramidean. Jaiotza-tasa txikitzean, piramidearen oinarria estutu egiten da, eta beraz, adinekoen portzentajeak gora egiten du. Jaiotza-tasa nabarmen txikitu da, eta horrek azaltzen du bereziki munduko eta, batez ere, herrialde garatuenetako biztanleriaren zahartze demografikoa.

Euskadi: Ugalkortasun-indizea, 1975-2011



Iturria: EUSTAT. Adierazle demografikoak. Egileek egina.


Beraz, jaiotzaren bilakaera zahartze demografikoaren arrazoi nagusia da, baina badago beste alderdi bat ere, piramidearen goi-erpinari dagokiona: bizi-itzaropena handitzea eta jaiotza-tasa txikitzea. Jaiotzeko bizi-itzaropena 8 urtez baino zerbait gehiagoz luzatu da 1975etik 2011ra bitartean.

Bizi-itzaropena da adin jakin bateko pertsona batek bizitzea batez beste espero dezakeen urte-kopurua, adinaren arabera egungo heriotza-patroiak (adin bakoitzeko heriotza-tasa) bere horretan jarraituko balu. Bizi-itzaropena zenbait herritako heriotza-tasaren eragina alderatzeko erabiltzen den adierazle nagusia da. Gainera, alderaketa horretan oinarrituta, biztanleria baten osasun-baldintzak eta garapen-maila zein diren jakiteko ere erabiltzen da. Mendebaldeko herrialdeetan, bizi-itzaropenak aurrerapen handiak izan ditu azken mendean. Medikuntzan eta teknologian izandako

aurrerapenei esker, hiltzeko probabilitatea txikitu, haurren heriotza-tasak behera egin, nutrizio-ohiturak eta bizitza-estiloak aldatu, bizitza-baldintza materialen eta hezkuntzaren maila hobetu, eta osasun-zerbitzuak eskura dituzten biztanle-kopurua handitu egin da. (INE)

Azken datuen arabera, hau da jaiotzeko bizi-itxaropena Euskadin: 78,9 urte gizonek, eta 85,4 urte emakumeek.


Bizi-itxaropena, 1975-2011



Iturria: EUSTAT. Adierazle demografikoak. Egileek egina.

INEn datuen arabera, jaiotzeko bizi-itxaropenari dagokionez, Euskadi da bosgarren indizirik handiena duen autonomia-erkidegoa (83,22 urte). Madrilgo Komunitatea da lehena (84,26 urte), eta ondoren, Errioxa (83,63), Nafarroako Foru Komunitatea (83,63), eta Gaztela eta Leon (83,57) daude.

Bizi-itxaropena jaiotzean, EAEn, 2013



Iturria: INE. Oinarritzko datu demografikoak. INE. 2014.


Bizi-itxaropenak goranzko bilakaera izan du denboran zehar; hala ere, horrek ez du esan nahi gehitzen diren urte horietan guztietan jendearen osasun-egoera ona izango denik. Desgaitasunik gabeko bizi-itxaropenaren (DGBI) adierazleak aldi berean neurtu nahi ditu bizitzaren iraupena eta kalitatea.

Osasunari buruzko azken inkestako (2013) datu bat nabarmendu behar da: 2013an desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena (DGBI) txikiagoa zen 2007koa baino; hain zuzen, 0,3 urte txikiagoa gizonen kasuan, eta 1,8 urte txikiagoa emakumeen kasuan. Hau da, emakumeen bizi-itxaropena handitu egiten da, baina osasunaren kontura.

Desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena (DGBI) biztanleriaren osasunaren adierazle sintetikoa da, eta heriotzari eta desgaitasunari buruzko datuak ikuspegi berean uztartzen ditu.

Desgaitasunarekin bizitzen diren urteen kopurua handitu egin da, bai emakumeena, bai gizonena. 2002ko datuekin alderatuta, desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena 1,7 urte handiagoa da gizonen kasuan, eta 0,7 urte handiagoa emakumeen kasuan. Hala ere, desgaitasunarekin bizitzen diren urteen kopuruak gora egin du: 1,2 eta 1,6 urte, gizonen eta emakumeen kasuan, hurrenez hurren. Bizi-itxaropenari dagokionez sexuen artean dauden aldeak nabarmen txikitzen dira desgaitasunik gabeko urteak ere kontuan hartzen badira. Emakumeen bizi-itxaropena eta desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena handiagoa da gizonena baino, baina baita desgaitasunarekin bizitzeko itxaropena ere (10,2 emakumeen kasuan, eta 8,6 gizonen kasuan).

Desgaitasunik gabeko bizitzeko itxaropena, 2002-2013




Iturria: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritzak: 2013ko Euskadiko Osasunaren Inkestako datu garrantzitsuak.

Biztanleriaren zahartze-prozesua ez da berdina lurralde guztietan. Zahartzearen banaketaren eredu historikoaren arabera, barnealdeko komunitateetan eta lurralde historikoetan zahartze-indizeak handiagoak dira kostaldekoetan baino. Probintziarik zahartuenak lanarekin lotutako migrazio-tradizio handikoak dira; izan ere, biztanle gazteak probintzia haietatik hiriburu handietara joaten dira. Landa-herri askotan, gazteek emigratzen zuten, eta herriak zahartu egiten ziren, haurrik eta gazterik gabe. Landa-guneen zahartzea "baby boom" fenomenoaren bete-betean zegoenean eta 1960ko hamarkadako desarrollismoaren ondoren.

2011n, EAE Espainiako bosgarren erkidegorik zahartuena zen, Gaztela eta Leon, Galizia, Asturias eta Aragoi erkidegoen atzetik.


65 urteko eta gehiagoko pertsonen banaketa probintziaren arabera, 2011



Iturria: IMSERSO (2014): Adineko pertsonak Espainian, 2013.

EAEn, zahartze-indizirik handiena duen lurralde historikoa Bizkaia da (%20,7, 239,785 pertsona), eta indizirik txikiena duena, berriz, Araba (EAEko 65 urtetik gorako pertsonen %18,5). Alde horiek laurogei urtetik gorako pertsonen taldean ere ikus daitezke: Araban, biztanleen %5,6k 80 urte edo gehiago dituzte, eta Bizkaian, berriz, %6,7k.

65 urtetik gorakoen eta 80 urtetik gorakoen portzentajeak, 2013



Iturria: INE: INEBASE: Biztanleen Udal Errolda, 1996-2013. Egileek egina.
Eurostat: Database by themes. Population and social conditions, 2013.

Europako batez bestekoarekin alderatuz gero, ikus daiteke EB-27n biztanleriaren %18,2k 65 urte edo gehiago dituztela. Kopuru hori Estatukoaren oso antzekoa da, eta Euskadikoa baino txikiagoa.

Biztanleria eta portzentajeak sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera, 2013

	BI SEXUAK	GIZONAK	EMAKUMEAK
EUSKADI			
Biztanleak, guztira	2.191.682	1.068.746	1.122.936
65 urte eta gehiagokoak, guztira	443.250	186.372	256.878
65 urtekoen edo gehiagokoan %	20,2	17,4	22,9
80 urte eta gehiagokoak, guztira	139.629	48.295	91.334
80 urtekoen edo gehiagokoan %	6,4	4,5	8,1
ARABA			
Biztanleak, guztira	321.417	159.622	161.795
65 urte eta gehiagokoak, guztira	59.593	26.538	33.055
65 urtekoen edo gehiagokoan %	18,5	16,6	20,4
80 urte eta gehiagokoak, guztira	17.844	6.507	11.337
80 urtekoen edo gehiagokoan %	5,6	4,1	7,0
BIZKAIA			
Biztanleak, guztira	1.156.447	559.573	596.874
65 urte eta gehiagokoak, guztira	239.785	99.239	140.546
65 urtekoen edo gehiagokoan %	20,7	17,7	23,5
80 urte eta gehiagokoak, guztira	77.213	26.606	50.607
80 urtekoen edo gehiagokoan %	6,7	4,8	8,5
GIPUZKOA			
Biztanleak, guztira	713.818	349.551	364.267
65 urte eta gehiagokoak, guztira	143.872	60.595	83.277
65 urtekoen edo gehiagokoan %	20,2	17,3	22,9
80 urte eta gehiagokoak, guztira	44.572	15.182	29.390
80 urtekoen edo gehiagokoan %	6,2	4,3	8,1

Iturria: INE: INEBASE: Biztanleen Udal Errolda, 2013. Egileek egina.

Biztanleria osoa eta portzentajeak sexuaren eta adinaren arabera


	BI SEXUAK	GIZONAK	EMAKUMEAK
ESTATUA			
Biztanleak, guztira	47.129.783	23.196.386	23.933.397
65 urte eta gehiagokoak, guztira	8.335.861	3.565.325	4.770.536
65 urtekoen edo gehiagoko %	17,7	15,4	19,9
80 urte eta gehiagokoak, guztira	2.575.103	931.462	1.643.641
80 urtekoen edo gehiagoko %	5,5	4,0	6,9
EB-27			
Biztanleak, guztira	502.900.431	245.555.912	257.344.519
65 urte eta gehiagokoak, guztira	91.484.684	38.805.947	52.678.737
65 urtekoen edo gehiagoko %	18,2	15,8	20,5
80 urte eta gehiagokoak, guztira	25.448.130	8.887.421	16.560.709
80 urtekoen edo gehiagoko %	5,1	3,6	6,4

Iturria: INE: INEBASE: Biztanleen Udal Errolda, 2013. Egileek egina.

Eurostat: Database by themes. Population and social conditions, 2013.

Horrez gain, EAEko zahartze-prozesua nabarmenagoa da Estatuan eta Espainian baino. 1990ean, Euskadiko adineko pertsonen portzentajea txikiagoa zen Estatukoa eta EB-27koa baino. 2013an, hogeita hiru urte geroago, Euskadiko adineko pertsonen eta laurogei urtetik gorako pertsonen kopuru erlatiboak handiagoak dira Europakoak eta Estatukoak baino. Euskadin, biztanleria oso azkar zahartu da, Estatuko eta Europako datuak kontuan hartuta.

65 urte eta gehiagoko biztanleria, eta 80 eta gehiagoko biztanleria EAEn, Estatua, eta EB-27an 1990 eta 2013




Iturria: INE: INEBASE: Biztanleen Udal Errolda, 2013. Egileek egina.

Eurostat: Database by themes. Population and social conditions, 2013.

Adineko pertsonen bizilekua garrantzitsua da gizarte-politiken antolaketari eta administrazioari begira. Hiri-ingurunean, pilaketa abantaila da arreta-arloko jarduera, zerbitzu eta programak planifikatzeko. Landa-ingurunean, adineko pertsonak urrun dauden gunetik txikieta daude sakabanatuta, eta horrek jarduerak antolatzea eta zerbitzuak ematea eragozten du; izan ere, zerbitzuak ezin dira biltegitatu, eta beharrezkoa da ekoizlea (zerbitzua ematen duena) eta kontsumitzailea (arreta behar duen adineko pertsona) elkarrengandik hurbil egotea.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen (EGAB) "Krisi ekonomikoaren esparruan EAEn lurralde-desorekak" dokumentuan, zahartze-indizeari dagokionez eskualdeen artean zer desberdintasun dauden ikus daitezke. Horrenbestez, 2006tik 2013ra bitartean biztanleak galdu dituen eskualde bakarra Bilbo dela nabarmentzen da. Gainera, 65 urtetik gorako pertsonen portzentajerik handiena duen eskualdea da (%22); ondoren, Debabarrena, Ezkerraldea eta Debagoiena daude. Aitzitik, Gasteiz da biztanle gehien irabazi dituen eskualdea. Bestalde, 2013an adineko pertsonen portzentajerik txikiena zuen eskualdea izan zen (biztanleen %18,4k zituzten 65 urte edo gehiago). Dena den, eta arlo horretan Euskadiko eskualdeen arteko aldeak oso handiak ez direnez, biztanle gehien dituzten lau eskualdeetan pilatzen dira 65 urtetik gorako biztanle gehienak; hain zuzen, adineko pertsonen %70 eskualde horietan dago.

65 urtetik gorako pertsonen proportzioa eskualdearen arabera, 2013




Iturria: EGAB (2014): "Krisi ekonomikoaren esparruan EAEn lurralde-desorekak". 12. Ikerketa eta Txosten Bilduma. Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea.

Gaur egun, adineko pertsonen proportziorik handiena landa-guneetan dago. Hala ere, egia esan, EAEko adineko pertsona gehienak hirizat sailkatutako udalerrietan bizi dira, eta oso gutxi bizi dira landa-gunetako herrietan.

Banaketa hori biztanleriaren banaketa orokorraren ereduarekin dator bat; alegia, hirietako biztanleria gero eta handiagoa da, eta landa-guneetako, berriz, gero eta txikiagoa.

Eskualdeetan, hirietan eta, zenbait kasutan, hirietako hirigune historikoetan, orain arteko oreka demografikoa aldatu egin daiteke; izan ere, haietako batzuetan, adineko pertsonen proportzioa oso handia da. Hori dela eta, zenbait zailtasuni aurre egin beharko zaie; haietan, ondare-, zerbitzu-, osasun-, mendekotasun- eta garraio-arloetan. Landa-guneetan, hirietan, kostaldean eta, beste eskala batean, etxeetan gertatzen ari dira aldaketa sakon horiek.

Udallerriak 65 urteko eta gehiagoko biztanleen portzentajearen arabera, 2013



Iturria: EUSTAT: Udalmap, 2013.

Biztanleriaren proiezioen arabera, gainera, adinekoen kopuru horrek hazkunde portzentuala izango du, eta gaur egun halako bi izatera iritsiko da. INEk emandako azken datuek erakusten dutenez, 2029. urtean 65 urte baino gehiago dituzten 596.329 herritar egongo dira EAEn. Horiek biztanle guztien %29k izango dira orduan. Milioi bat pertsona inguruk izango dituzte 55 urte edo gehiago; hau da, Euskadiko biztanleen ia erdiek.

Baina, 65 urteko eta gehiagoko pertsonen kopuruaren hazkunde handia baino aipagarriagoa da laurogei urte beteak dituzten pertsonen hazkundera. Kalkulatutakoaren arabera, 2029an Euskadin 200.000 herritarrek baino gehiago izango dituzte 80 urte edo gehiago; hau da, EAEko biztanle guztien %9,9k eta adineko pertsonen %34,1ek.

Euskadi: 2029rako biztanleria-proiekzioak


2029	BI SEXUAK	GIZONAK	EMAKUMEAK
Biztanleak, guztira	2.056.975	989.187	1.067.788
55 urte eta gehiagokoak, guztira	923.010	417.588	505.416
55 urtekoen edo gehiagokoan %	44,9	42,2	47,3
65 urte eta gehiagokoak, guztira	596.329	256.755	339.572
65 urtekoen edo gehiagokoan %	29,0	43,1	56,9
80 urte eta gehiagokoak, guztira	203.806	76.094	127.712
80 urtekoen edo gehiagokoan %	9,9	37,3	62,7

Iturria: INE: INEBASE: Biztanleria-proiekzioak, 2013. Egileek egina.

Biztanleria-piramideek irudi batean adierazten dute Euskadiko etorkizun demografikoa nolakoa izango den. Biztanle gehien dituzten adin-taldeek piramidean gora egiten dute, eta 2029an, 50 urte baino gehiago izango dituzte; alegia, adin-talde horietan bi sexuetakoa pertsona-kopuru handia dagoela jartzen da agerian. Aitzitik, 25 eta 45 urte bitarteko pertsonen kopurua nabarmen txikituko da.

100 urte eta gehiago dituzten pertsonen kopurua ere asko handitzen ari da. Aurreikusita dagoenez, 2029an Euskadin 100 urteko eta gehiagoko 3.000 pertsona baino gehiago egongo dira, eta haietako gehienak emakumeak izango dira. Adin horietako emakumeak gizonak halako bost izango dira.

Euskadi: Biztanleria-proiekzioak: 2014ko eta 2029ko piramideak



Iturria: INE: INEBASE: Biztanleria-proiekzioak, 2013. Egileek egina.


Joerari erreparatuta, 2029an Bizkaia izango da adineko pertsonen portzentajerik handiena duen lurralde historikoa (%29,7); ondoren, Gipuzkoa (%28,7) eta Araba (%27,3) egongo dira.

Biztanleria-proiekzioak lurralde historikoaren arabera, 2015-2029

	2015	2020	2025	2029
EUSKADI				
Biztanleak, guztira	2.159.632	2.126.396	2.088.714	2.056.975
65 urte eta gehiagokoak, guztira	462.704	501.814	552.185	596.329
65 urtekoen edo gehiagokoan %	21,4	23,6	26,4	29,0
80 urte eta gehiagokoak, guztira	151.039	162.675	179.580	203.806
80 urtekoen edo gehiagokoan %	7,0	7,7	8,6	9,9
ARABA				
Biztanleak, guztira	319.648	319.897	319.093	317.785
65 urte eta gehiagokoak, guztira	63.307	70.560	79.048	86.603
65 urtekoen edo gehiagokoan %	19,8	22,1	24,8	27,3
80 urte eta gehiagokoak, guztira	19.517	21.760	25.139	29.332
80 urtekoen edo gehiagokoan %	6,1	6,8	7,9	9,2
BIZKAIA				
Biztanleak, guztira	1.135.314	1.113.040	1.088.823	1.068.756
65 urte eta gehiagokoak, guztira	248.914	267.666	294.015	317.148
65 urtekoen edo gehiagokoan %	21,9	24,0	27,0	29,7
80 urte eta gehiagokoak, guztira	83.541	88.968	96.484	107.604
80 urtekoen edo gehiagokoan %	7,4	8,0	8,9	10,1
GIPUZKOA				
Biztanleak, guztira	704.670	693.459	680.797	670.434
65 urte eta gehiagokoak, guztira	150.480	163.584	179.124	192.575
65 urtekoen edo gehiagokoan %	21,4	23,6	26,3	28,7
80 urte eta gehiagokoak, guztira	47.980	51.946	57.958	66.868
80 urtekoen edo gehiagokoan %	6,8	7,5	8,5	10,0

Iturria: INE: INEBASE: Biztanleria-proiekzioak, 2013. Egileek egina.

65 eta 80 urteko eta gehiagoko biztanleriaren proiektzioak, lurralde historikoen arabera



Iturria: INE: INEBASE: Biztanleria-proiektzioak, 2013. Egileek egina.

/5/

Euskadiko 55 urteko


eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzei

buruzko ikerketaren emaitzak

5.1. Laginaren profil soziodemografikoa

2014ko bizi-baldintzei buruzko ikerketan, EAEko etxeetan bizi diren 55 urteko eta gehiagoko 2.469 pertsonak hartu dute parte. %55 gizonak dira, eta %45, emakumeak. Adina handitzen den neurrian, emakumeen portzentajea handitu egiten da gizonen portzentajearekiko. Bi sexuen arteko alderik handiena 80 urteko eta gehiagoko pertsonen taldean dago (%65,3 emakumeak eta %34,7% gizonak).

55 urteko eta gehiagoko pertsonak sexuaren eta adinaren arabera



Egoera zibilari dagokionez, laginaren pertsonen erdiak baino gehiago ezkontuta daude edo bikotekidearekin bizi dira (%61,1); %25 inguru alargunak dira; eta %10 baino gutxiago ezkongabe daude (%9,3), edo bananduta edo dibortziatuta (%5,6).


Ezkontuen eta alargunen kategorietan, desberdintasunak daude generoaren arabera. Ezkontuta dauden gizonen portzentajea 25 puntu handiagoa da emakumeena baino. Alargunen kategorian, desberdintasun bera dago, baina, kasu horretan, emakumeen alde. Oso gizon gutxi geratzen dira alargun (%9,4). Emaitzak bat datoz bizi-itxaropenean hautemandako desberdintasunekin, emakumeen bizi-itxaropena handiagoa baita.

Adina handitu ahala, alargunen portzentajeak gora egiten du. 80 urte eta gehiagoko pertsonen taldean 65 eta 79 urte bitarteko pertsonen taldean halako bi da (%54,4 eta %24,5, hurrenez hurren). Berriz ere, kontrakoa gertatzen da ezkontidearekin edo bikotekidearekin bizi diren pertsonen errepertorio gero; hain zuzen, %69,7 dira 55 eta 64 urte bitarteko taldean, eta 80 urte eta gehiago dituzten pertsonen taldean, berriz, %35,7.

Gazteenen taldeak (55 eta 64 urte bitartekoa) du banandutako edo dibortziatutako pertsonen portzentajerik handiena (%9,2), eta adina handitu ahala, portzentaje hori erdira txikitzen da. Espero daiteke joera hori datozen urteetan areagotzea, ikerketetan adin-talde txikiagoak aintzat hartzen diren neurrian.

Pertsona bakarreko etxeen erdiak baino gehiago (%62,3) alargunenak dira. Ezkongabeak etxeen %22,4 dira, eta bananduta edo dibortziatuta daudenak, berriz, %13,7. Familia anitzeko etxeei dagokienez, azpimarratu behar da beren etxean bizi diren familiak ezkontuek edo bikoteek osatuta daudela nagusiki (%68,7), eta oro har, alargunak seme-alabaren baten etxean bizi direla (%64,4).

Adierazpen grafikoa egoera zibila adin tarteen arabera



Egoera zibila (portzentaietan)

	EZKONGABEA	EZKONDUTA/ BIKOTEKIDEAREKIN	BANANDUA/ DIBORTZIATUA	ALARGUNA	KOPURUA
55 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	9,3	61,1	5,6	24,1	2496
65 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	7,3	55,5	3,3	33,9	1523
Adina					
55-64 urte	12,4	69,7	9,2	8,7	974
65-79 urte	6,7	64,6	4,2	24,5	1044
80 urte eta gehiago	8,5	35,7	1,3	54,4	478
Sexua					
Gizonak	11,2	74,5	4,9	9,4	1115
Emakumeak	7,7	50,2	6,2	35,9	1381
Etxe-mota					
Pertsona batekoa	22,4	1,6	13,7	62,3	512
Bikotea	0,7	98,3	0,5	0,5	926
Belaunaldi anitzekoa adinekoen etxebizitzan	2,8	68,7	6,3	22,2	821
Belaunaldi anitzekoa seme-alaba baten etxebizitzan	2,9	24,2	8,5	64,4	33
Beste motaren bat	39,4	16,0	3,6	41,0	157
Ikasketak					
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	7,5	54,8	3,1	34,6	848
Lehen mailako ikasketak	7,8	60,2	6,4	25,7	798
Bigarren mailako eta goi-mailako ikasketak	12,4	67,9	7,5	12,2	844
Osasun-egoera					
Oso ona + ona	9,9	67,5	6,3	16,3	1246
Hala-holakoa	10,7	56,6	5,5	27,3	724
Txarra + oso txarra	7,4	52,1	5,9	34,6	190
Laguntza-beharra					
Laguntza behar du	7,9	38,2	3,3	50,7	503
Ez du behar	9,6	66,8	6,2	17,3	1993


HEZIKETA MAILA

Euskadin, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen %1 baino gutxiago da analfabetoa, eta 65 urteko eta gehiagoko pertsonen %1,2. Lagina osatzen duten ia pertsona guztiek (%88,6) lehen mailako ikasketak dituzte, baina haien %22,8k ezin izan zituzten amaitu.

55 eta 64 urte bitarteko taldean, analfabetismo %0,2koa da, eta %2,6k soilik ez dute ikasketarik, baina badakite irakurtzen eta idazten. 80 urte beteak dituztenen artean, irakurtzen eta idazten soilik dakitenen kopurua oso antzekoa da lehen mailako ikasketak hasi baina amaitu ez dituztenenarekin. Talde horretan, pertsona gutxik dituzte bigarren mailako edo goi-mailako ikasketak (%14,4).

Heziketa-maila zahartze hobeaarekin dago lotuta, heziketa-mailak diru-sarrerekin eta antzeko beste aldagai batzuekin zerikusia baitu. Bigarren mailako eta goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen osasun-egoera subjektiboari eta laguntza-beharrari erreparatuta, ikusiko dugu neurri handi batean ontzat edo oso ontzat hartzen dutela euren osasun-egoera, eta adierazten dutela eguneroko bizitzako jarduerak egiteko ez dutela laguntzarik behar.

Behe-mailako ikasketetan, emakumeen proportzioa handiagoa da gizonena baino. Datu hori genero-rol tradizionalekin bat dator; hau da, emakumeek etxean egon behar zuten bereziki, eta araututako heziketara heltzeko aukera gutxiago zituzten.

Ikasketa-maila sexuaren arabera, 2014

Heziketa maila (portzentajetan)

	ANALFABETOA	IKASKETARIK GABE (BADAKI IRAKURTZEN ETA IDAZTEN)	LEHEN HEZKUNTZA OSATUGABEA	LEHEN HEZKUNTZA AMAITUA	BIGARREN MAILAKOA HEZKUNTZA	LANBIDE HEZIKETA	UNIBERTSITATE- IKASKETAK	ARAUTU GABEKO BESTELAKO IKASKETAK	KOP.
55 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	0,8	10,4	22,8	32,0	8,2	12,7	12,7	0,2	2496
65 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	1,2	15,4	26,9	32,2	5,6	9,0	9,3	0,2	1523
Adina									
55-64 urte	0,2	2,6	16,2	31,7	12,3	18,4	18,2	0,2	974
65-79 urte	0,9	12,4	25,9	32,1	6,0	11,3	11,0	0,2	1044
80 urte eta gehiago	1,7	22,1	29,3	32,3	4,8	4,0	5,4	0,2	478
Sexua									
Gizonak	0,3	9,0	19,9	27,3	9,2	16,9	16,9	0,2	1115
Emakumeak	1,2	11,5	25,1	35,8	7,4	9,3	9,4	0,2	1381
Etxe-mota									
Pertsona batekoa	0,7	15,6	25,2	30,6	7,9	10,1	9,4	0,5	512
Bikotea	0,7	9,9	24,1	31,1	7,9	14,5	11,2	0,2	926
Belaunaldi anitzekoa adinekoen etxebizitzan	0,9	7,7	17,3	34,8	9,2	12,6	17,2	-	821
Belaunaldi anitzekoa seme-alaba baten etxebizitzan	-	9,8	48,9	32,8	2,9	2,7	2,8	-	33
Beste motaren bat	1,3	11,6	32,0	25,5	7,5	11,3	10,8	-	157
Osasun-egoera									
Oso ona + ona	0,3	4,9	18,1	31,8	10,5	15,9	18,1	0,1	1246
Hala-holakoa	0,7	14,6	27,0	35,0	6,3	9,9	6,0	0,3	724
Txarra + oso txarra	2,3	24,6	22,2	29,9	4,4	8,2	8,0	0,5	190
Laguntza-beharra									
Laguntza behar du	1,9	22,2	30,8	28,9	4,4	6,3	5,0	0,4	503
Ez du behar	0,5	7,5	20,7	32,8	9,1	14,3	14,7	0,2	1993

Egoera ekonomikoari begira, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen (%16,3) 1.200-1.800 euro jasotzen dituzte hilean, batez beste. Arreta 65 urteko eta gehiagoko pertsonengan (hau da, erretiroa hartuta daudenak) jarriz gero, datu hori 900-1.200 €-koa da (%17). Kontuan izan behar da lagina osatzen duten pertsona askok, %36 inguruk, galdera horri ez erantzutea erabaki duela.


Hileko diru-sarreraren mailan, aldeak daude sexuaren arabera. Emakumeek soldata txikiagoa jasotzen dute gizonen baino; izan ere, galderari erantzun dioten emakume gehienak (%16,4) 601-900€-ko zerrendan daude, baina gizonen %19,4ren diru-sarrerak 1.200-1.800 €-koak dira.

Diru-sarreraren maila adinaren arabera ere aldatzen da. Hilean 1.800 € baino gehiago jasotzen dituztenak 55 urteko eta gehiagoko pertsonen %23,2 dira, baina 80 urteko eta gehiagoko pertsonen %5,2 baino ez. Orobat, 55 eta 64 urte bitartekoen taldean, pertsona gehienek (%23,2) 1.800 € inguru jasotzen dituzte. 65 eta 79 urte bitarteko pertsona gehienek (%18,1) 900-1.200 € jasotzen dituzte, eta 80 urte eta gehiago dituzten pertsona gehienek (%19,9), berriz, 600-900 €.

Aipatzekoa da osasun-egoera subjektiboa hilean jasotako diru-sarreraren arabera aldatzen dela. Hilean, 1.200 € baino gehiago jasotzen dituztenen portzentaje handi batek bere osasun-egoera ona edo oso ona dela uste du. Diru-kopurua txikitzen den heinean, gero eta pertsona gehiagok hala-holakotzat, txartzat edo oso txartzat jotzen dute euren osasun-egoera.


Laguntza-beharrearen perzeptzioan ere ikus dezakegu eragin hori. Diru-sarreraren eta eguneroko bizitzako jarduerak egiteko zailtasunen arteko lotura alderantzizkoa da; hots, diru-sarrerarik txikiak dituztenek laguntzarik handiena behar dute.

Diru-sarrera-maila, 2014



Diru-sarrera-maila

	300 € BAINO GUTXIAGO	301-600 €	601- 900 €	901- 1.200 €	1.200- 1.800 €	1.800 € BAINO GEHIAGO	ED/EE	KOP.
55 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	0,3	3,2	12,9	15,0	16,3	15,6	36,4	2496
65 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	0,3	3,1	16,3	17,0	15,4	10,7	37,0	1522
Adina								
55-64	0,3	3,3	7,6	12,0	17,8	23,2	35,5	974
65-79	0,2	2,3	14,6	18,1	17,5	13,2	34,0	1044
80 urte eta gehiago	0,7	4,9	19,9	14,5	10,9	5,2	43,5	478
Sexua								
Gizona	0,2	2,0	8,4	17,2	18,1	19,4	34,3	1115
Emakumea	0,4	4,1	16,4	13,3	14,9	12,5	38,1	1381
Etxe-mota								
Pertsona batekoa	0,7	8,1	29,6	16,1	11,4	5,3	28,5	512
Bikotea	0,3	1,6	7,4	17,3	19,9	17,0	36,1	926
Belaunaldi anitzekoa adinekoen etxebizitzan	0,1	1,7	9,2	12,1	16,4	21,9	38,5	821
Belaunaldi anitzekoa seme-alaba baten etxebizitzan	0,0	4,7	11,5	2,8	23,5	16,7	40,7	33
Beste motaren bat	0,6	3,9	11,6	16,0	10,9	10,2	46,2	157
Ikasketak								
Analfabetoa	0,0	4,7	14,3	14,4	0,0	5,1	52,3	19
Ikasketarik gabekoa edo ikasketa osatu gabek	0,4	5,0	17,9	16,9	16,4	6,7	36,6	828
Lehen mailako ikasketak	0,2	3,3	15,5	19,7	15,7	9,3	36,2	799
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	0,3	1,2	5,5	8,9	17,4	30,6	35,6	844
Osasun-egoera								
Oso ona + ona	0,1	2,5	9,5	12,2	18,7	22,2	34,5	1246
Hala-holakoa	0,4	4,4	18,5	17,1	15,8	6,9	36,8	724
Oso txarra + txarra	1,8	3,5	13,7	20,4	7,6	12,1	40,5	190
Laguntza-beharra								
Behar du	0,7	4,1	19,6	15,6	11,9	6,7	41,3	503
Ez du behar	0,2	2,9	11,2	14,9	17,5	17,8	35,2	1993



Grafikoan argi ikus daitezke diru-sarreretan sexuaren eta adinaren arabera dauden aldeak, lehenago aipatutakoak. Pertsonen adina handitu ahala diru-sarrerek gutxitu egiten direla ikus daiteke, eta emakumeen artean hori areagotu egiten dela. Portzentajeak kalkulatzeko, galdera horri erantzun dioten pertsonak soilik hartu dira kontuan.

JARDUERAREKIKO LOTURA


Lan egiten ari diren edo lan egin duten pertsonen erdiak langile gaituen kategorian daude (kategoria horretan, enplegatu eta langile gaituak daude). Lagineko gainerako pertsonak honela sailkatzen dira: norberaren konturako langileak (%14,1); zuzendaritza-postuak, gerentzia eta tarteko agintariak (%14,9); eta langile ez-gaituak (%14,9).

Jarduerari dagokionez, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen %60k esaten dute erretiratuta daudela edo pentsiodunak direla; %15,9k lanean jarraitzen dutela adierazten dute, eta %18,7k, etxeko lanak egiten dituztela. Langabezia dauden pertsonen portzentajea %4,5koa da.

Datuetan ikus daitekeenez, desberdintasun handiak daude aktibitatean pertsonen adinari erreparatu gero. Esate baterako, 55 eta 64 urte bitarteko pertsonen portzentaje handi bat lanean dago (%39,5); hain zuzen ere, adin-tarte horretan portzentajerik handiena duen aukera da. Dena den, erretiratuta dauden edo pentsiodunak diren portzentajea ere oso handia da (%33,6). Aitzitik, 65 eta 79 urte bitarteko pertsonen artean, dikotomia bat dago nolabait: alde batetik, erretiratuta daude edo pentsiodunak dira (%76,9), eta bestetik, etxeko lanak egiten jarduten dute (horretan, emakumeak aritzen dira nagusiki). 80 urteko eta gehiagoko pertsonen artean, oso antzeko portzentajeak daude.

Bestalde, gizonei dagokienez, lagina bi kategoriatan sailka dezakegu: gaur egun lanean daudenak (%18,4) eta erretiratuta daudenak edo pentsiodunak direnak (%75,3). Emakumeei dagokienez, beste talde bat hartu behar dugu kontuan: etxeko lanak egiten dituztenak (%33,8). Hauek herenak dira 55 urte eta gehiago duten artean. Horrenbestez, lan egiten duten emakumeen eta erretiratuta dauden edo pentsiodunak diren portzentajeak txikiagoak dira; bereziki, azken kasu horretan (%48,5koa da).

Jarduerarekiko harremana adinaren eta sexuaren arabera




Jarduerarekiko harremana adinare eta sexuaren arabera

	LAN EGITEN DU	ERRETIRATUAK EDO PENTSIODUNAK	LANGABEZIAN	ETXEKO LANAK	BESTE BAT	KOP.
55 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	15,9	60,3	4,5	18,7	0,1	2496
65 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	0,9	77,4	0,2	20,8	0,1	1522
Adina						
55-64	39,4	33,5	11,1	15,4	0,3	974
65-79	1,1	76,5	0,3	21,4	0,1	1044
80 urte eta gehiago	0,6	79,5	-	19,5	-	478
Sexua						
Gizona	18,4	75,2	5,8	0,2	0,2	1115
Emakumea	14,0	48,3	3,4	33,6	0,1	1381
Etxe-mota						
Pertsona batekoa	8,8	70,4	4,5	15,8	0,4	512
Bikotea	11,4	63,5	2,7	21,7	0,2	926
Belaunaldi anitzekoa adinekoen etxebizitzan	25,7	48,6	6,4	19,0	-	821
Belaunaldi anitzekoa seme-alaba baten etxebizitzan	3,0	77,1	8,6	8,5	-	33
Beste motaren bat	11,3	72,5	3,5	12,6	-	157
Ikasketak						
Analfabetoa	-	45,9	-	54,1	-	19
Ikasketarik gabekoa edo ikasketa osatu gabek	5,0	66,8	1,6	25,6	0,2	828
Lehen mailako ikasketak	12,7	58,5	5,3	23,2	0,1	799
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	30,1	56,1	6,7	7,0	0,1	844
Osasun-egoera						
Oso ona + ona	22,4	54,6	5,6	17,1	-	1246
Hala-holakoa + ED/EE	7,6	63,7	4,8	23,1	0,1	724
Oso txarra + txarra	4,5	67,8	2,4	24,3	1,0	190
Laguntza-beharra						
Behar du	2,8	74,3	0,9	20,6	0,7	503
Ez du behar	19,3	56,8	5,4	18,2	-	1993

OHARRA: ED/EE erantzunak ez dira taulan azaltzen, %1ekoak baino txikiagoak baitira.

Kategoria profesionala, gaur egun lanean dauden ala ez kontuan hartuta, 2014



Pertsonak gaur egun lanean dauden ala ez kontuan hartzen badugu, zenbait alde daude kategoria profesionalari dagokionez. Gaur egun lanean dauden langile gaituen eta ez-gaituen portzentajea txikiagoa da lan egiten ez dutenena baino. Kontrakoa gertatzen da zuzendaritza- eta gerentzia-postuetan dauden langileen eta norberaren kontuan lan egiten dutenen artean.

Adinari dagokionez, ikus dezakegu zaharrenek neurri txikiago batean jardun dutela zuzendaritza- eta gerentzia-postuetan, eta gehienbat, lan ez-gaituetan ibili direla.

Heziketa-mailarekin gertatzen zen bezala, genero-desberdintasunak ikus ditzakegu kategoria profesionallean. Emakume baino gizon askoz gehiagok jarduten dute edo jardun dute zuzendaritza edo gerentzia postuetan (hurrenez hurren, %8,4 eta %19,1). Aitzitik, langile ez-gaituen kategorian, portzentaje horiek alderantzizkoak dira; izan ere, postu horietan jarduten duten edo jardun duten emakumeen portzentajea handiagoa da gizonena baino (hurrenez hurren, %24,2 eta %8,9).

Jakina, heziketa-mailaren arabera aldeak daude. Bigarren mailako edo goi-mailako ikasketak amaitu ez dituztenek postu ez-gaituetan jarduten dute orokorrean, amaitu dituztenek baino gehiago. Beste kategorian (zuzendaritza eta gerentzia), kontrakoa gertatzen da, postu horietan jardun duten pertsona gehienak heziketa-maila handiko pertsonak dira. Azpimarratu behar da langile gaituen eta norberaren konturako langileen kategorietan ez dagoela alde nabarmenik heziketa mailaren arabera.

Bestalde, aurreikus daitekeenez, lan-esparruan goi-mailako postuetan daudenak osasun-egoera hobean daude eta ez dute laguntzarik, oro har. Hori langile ez-gaituengan ere ikusten da, baina alderantziz.

Kategoria profesionala

	NORBERAREN KONTURAKO LANGILEAK	ZUZENDARITZA/GERENTZIA ETA TARTEKO AGINTARIAK	LANGILE GAITUAK	LANGILE EZ-GAITUAK	ED/EE	KOP.
55 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	14,1	14,9	52,7	14,9	3,4	1821
65 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	15,1	14,6	49,9	17,5	2,9	1029
Adina						
55-64	12,9	15,3	56,3	11,6	3,9	792
65-79	15,0	16,9	49,3	16,3	2,5	742
80 urte eta gehiago	15,2	8,4	51,7	20,6	4,1	287
Sexua						
Gizona	14,3	19,1	54,8	8,9	2,9	1104
Emakumea	13,9	8,4	49,5	24,2	4,0	717
Etxe-mota						
Pertsona batekoa	15,2	9,9	54,0	16,9	4,0	350
Bikotea	13,2	16,8	53,8	13,8	2,5	702
Belaunaldi anitzekoa adinekoen etxebizitza	15,6	16,7	50,4	14,2	3,1	599
Belaunaldi anitzekoa seme-alaba baten etxebizitza	7,2	7,2	41,6	36,6	7,3	13
Beste motaren bat	11,0	11,1	54,8	16,6	6,4	157
Ikasketak						
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	13,2	5,2	52,2	26,3	3,1	508
Lehen mailako ikasketak	14,5	5,3	56,1	20,6	3,5	537
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	14,5	28,0	50,8	3,4	3,3	772
Osasun-egoera						
Oso ona + ona	12,6	19,3	52,0	12,8	3,3	982
Hala-holakoa	15,7	8,9	56,9	16,3	2,3	479
Oso txarra + txarra	11,6	10,6	51,3	22,0	4,5	112
Laguntza-beharra						
Behar du	16,8	8,5	46,5	22,1	6,1	290
Ez du behar	13,6	16,1	53,9	13,6	2,8	1531

5.2 Bizikidetzaren ereduak eta gizarte-sarea

Bizikidetzaren ereduak eta adineko pertsonen arteko laguntza-sare informalei buruzko azterketa alderdirik garrantzitsuenetakoa bat da politika gerontologikoak planifikatzeko; bereziki, gizarte-baliabideak sortzeko, pertsona horien premia asko aldatzen baitira (Barrio, Sancho eta Yanguas, 2011).

Bizi-itxaropena handitu egin da, eta horrek hau dakar berekin, besteak beste: familia-belaunaldi gehiago denbora luzeagoan elkarrekin bizitzea. Horren ondorioz, beste esparru demografiko bat sortu da, eta familiek hartan moldatu behar dute. Horrenbestez, egoera hauek gero eta ohikoagoak dira: seme-alaba helduak adineko gurasoen etxean bizitzea; seme-alaba helduek adineko gurasoen zaintza-beharrak nola edo hala bete behar izatea; aitona-amonak haurrak zaintzeko funtzioak neurri handiago edo txikiago batean berreskuratzea, ilobak zaintzeaz arduratu behar baitute; seme-alaba helduak gurasoen etxera itzultzea, bai banandu egin direlako, bai egungo krisi ekonomikoaren edo beste arrazoiren baten ondorioz lana galdu dutelako. Egoera horiez gain, beste egoera tradizionalago batzuk ere gertatzen dira: habia hutseko fasean dauden bikoteak, seme-alabak emantzipatu egin baitira; edo bakarrik bizi diren adineko pertsonak, ezkongabeak edo alargunak direlako, edo dibortziatu edo banandu direlako (oraindik ere oso gutxi dira, baina gero eta gehiago).

Biztanleriaren zahartzearen ondorioz garrantzitsuenetakoa bat familien luzapena da, bai termino kuantitatiboetan (kasu horretan, datu demografikoa biziraupen-probabilitateen, bikotea osatzeko jarraibideen eta ugalkortasun-tasaren arabera da), bai termino kualitatiboetan. Bigarren ildo horretan, ezkontza-hausturen ondorioz, harreman horizontalen eta nuklearren garrantzia txikitu egiten da, kontingenteago bihurtzen baitira; aitzitik, belaunaldien arteko harremanak egonkorragoak dira denboran zehar, eta hortaz, etengabeko erreferentzia bat dira familia-taldeko kideen bizitzan (Pérez Ortiz, 2006).

Ohikoa da etxebizitza berean familia bateko hiru eta lau belaunaldi (berraitona-amonak, aitona-amonak, gurasoak, seme-alabak, ilobak) elkarrekin bizitzea. Baina, ugalkortasun-tasa txikiagoa denez, familiak ez dira hain handiak, kide gutxiago dituzte; hain zuzen, seme-alaba gutxiago dituzte. Gaur egun, familia nuklear txikiak (seme-alaba gutxiokoak) ohikoak dira, eta guraso bakarreko familien kopuruak gora egin du. Beraz, gaur egungo familien egitura lerro bertikal baten bidez adierazten da (Abellán, Puga eta Sancho, 2006).

5.2.1 Etxeen osaera

Zalantzarik gabe, etxeen osaera –hau da, etxebizitza berean bizi diren pertsonak– gizarte-bizitzaren oinarritzko datuetako bat da. Hori dela eta, datu hori da soziabilitatearen oinarritzko *locus*-a (Pérez Ortiz, 2006).

Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen etxearen (alegia, etxebizitza berean bizi diren pertsonak) batez besteko tamaina 2,2 pertsonakoa da. Adina handitu ahala, datu hori gutxitu egiten da; hain zuzen, 55 eta 64 urte bitarteko pertsonen kasuan, 2,5ekoa da, eta 80 urte beteak dituzten pertsonen kasuan, 2,0koa. Alarguntza da 80 urteko eta gehiagoko pertsonen familien batez besteko tamaina txikitzearen arrazoietakoa bat.

Lagina osatzen duten pertsonen %3,3k adierazi dute aita edo amarekin bizi direla (65 urteko eta gehiagoko pertsonen %1,5), eta %32,9k, seme-alaba batekin bizi direla. Oro har, belaunaldirik gazteenak bizi dira beste belaunaldi batekin (gurasoekin zein seme-alabekin).

Belaunaldi horiek emantzipatu gabeko seme-alabekin bizi dira, edota adinagatik mendekotasun-egoeran dauden gurasoekin. Pertsona heldu horiek, zahartzaroaren sarrera adierazten duten 65 urteak betetzear daudenak, seme-alabei laguntzen ari dira –eta beharbada, ilobak zaintzen–, bai eta, oro har, gurasoak zaintzen ere, baldin eta mendekotasun-egoeran badaude (ikus epigrafe hau: Emandako zaintzak).

Etxearen osiera

	BATEZ BESTEKO TAMAINA	GURASOekin BIZI DIRA	SEME-ALABEKIN BIZI DIRA
55 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	2,2	3,3	32,9
65 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	2,0	1,5	25,8
Adina			
55-64 urte	2,5	6,3	44,0
65-79 urte	2,1	1,8	24,3
80 urte eta gehiago	2,0	0,6	29,1
Sexua			
Gizonak	2,3	2,9	30,6
Emakumeak	2,2	3,7	34,7
Osasun-egoera			
Oso ona + ona	2,3	3,9	30,9
Hala-holakoa	2,1	2,3	29,4
Txarra + oso txarra	2,2	2,5	35,6
Laguntza-beharra			
Laguntza behar du	2,1	1,5	33,0
Ez du behar	2,3	3,8	32,8
Ikasketak			
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	2,1	2,3	26,7
Lehen mailako ikasketak	2,2	3,1	36,2
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	2,4	4,6	35,9


Bizikidetza-mota aldatu egiten da, hainbat gertakariren edo trantsizio demografiko edo familiarren ondorioz. Adineko pertsonak ez dute zahartzaro osoa etxe-mota berean ematen; izan ere, adineko pertsona gehienak zenbait etapatatik igarotzen dira, eta zenbait etxe-motatan bizi dira. Familia-ibilbiderik ohikoeneko lehen bizikidetza-egitura gurasoen eta seme-alaben artekoa da. Ondoren, seme-alabak emantzipatu ahala, habia huts bihurtzen da. Ondoren, ezkontideetako bat hil, eta bizirik geratu dena bakardade-etapa batetik igarotzen da. Azkenik, seme-alabaren bat etxera itzuli daiteke, edo adineko pertsona seme-alabaren baten etxera joan daiteke. Baita ere, gerta daiteke egoitza batean sartzea edo etxea desagertzea (Abellán, Puga eta Sancho, 2006).

Horrenbestez, Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko biztanleen etxeen egungo errealitatea hau da: %37,1, portzentajerik handiena, bikotekide batekin bizi dira (habia hutsa); ondoren, beren etxean belaunaldi anitzeko familietan bizi diren pertsonak daude (%32,9) (oro har, gurasoek eta emantzipatu gabeko seme-alabek osatutako familiak dira, eta sostengatzaile nagusia adineko pertsona da); %20,5 bakarrik bizi dira, pertsona bakarreko familietan; %8,2 bestelako familia-motetan bizi dira, beste senide batzuekin, adibidez; eta azkenik %1,3 seme-alabaren batekin bizi dira, haren etxean.


65 urteko eta gehiagoko biztanleen kasuan, datu horiek honela zehazten dira: %40,7 bikotekidearekin bizi dira; %24,4 bakarrik bizi dira; %24,4 beren etxean bizi dira, seme-alabekin; %8,6 beste etxe-mota batean bizi dira; eta %1,8 seme-alabaren batekin bizi dira haren etxean.

Adina da etxeen egitura aldatzen duen faktore nagusia. Belaunaldi gazteak (55-64 urte bitartekoak) belaunaldi anitzeko etxeetan bizi dira, gehienbat, beren etxebizitzan, baina 65 eta 79 urte bitarteko pertsona gehienak bikotekidearekin bizi dira, eta 80 urte eta gehiagoko pertsonak, berriz, bakarrik. Laguntza-beharra eta osasun-egoera adinarekin zerikusi handia duten aldagaiak dira, eta haietan, antzekoa gertatzen da.

Etxe mota adin-tartean arabera



Etxe mota 1993-2014



Sexuaren arabera aztertuz gero, ikus daiteke gizon baino emakume gehiago daudela pertsona bakarreko etxeetan, eta gizon gehiago bizi direla bikotekidearekin.


Azken urteetan, adineko pertsonen (65 urtekoak eta gehiagokoak) ohiko bizikidetzeta-moduak aldatu egin dira. 1993an, adineko pertsonen %15,2 seme-alabekin edota ilobekin bizi ziren haien etxean. 2014an, portzentaje hori asko txikitu da; hain zuzen ere, %1,8koa da. Pertsona bakarreko etxeen portzentajeak gora egin du; 1993an, %16,5koa zen, eta 2004an, berriz, %24,5koa. Beraz, ondoriozta dezakegu orain biztanleria autonomoagoa dela lehen baino.

Autonomia hori osasun-baldintzen hobekuntzaren eta independentzia ekonomikoaren ondorioz handitu da. Baina horrek beste ondorio bat ere izan dezake: adinekoak ahulezia-egoeran egoteko eta laguntza behar izateko arrisku handiagoan daude. Bakarrik bizi diren pertsonen gizarte-isolamendua eta gabezia soziala jasateko arrisku handiagoa dute. Gizonen heriotza-tasa handiagoa denez, alargun gehienak emakumeak dira, eta hori dela eta, gizon baino emakume gehiago daude bakardadean; alegia, emakume horiek bakarrik egoten dira mendekotasun-arazoak sortzen direnean eta laguntza behar dutenean (Sancho, 2010).

Etxe-motak aldagai soziodemografikoen arabera


	PERTSONA BATEKOA	BIKOTEA	BELAUNALDI ANITZE-KOIA ADINEKOAREN ETXEBIZITZAN	BELAUNALDI ANITZE-KOIA SEME-ALABA BATEN ETXEBIZITZAN	BESTE MOTAREN BAT	KOP.
55 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	20,5	37,1	32,9	1,3	8,2	2.496
65 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	24,5	40,7	24,4	1,8	8,6	1.522
Adina						
55-64 urte	14,2	31,5	46,2	0,5	7,6	974
65-79 urte	21,3	47,9	24,2	1,1	5,4	1.044
80 urte eta gehiago	31,5	24,9	24,8	3,3	15,4	478
Sexua						
Gizonak	15,3	45,1	31,4	0,6	7,6	1.115
Emakumeak	24,7	30,6	34,1	1,9	8,7	1.381
Osasun-egoera						
Oso ona + ona	18,5	42,7	31,9	1,0	5,9	1.246
Hala-holakoa	26,5	35,6	30,4	0,4	7,1	722
Txarra + oso txarra	30,4	26,9	32,5	3,5	6,7	190
Laguntza-beharra						
Laguntza behar du	27,6	23,6	29,0	3,6	16	503
Ez du behar	18,7	40,5	33,9	0,7	6	1.993

Etxe-motak



Adineko pertsonak zer etxe-motatan bizi diren Europa mailan aztertuz gero, datuek adierazten dute Euskadin bezala adinekoen portzentajerik handiena bikotekidearekin bizi direnei dagokiela. Hala ere, EB-27ko batez bestekoa ia %50ekoa da. Talde horren ondoren, bigarren handiena pertsona bakarreko etxeetan bizi diren pertsonena da (%31,3). Beste pertsona batzuekin bizi direnak %20,2 dira. Datu horretan, hauek sartzen dira: seme-alabekin edo gurasoekin bizi direnak –hau da, belaunaldi anitzeko etxeak– eta beste bizikidetzeta-mota batzuetan bizi direnak.

65 eta urte gehiagoko biztanleria etxe-motaren arabera UE27-an 2013



Iturria: EUROSTAT: Database by themes. Population and social conditions. EU-SILC.

5.2.1.1 Belaunaldi anitzeko etxeak

55 urteko eta gehiagoko biztanle gehienak belaunaldi anitzeko etxeetan bizi dira. Etxe horietan, bi belaunaldi edo gehiago bizi dira (gurasoak seme-alabekin edota ilobekin).

Lehenago aipatu dugunez, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen %34,2 etxe-mota horietan bizi dira. Adineko pertsona guztien (65 urtekoak eta gehiagokoak) %26,2 egoera horretan daudela kalkulatu da.

Gurasoak seme-alabekin bizitzeko modu horri "hegoaldeko" eredu esaten zaio, edo Europan, eredu mediterraneo. Eredu horrek askotariko kausak ditu: kultura-jarrerekin (balioak, sentimenduak, sinismenak, tradizioa, ohitura, belaunaldien arteko lotura estuagoak) lotutako lehentasunak; seme-alaben emantzipazio-egutegiarekin lotutako arazoak; egokiera-kontuak (hala nola etxebizitza edo lana izatea); egoera sozioekonomikoa (esate baterako, atzeraldia edo krisia); seme-alabei laguntzeko beharra (ilobak zaintzea, langabezia-egoeretan laguntzea, seme-alabak etxera itzuli behar izatea); gurasoak zaharrak izatea, eta osasun-egoera txarra izatea edo beren eguneroko jarduerak egiteko mugak izatea; eta agian, erakunde-zerbitzu formalen gabezia.

Belaunaldi anitzeko etxe-mota horretan, beste bi mota bereizten ditugu. Hainbat arrazoren eta familia-egoeraren ondorio dira, eta garrantzitsua da ondo bereiztea. Hauek dira. Batean, gurasoak eta seme-alabak adineko pertsonaren etxebizitzan bizi direnean. Bestean, adineko pertsonak seme-alabaren etxebizitzan bizi dira. Horren ondorioz, etxearen egiturak adinaren, sexuaren, osasun-egoeraren edo laguntza-beharraren arabera izan daitezke.

5.2.1.1.1 Beren etxebizitzan


Belaunaldi anitzeko etxeetan etxebizitzaren jabea adineko pertsona bada, pentsa daiteke pertsona hori familiaren sostengatzaile nagusia dela eta, beraz, hauekin bizi dela: emantzipatu gabeko seme-alabekin edo etxera itzuli behar izan duten seme-alabekin; eta/edo mendekotasun-egoeran egon daitezkeen guraso zaharrekin (dena den, kasu hau ez da oso ohikoa, lagineko pertsonen %3,3 soilik bizi baitira gurasoekin).

Belaunldirik gazteenetako biztanleen portzentaje handi bat belaunaldi anitzeko etxeetan bizi dira. 75 urtetik gorako pertsonen artean ere portzentajea handia da, baina azpimarratu behar da kopuru hori asko txikitu dela. 55 eta 64 urte bitarteko pertsonen %46,2 etxe-mota horretan bizi dira, baina 65 urteko eta gehiagoko pertsonen artean, portzentaje hori erdira jaisten da; hain zuzen, pertsona horien %24 bizi dira horrelako etxeetan. Hala ere, aipatzeko moduko datua da: 65 urteko eta gehiagoko lau pertsonatik bat seme-alabekin bizi da (%1,8 gurasoekin bizi dira).

Bi arrazoi daude adineko pertsonak beren ondorengoekin bizitzeko: oro har, seme-alabak gero eta beranduago emantzipatzea; eta neurri txikiago batean, seme-alabak etxera itzultzea (dibortziatu edo banandu direlako, krisiak eragindako iraupen luzeko langabezian daudelako...).

Etxe-mota horren osaeraren ezaugarri soziodemografiko aipagarriena hau da: etxe horietan bizi diren pertsonen %57,4 emakumeak dira, eta %42,2, gizonak. Egitura hori adinaren arabera aztertuz gero, ikusiko dugu 55 eta 64 urte bitarteko pertsonen belaunaldi anitzeko etxeetan sexuen arteko banaketa ia simetrikoa dela, gizonen eta emakumeen kopuruak oso antzekoak direla; beraz, ondoriozta daiteke etxe horietan bikoteak eta beren seme-alabak bizi direla. Adina handitu ahala, emakumeen pisua ere handitzen da; izan ere, 80 urte beteak dituzten pertsonen belaunaldi anitzeko etxeetan, %74,6 emakumeak dira. Kasu honetan, ondoriozta daiteke etxe horietan amak beren seme-alabekin bizi direla, bai eta, beharbada, ilobaren batekin ere.

Belaunaldi ugari etxeetan bizi diren pertsonak sexu eta adinaren arabera



Etxe horietako pertsonak zer-nolako profila duten argitzeko alderdi garrantzitsu bat osasun-egoera subjektiboa da. Horrelako hamar etxetik ia seiren jabeek osasun-egoera ona dutela uste dute.

Belaunaldi ugari etxebizitzetan bizi den biztanleria osasun egoeraren arabera



Etxe horietan eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntzarik behar ez duten pertsonak bizi dira.

Belaunaldi ugari etxebizitzetan bizi den biztanleria ebej egiteko laguntza behararen arabera



5.2.1.1.2 Seme-alaben etxebizitzan

Belaunaldi anitzeko etxeetan seme-alaben etxebizitzan bizi diren 55 urteko eta gehiagoko pertsonen portzentajea oso txikia da, %1,3koa. 80 urteko eta gehiagoko pertsonen kasuan, portzentajea %3,3koa da.


Etxe-mota horren portzentajea gero eta txikiagoa da, 1993ko Hirugarren Adinekoen Inkestak Euskadirako lortutako datuak kontuan hartzen baditugu, 1993an, egoera horretan zeuden pertsonen portzentajea %15,2koa zen. Hortaz, datuak asko aldatu dira azken 21 urte hauetan. Eta hortik, ondorio hau atera dezakegu: zahartzeari aurre egiteko jarrera aldatu egin da, eta adineko pertsonen autonomia eta independentzia handiagoa nahi dute, nahiz eta bakardade- edo mendekotasun-egoeran egiteko arriskua izan.

Azken ikerketek jakitera eman dutenez, adineko pertsonen beren etxean bizitzen jarraitu nahi dute, baita mendekotasun-egoeran ere. Duela oso gutxi jarrera-aldaketa da hori; izan ere, oso adin aurreratuko pertsonen beren ohiko etxebizitzan jarraitu nahi dute. Horrenbestez, ondoriozta dezakegu biztanleria autonomoagoa dela, oso adin aurreratuan eta mendekotasun-egoeran ere beren erabakian hartzen jarraitzen duela, eta bakardadean bizitzeko arriskuaren aurrean independentzia lehenesten duela. Gorantz doan balioa da autonomia, eta etorkizuneko joeratzat har daiteke. Horrek esan nahi du erakundeek arreta handiagoa jarri behar dutela bakardade-egoeretan eta egoera horiek izan ditzaketen eraginetan.


Belaunaldi anitzeko etxeetan, oso guraso gutxi bizi dira seme-alaben etxebizitzan. Beraz, ondoren ematen diren datuak zuhurtasun handiz aztertu behar dira; izan ere, lagineko 33 pertsona daude egoera horretan, bakarrik.

Edonola ere, pertsona horien profila ondoriozta daiteke: emakumeak, adin aurreratukoak eta osasun txarra dutenak. Kontuan izan behar da inkestatutako pertsona guztien %8,8k baino ez duela esan osasun txarra duela, eta kasu honetan, portzentaje hori %30etik gorakoa dela.


Belaunaldi ugari seme-alaben etxebizitzetan bizi den biztanleria sexuaren arabera



Belaunaldi ugariko seme-alaben etxebizitzetan bizi den biztanleria adinaren arabera



Belaunaldi ugariko seme-alaben etxebizitzetan bizi den biztanleria osasun egoeraren arabera



Askotan, belaunaldien arteko bizikidetzak hori gurasoen eta seme-alaben artean hartu ohi diren erabakien ondorio da; izan ere, gurasoek bizilekuz –askotan auzoz eta herriz– eta bizitza-eremuz aldatu behar dute, eta beren sare sozialak eta abar galtzen dituzte.

Horrelakoetan, beren etxea uzten dute beren bizi-kalitate txikiari eusteko. 80 urteko eta gehiagoko pertsonen artean, etxea uzteko eta seme-alabekin bizitzera joateko probabilitateak gehitu egiten dira, laguntza eta zaintzak izateko, bakarrik ez egoteko, alargun geratu direlako, edo bakarrik bizitzearekin lotutako arriskuak txikitzeke (Abellán, Puga eta Sancho, 2006)

Kasu horietan, adineko pertsonak ez dira etxeko arduradunak, etxebizitza ez baita haien jabetzakoa. Normalean, adineko pertsonak etxe berriko eguneroko lanetan laguntzen dute, baina batzuetan, karga bat balira bezala sentitzen dira. Seme-alaben etxera joaten direnean, adineko pertsona askok bizimodu pasiboa dutela uste dute, eta hori beste zailtasun emozional bat da, aurreko etxearekiko lotura afektiboak eta sozialak galdu izanaren sententzioaz gain.

5.2.1.2 Bikotekidearekin

Eskuarki, bikotekidearekiko bizikidetzak seme-alabak emantzipatzean hasten da ("habia hutseko" bizikidetzak ere esaten zaio). Familia-egoera horrek lotura asko askatzen ditu, eta aukera berriak sortzen dira adineko pertsonentzat. Baina, halaber, oso eragin emozional handia du, batik bat lan-merkatuan aktibo ez dauden amentzat; izan ere, seme-alabak zaintzen eman dute beren bizitzaren zati handi bat, eta seme-alabak emantzipatzean, hutsune handi bat sentitzen dute (Sancho eta Abellan, 2006)

Egia esan, ez dago adostasunik seme-alabak emantzipatzeak gizonen eta emakumeen bizitzan dituen ondorioen inguruan (Freixas, 1993). Ikuspuntu tradizionalagotik, emantzipazioak zenbait rol desagertzea eragiten du; esate baterako, emakumeak ama zaintzailearen rola galtzen du (antzekoa gertatzen zaio gizonari, erretiroa hartzean). Baina hainbat ikerketak nabarmentzen dutenaren arabera, lotura afektiboak seme-alabak emantzipatu ondoren finkatzen dira; izan ere, ordura arte, etxeko familia-harremanak oso hondatuta egon daitezke denboraren poderioz. Duela gutxiagoko ikerketek ere adierazten dute ikuspegi tradizional hori ez datorrela emakume guztien errealitatearekin bat; seme-alabak zaintzea beste ardurarik izan ez duten emakumeak edo seme-alabak gehiegi babestu dituztenak baino ez dira egoera horretan egoten (Freixas, 1993)


Bikotekidearekin bizitzeak konpainia eta intimitatea ematen dizkie adin guztietako pertsoneri, baina adineko pertsonen kasuan, beste harremanak gutxitzen diren heinean, bikotekidea behar-beharrezkoa izan daiteke. Egiaztatu da bikotekidearekin bizitzeak ondorio positibo hauek dituela: bizi-gogobetetasun handiagoa, gogo-aldate hobea, osasun fisikoa eta mentala, baliabide ekonomikoak, gizarteratzea, laguntza eta gizarte-harremanak (Abellán, Puga eta Sancho, 2006)

Bikotekidearekin bizitzeak osasuna babesten du nolabait. Gainera, gaixotasun- edo ahulezia-egoeretan, bikotekideak laguntza ematen du. Hortaz, bikotekideak oso funtzio garrantzitsuak ditu mendekotasun-egoerei aurre egiteko garaian.

Lehenago azalduenez, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen %37,1 egoera horretan bizi dira (eta 65 urteko eta gehiagoko pertsonen %40,7). 65 eta 74 urte bitarteko adin-taldean, bikotekidearekin bizi direnak dira ugariak (%47,9).

Gizon gehiago bizi dira egoera horietan, pisu handiagoa dute guztizko biztanleriarekiko, eta pisu hori gero eta handiagoa da adina handitu ahala. Aitzitik, gizon baino emakume gehiago bizi dira pertsona bakarreko etxeetan, geroago ikusiko dugunez. Horrek esan nahi du, mendekotasun-egoeraren bat sortzen denean, gizonak bikotekidearekin bizitzeko probabilitate gehiago dituztela, eta emakumeek, berriz, bakarrik bizitzeko.

Bikotekideareki bizi den biztanleria sexu eta adinaren arabera



Etxe-mota hori osatzen duten pertsonen profil nagusia honako hau da: 65 eta 74 urte bitarteko gizonak, osasun-egoera ona dutenak eta eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntzarik behar ez dutenak. Horrenbestez, etxe horien osaera adinaren eta sexuaren arabera aztertuz gero, gizonak dira nagusi, %63,2k ontzat edo oso ontzat hartzen dute beren osasun-egoera, eta %87,2k adierazten dute ez dutela laguntzarik behar eguneroko bizitzako jarduerak egiteko.

Etxe-mota hori gero eta ohikoagoa da azken urteetatik hona, gizonen zein emakumeen bizi-itxaropena handitu baita; horren ondorioz, bikoteak gero eta luzeago bizi dira elkarrekin. Adineko gizonen heriotza-tasa txikitu egin da, eta horrek etxearen osaera egonkorragoa izatea ekarri du berekin.

Bikotekidearekin bizi den biztanleria osasun egoeraren arabera



Bikotekidearekin bizi den biztanleria eby egiteko laguntza beharraren arabera



5.2.1.3 Pertsona bakarreko etxeak


Bereziki, bakarrik bizi diren adineko pertsonak biltzen dute gizarte-politika publikoen interesa. Gaixotasun- edo desgaitasun-egoeran, erakundeen laguntza behar izateko probabilitate gehien dituzte pertsona horiek. Gainera, isolamenduko edo gizarte-bazterketako arrisku handia dute (Abellán, Puga eta Sancho, 2006).

55 urteko eta gehiagoko biztanleen %20,5 eta 65 urteko eta gehiagoko pertsonen %24,5 pertsona bakarreko etxeetan bizi dira. 80 urteko eta gehiagoko pertsonen taldean, gazteenak (55 eta 64 urte bitartekoak) halako bi bizi dira horrelako etxeetan. Pertsona bakarreko etxea da adin aurreratuko pertsona gehienek dutena (80 eta gehiago); hain zuzen, %31,5ek dute.

Emakumeak dira nagusi etxe horietan; adin guztietako biztanleak kontuan hartuta, emakumeen proportzioa handiagoa da. 55 eta 64 urte bitarteko emakumeen %56,1 pertsona bakarreko etxeetan bizi dira. 80 urteko eta gehiagoko pertsonen artean, etxe horietan bizi diren emakumeak %78,1 dira. Emakumeen bizi-itxaropena handiagoa da gizonena baino, eta horixe da emakumeen bizitzako azken etapetako bakardade handiaren kausa. Gainera, kontuan hartu behar da alargun geratzen diren emakumeek berriz ezkontzeko aukera gutxiago dituztela gizonen baino. Izan ere, emakumeak autonomoagoak eta independenteagoak dira etxean bakarrik bizi aurre egiteko, esparru pribatu hori haien jardueragunea izan baita bizitza osoan. Genero-rolen banaketa tradizionalaren ondorioz, gizonen emakumeekiko mendekotasun handia dute etxeko lanei dagokienez; hortaz, oso gizon gutxiak uste dute autonomiaz bizitzeko gai direnik.

Pertsonarik zaharrenek jasaten dute bakardadea gehien; alde batetik, urteak egin ahala heriotza-tasa handitzen delako, eta beste batetik, gero eta adin aurreratuagoekin eusten diotelako beren etxean beren kabuz jarduteari. Zahartzaroan aurrera gehien handitzen den portzentajeari dagokio etxe-mota hori.

Etxebizitza unipertsonaletan bizi den biztanleria sexu eta adinaren arabera



Gainera, Euskadi da, Madrilen ondoren, bakarrik bizi diren emakumeen bigarren proportziorik handiena duen autonomia-erkidegoa. Euskadin, bakarrik bizi diren adineko emakumeen portzentajea %75etik gorakoa da (adineko pertsona batek osatutako pertsona bakarreko etxe guztiekiko).

Bakarrik bizi diren adineko emakumeen portzentajea, adineko pertsona batek osatutako pertsona bakarreko etxe guztiekiko, autonomia-erkidegoaren arabera (ehunekotan), 2013

AUTONOMIA-ERKIDEGOAK	(%)	AUTONOMIA-ERKIDEGOAK	(%)
Andaluzia	73	Extremadura	75,8
Aragoi	66,7	Galizia	71
Asturias	69,8	Madril	77,1
Balear Irlak	65,5	Murcia	76,3
Canarias	63,7	Nafarroa	67,4
Kantabria	71,1	EAE	76,3
Gaztela Leon	70,5	Errioxa	71,2
C.La Mancha	69,3	Zeuta	58,3
Katalunia	74,2	Melilla	83,3
Valentzia	72,2	ESTATUA	72,5


Iturria: CCOO: Observatorio Social de las Personas Mayores 2014. Para un envejecimiento activo.

Adineko pertsonen bakardadearen kausa nagusia "habia hutsaren" aurreko egoera baten haustura da, bikotearen kide baten heriotza dela eta. Alabaina, beste kausa batzuk ere gero eta ohikoagoak dira, hala nola ezkongabeen eta ezkontza-hausturen kopurua handitzea.

Gizarteak gero eta hobeto balioesten du norberaren independentziari eustea, eta joera orokor horren ondorio da gero eta adineko pertsona gehiago bakarrik bizitzea. Lehenago esan denez, adineko pertsonak beren etxean bakarrik geratzen denean, seme-alabekin bizi edo zaharren egoitza batera joan beharrean, gero eta gehiagok bakarrik bizitzea erabakitzen dute. Azken hogeitun urteetan (1993-2014), horrelako etxeetan bizi diren adineko pertsonen kopurua %8 handitu da (1993ko %16,5etik 2014ko %24,5era).


Beraz, hau da etxe horietan bizi diren pertsonen profila: adin aurreratuko emakumeak, osasun-egoera txarra dutenak eta eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza behar dutenak. Portzentajeen datuetan, osasun-egoera ona duten eta eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntzarik behar ez duten pertsonak dira nagusi oraindik ere, baina osasun-egoera txarra duten eta laguntza behar duten pertsonen kopurua nabarmen handitzen da, gainerako etxekeo datuekin alderatuta.

Etxebizitza unipertsonaletan bizi den biztanleria osasun egoeraren arabera



Ildo horretan, datu hau nabarmendu behar da: bakarrik bizi diren pertsonen %27,1ek adierazten dute eguneroko bizitzako jardueraren bat egiteko laguntza behar dutela.

Etxebizitza unipertsonaletan bizi den biztanleria eji egiteko laguntza beharraren arabera



Autonomia hori osasun-baldintzen hobekuntzaren eta independentzia ekonomikoaren ondorioz handitu da. Baina horrek beste ondorio bat ere izan dezake: adinekoak ahulezia-egoeran egoteko eta laguntza behar izateko arrisku handiagoan daude.

5.2.2 Gizarte-sarea

Baina bizikidetzaz moduz eta etxe-motaz gain, adineko pertsonen eguneroko bizitza osatzen duen gizarte-sarea ere hartu behar da kontuan. Sare horretan, hurbiltasuna eta harremana dira elementu nagusiak. Familia-elkartasunak ez dira bizikidetzaz moduan eta elkarrekiko bizikidetzaz amaitzen; izan ere, beste harreman-mota batzuen bidez ere finkatzen dira.

Hurbiltasunari esker, familiako kideen harremanak elkarren ohituretan txerta daitezke, eta harremanak kausalagoak eta bat-batekoagoak dira; alegia, ez daude hain erritualizatuta, eta seguru asko, eduki aberatsagoak izango dituzte (Perez Ortiz, 2004)

Familia-egitura bertikaletan, familia-loturak ez dira ahultzen denboraren joanean. Izan ere, luzeagoak izan daitezke, gurasoak eta seme-alabak denbora gehiago baitaude elkarrekin –baterako biografia– (Abellán, Sancho eta Puga, 2006)

5.2.2.1 Hurbiltasuna

Hurbiltasuna tresna baliagarria da belaunaldi arteko transferentzietan. Onura hauek ditu: zaintzarako aukera handiak ematen ditu; kultura-tradizioari eutsiz, familia-lotura estuak izatea ahalbidetzen du; eta urruneko intimitatea sortzen du, autonomiari eta independentziari eusteko aukera emanez, eta laguntza materiala eta emozionala hurbil dagoelako segurtasunarekin (Abellán, Sancho y Puga, 2006)


Lehenago esan dugunez, 55 urte beteak dituzten pertsonen %32,9 seme-alabekin bizi dira. Gainerakoek hau adierazi dute: %53,6 seme-alaba baten etxetik kilometro batetik beherako distantziara bizi dira, eta %23,3, berriz, 1 eta 5 kilometro arteko distantziara. Alegia, 55 urteko eta gehiagoko 10 pertsonatik zortzi seme-alaba baten etxetik 5 kilometrora edo gutxiagora bizi dira.

Oro har, adineko pertsonen “urruneko intimitatea” formula nahiago dute, erabakiak hartzen jarraitu baitezakete, beren etxean eta intimitate-esparruan, behintzat. Aldi berean, oso hurbil daukate laguntza-sare garrantzitsu bat (Abellán, Sancho eta Puga, 2006)

Kulturalki familia gehienek *neolokalitatearen* ereduari eusten diote (Gonzales Blasco, 2006); hau da, familia bakoitza etxe independente batean eratzen dela adierazten duen ereduari. Hala ere, ñabartutako neolokalitatea da, etxeen arteko distantzia fisikoak oso txikiak baitira.

Zenbait ikerketatan, seme-alaba gehienek gurasoen etxetik hurbil bizitzeko joera dutela ondorioztatu da. Zenbait kausa ditu horrek; hala nola, baliabideak elkarbanatzea, eta laguntza elkarri ematea. Hurbiltasuna behar ekonomikoen edo gurasoen eta seme-alaben arteko laguntzaren ondorio izan daiteke. Hona hemen ohiko zenbait adibide: adin txikiko ilobak zaintzea, haurtzaindegiko gastuak saihesteko; edo seme-alabek osasun txarra duten edo mendekotasun-egoeran dauden gurasoei laguntzea. “Segurtasun-sare” moduko horri esker, baliabideak, laguntza eta zaintzak garatzean histori-koki ditugun gabeziak gutxitu egiten dira.

Gizarte-sarea: gertukoaren dagoen seme-alabarekiko distantzia +55



Aldagai soziodemografikoekin gurutzatuz gero, datu interesgarri hauek nabarmentzen dira: 80 urteko eta gehiagoko pertsonak –batik bat, emakumeak, osasun txarra duten pertsonak eta laguntza behar dutenak– gainerakoak baino portzentaje handiagoan bizi dira eraikin berean, baina ez etxebizitza berean. Seme-alabak dituzten guraso gazteak

portzentaje handiagoan bizi dira 500 km-tik gorako distantziara herrialde berean edo beste herrialde batean, baina portzentajeak txikiak dira oraindik ere. Belaunaldirik gazteenetako pertsonak mugikortasun handiagoa dute aurreko belaunaldikoak baino; batez ere, egungo krisi honek eragindako gazte-langabezia handia kontuan hartuta, horren ondorioz gazte askok beste herrialde batzuetara emigratu behar izan baitute lan bila. Neurri handi batean, hori da gurasoen eta seme-alaben arteko distantzia handiaren kausa.

	ERAKIN BEREAN BAINA BESTE ETXE BATEAN	< 1 KM	1-5 KM	6-25 KM	26-100 KM	101-500 KM	> 500 KM, HERRIALDE BEREAN	> 500 KM, BESTE HERRIALDE BATEAN
55 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	3,6	50,0	23,3	11,6	3,5	3,0	2,1	1,6
65 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	4,1	51,1	24,3	11,7	2,7	2,9	1,1	0,8
Adina								
55-64 urte	2,3	47,1	20,5	11,4	5,5	3,2	4,6	3,5
65-79 urte	2,5	50,8	24,7	13,0	2,8	3,2	0,9	0,7
80 urte eta gehiago	7,8	51,7	23,5	8,6	2,4	2,3	1,5	1,2
Sexua								
Gizonak	2,8	48,5	22,6	12,9	3,9	4,0	1,8	1,4
Emakumeak	4,3	51,2	23,9	10,5	3,1	2,2	2,2	1,7
Osasun-egoera								
Oso ona + ona	3,1	50,2	22,7	11,1	4,0	3,2	2,7	2,1
Hala-holakoa	2,8	49,2	24,2	12,5	3,1	2,9	1,4	1,5
Txarra + oso txarra	6,8	47,1	28,0	10,0	2,7	3,5	1,8	0,0
Laguntza-beharrak								
Laguntza behar du	6,2	53,4	23,5	10,3	2,9	1,8	0,3	0,3
Ez du behar	2,9	49,1	23,2	12,0	3,6	3,3	2,5	1,9

5.2.2.2. Harremana


Adineko pertsonak dituzten harremanak (presentzialak edo ez) familian integratuta dauden ala ez adierazten dute, bai eta zer laguntza material eta emozional jaso dezaketen ere (Abellán, Sancho eta Pugar, 2006).

Harreman presentzialen esparruan, aipatu behar da 55 urte beteak dituzten pertsonen %67,4 astean behin seme-alabaren batekin daudela; alegia, 10 pertsonatik ia zazpi seme-alabaren bat ikusten dutela astean behin (%47,6k egunero edo ia egunero ikusten dute).


Ohiko harreman horren barruan, azpimarratu behar da astero lagunak edo auzokoak ikusten dituzten pertsonen portzentaje handia (%81,3) (biztanle gehien-gehien kasua da), eta %45,2k harreman presentziala dutela gurasoak edo seme-alabak ez diren senideekin. Daturik txikiena adineko pertsonak gurasoekin daukaten harremanari dagokio; izan ere, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen %11,3k ikusten dute aita edo ama astean behin. Kontuan izan behar da aitarik edo amarik ez duten pertsonak ere sartzen direla portzentaje horretan; hain zuzen, horregatik da portzentajea hain txikia.

Genero-aldeak daude harremani eta maiztasunari dagokienez: gizonek baino emakume gehiagok dute eguneroko harremana senideekin, eta emakumek baino gizon gehiagok dute eguneroko harreman presentziala lagun eta auzokoekin. Familiaren esparru pribatua emakumeei dagokie bereziki, eta etxetik kanpoko esparrua (publikoa), berriz, gizonei.

Gizarte-sarea, kontaktu presentziala




Gizarte sarea, eguneroko kontaktu presentzialaren eta sexuaren arabera



Adinari begira, ondoriozta daiteke adina handitu ahal harreman presentzialak gutxitu egiten direla, seme-alabena izan ezik. Adin aurreratueneko pertsonen %56,6k egunero ikusten dituzte seme-alabak, eta 55 eta 64 urte bitarteko pertsonen %39,0k. Urteak egin ahala, gurasoek seme-alaben laguntza handiagoa behar izaten dute, eta hori izan daiteke hazkundearen arrazoia.

Bestalde, adin aurreratuko pertsonen jardura beren etxeko eta hurbileko esparrura mugatzen da, eta gero eta harreman gutxiago dituzte beste pertsona batzuekin, seme alabekin izan ezik; hain zuzen ere, gero eta harreman gutxiago dituzte, eta gero eta pertsona gutxiagorekin. Beraz, ingurunerik hurbileneko pertsonenkin soilik dituzte harremanak.

Gizarte-sarea kontaktu presentzial eta adinaren arabera




Harreman presentzialaz gain, beste baliabide batzuen bidezkoak ere hartu behar dira kontuan, behar-beharrezkoak baitira. IKTak funtsezkoak dira harremanetarako eta komunikaziorako. Horrek familiako kideen arteko elkartasun-moduetako bat ahalbidetzen du: laguntza emozionala ematea, eta arazo pertsonaletan laguntza eta aholku eman ahal izatea; hau da, afektibitate-harremanak, eta ez elkarrekin edo hurbil bizitzea behar duten harreman instrumentalak.

55 urteko eta gehiagoko pertsona gehienek harreman ez-presentziala dute seme-alabaren batekin. Komunikazio hori telefono, posta elektronikoa eta bideodei bidez gauzatu daiteke, besteak beste.


Gainera, 10 pertsonatik ia seik baliabide horiek erabiltzen dituzte beste senide batekin harremanetan egoteko, eta %49,0k, auzokoekin edota lagunek harremanetan egoteko. Bestalde, pertsonen %44,5ek erabiltzen dituzte baliabide horiek gurasoekin harremanetan egoteko.

Kasu guztietan, emakumeek erabiltzen dituzte komunikazio-bide horiek, gizonek baino gehiago. Eta harreman presentzialean bezala, harreman horiek adinarekin batera gutxitzen dira, ondorengoekiko harremanaren kasuan izan ezik.


Gizarte-sarea kontaktu ez presentzialaren arabera



Gizarte-sarea kontaktu ez presentziala eguneroko eta sexuaren arabera



Gizarte-sarea kontaktu ez presentziala eguneroko eta adinaren arabera



5.3. Etxebizitza eta ingurunea

Edozein pertsonarentzat, bizi den lekua (etxea, kalea, auzoa) funtsezko erreferentzia da. Leku horietan, gure maniak eta gustuak askatzen ditugu, eta beraz, denborak aurrera egin ahala, gure historiaren lekuko mutu bihurtzen dira (Sancho, 1994).

Etxebizitza lehen mailako ondasuna da pertsona guztientzat. Esanahi ekonomikoa baino zerbait gehiago du; izan ere, hainbat funtzio garrantzitsu betetzen ditu, eta han ematen dugu gure bizi-denboraren zati handi bat. Alderdi materialari dagokionez, etxebizitzak zenbait funtzio ekonomiko ditu, baina, horrez gain, bertan bizi direnen ezaugarri fisikoekin elkarrengaitan du, eguneroko bizitzako ohiko jarduerak egitea errazten edo eragozten baitu. Hala ere, gainera, etxebizitzak badu alderdi soziala eta sinbolikoa ere; alde batetik, egungo edo iraganeko sozialitate-gunea izan da, eta beste batetik, pertsona gaur egun denaren eta izan denaren arteko jarraitutasuna adierazten du. Horrek nabarmen handitzen du etxebizitzaren balioa (Pérez Ortiz, 2006).

Etxebizitza oso garrantzitsua da zahartze-prozesuan, pertsonen bizimodua garatzen den gune nagusia baita (lan-bizitzaren etapan ez bezala, orduan lantokia etxebizitza bezain garrantzitsua baita). Erretiro-garaian, etxebizitzaren garrantziak gora egiten du; izan ere, pertsonak hartan egiten ditu bere eguneroko bizitzako jarduera gehienak. Etapa horretan, alderdi fisikoengatik da garrantzitsua, baina baita alderdi psikologikoengatik ere: etxearen esanahia, atxikimendua, pertzepzioak, kontrola, bizigarritasuna, etab. Etxebizitza oso alderdi garrantzitsua da adineko pertsonen bizitza-kalitatearako. Etxea norberaren eta familiaren biografiarekin lotzen da, eta gainera, gure identitatea kutsatzen diogu (Walker, 2004).

“Etxean zahartzea” goiburua 1990.eko hamarkadaren hasieran sortu zen, gerontologiaren esparruko aditu eta ikertzaileen artean. Orduaz geroztik, zahartzeari buruzko nazioarteko ikerketa askok etxebizitzarekin eta inguruarekin lotutako gaiei heldu zieten, bi elementu horiek pertsonak ondo zahartzeko oinarritzotzat hartuz (Wahl, Fänge, Oswald, Gitlin eta Iwarsson, 2009).

5.3.1. Edukitze-erregimena eta ekipamenduak

Ikuspuntu ekonomizistatik, ondare gisa goza daitekeen ondasuna da etxebizitza. Oso zama nekagarria izan daiteke, edo kontrakoa, aurrekontuaren zati handi bat aska dezake, beste behar batzuk estaltzeko erabiltze aldera (Pérez Ortiz, 2006). Hipotekarik ordaindu behar ez izateak oso segurtasun-sentimendu handia ematen du. Segurtasun hori irabazia den neurrian, ondasuna arrakasta- edo lorpen-ikur bihurtu daiteke (Pérez Ortiz, 2003); izan ere, argi dago premiazko ondasun hau familia gehienek inbertsio nagusia dela.

Adineko pertsonen artean, alderdi ekonomiko hori oinordetzaren bidez finkatzen da. Haietako gehienentzat, etxebizitza ondasun bakarra da, edo behintzat, nagusia, beren bizitzan zehar oinordekoei emateko eratu duten ondarearen zati nagusia. Batzuetan, ondare hori adineko pertsonen bizitzari zentzua ematen dion iturria da, nahiz eta, bizi-itzaropena handitu denez, jaraunspenek beren funtzionalitatearen zati bat galdu duten. Izan ere, oinordekoek ondarea jasotzen dutenerako, pertsona independente gisa ezartzeko unerik zailenak igaro dituzte. Bestalde, gerta daiteke jaraunspena hurrengo belaunaldiak jasotzea; alegia, bilobek (Renard, 2001). Etxebizitzak oinordetzan eman ahal izateak benetako edo alegiazko gatazkak ere eragin ditzake: adineko pertsonak beren ondarearen (agian baliotsua baina ez beti egokia) gatibu izan daitezke, oinordekoekin dituzten harremanak ez oztopatzeko.


Etxebizitzaren edukitze-erregimena oso adierazle garrantzitsutzat hartzen da, adineko pertsonen baliabideak eta egoera sozioekonomikoa aztertzerakoan. Aringarri bat izan daiteke familiaren aurrekontuan, eta horrenbestez, segurtasun-sentimendu handia sortzen du bizitzako etapa horretan. Azken batean, etxebizitza eta haren ingurunea erabakigarriak izan daitezke adineko pertsonen bizitza-kalitateari begira. Etxebizitzaren egoera objektiboek hartan jarraitzen laguntzen dute, laguntza behar bada ere. Horrez gain, kontrolaren, iraunkortasunaren, erabakitzeko ahalmenaren eta abarren pert-

zepzioak indar handia du etxe-esparruetan. Euskadiko adineko pertsona gehienak (%94,3) beren etxebizitzaren jabeak dira.

Beren jabetzako etxe batean bizi diren biztanleen kopuruak behera egiten du adina txikitu ahala; alegia, gazteenen artean (55-64 urte), etxebizitza jabetzan dutenen portzentajea apur bat txikiagoa da, baina, hala ere, oso handia (%90,2). Talde horretan, alokairuan bizi diren pertsonen portzentajea handiagoa da, oraindik ere oso txikia bada ere (%8,1).

Etxebizitza jabetzan duten pertsonen artean, aipatu behar da gazteenen kasuan etheen %3,1 gurasoenak direla. 80 urte eta gehiago dituzten pertsonen artean, portzentaje hori seme-alaben jabetzako etxebizitzetan bizi diren pertsoneri dagokie. Lehenago azaldu denez, kolektibo horrek protagonismoa du belaunaldi anitzeko etxeetan, etxebizitza seme-alabaren jabetzako denean. Eskuarki, pertsona horiek osasun txarragoa dute eta laguntza gehiago behar izaten dute.

55 Urte baino gehiagoko pertsonen etxebizitza edukitzearen erregimena



Etxebizitzaren edukitze-erregimena, aldagai soziodemografikoen arabera

	JABETZA	SEME- ALABEN JABETZAKOA	GURASOEN JABETZAKOA	BESTE SENIDE BATEN JABETZAKOA	ALOKAIRUA	NORBAITEK UTZITAKO ADO LAGAPENEAN EMANDA	BESTE EGOERA BATZUK	ED/EE
55 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	88,7	1,6	1,5	0,9	5,8	0,2	1,1	0,1
65 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	90,8	2,3	0,5	0,8	4,3	0,3	0,9	0,2
Adina								
55-64 urte	85,4	0,6	3,1	1,2	8,1	0,1	1,5	0,1
65-79 urte	92,2	1,5	0,4	0,7	4,0	0,3	0,8	0,0
80 urte eta gehiago	87,6	3,9	0,6	0,9	5,0	0,3	1,1	0,6
Sexua								
Gizonak	88,0	0,7	1,4	1,0	7,0	0,2	1,4	0,1
Emakumeak	89,2	2,3	1,5	0,8	4,8	0,2	0,9	0,2
Osasun-egoera								
Oso ona + ona	89,4	1,3	2,0	0,8	5,2	0,2	0,9	0,2
Hala-holakoa	91,6	0,5	0,6	0,8	4,9	0,3	0,9	0,2
Txarra + oso txarra	80,3	3,5	1,0	1,0	11,8	0,5	2,0	0,0
Laguntza-beharra								
Laguntza behar du	87,1	4,1	0,9	1,1	5,3	0,4	1,2	0,0
Ez du behar	89,1	1,0	1,6	0,9	5,9	0,2	1,1	0,2
Ikasketak								
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	89,0	2,8	1,1	1,1	4,7	0,1	1,2	0,0
Lehen mailako ikasketak	88,2	1,6	1,4	1,1	5,8	0,1	1,5	0,3
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	88,8	0,4	2,0	0,6	7,0	0,5	0,7	0,1

Adineko pertsonen etxeetako ekipamendu eta instalazioak aztertzeak baliabide materialei edo bizitza-baldintzei buruzko ikuspegia ematen du, baina baita, zalantzarik gabe, ikuspegi soziala ere. Horri dagokionez, agerikoena eta agian garrantzitsuen hau da: urteak egiten ditugun neurrian aldaketa teknologikoarekin dugun harremana (Pérez Ortiz, 2004)

Etxebizitza bateko ekipamenduetatik, komunikazioaren teknologia berriekekin lotutakoak ezinbestekoak dira zahartzeko aktiboa izateko.

Informazioaren teknologia berriak oso azkar txertatzen ari dira adineko pertsonen eguneroko bizitzan. Teknologia horiek erabiltzeak bizi-kalitatea, osasuna eta autonomia hobetzea dakarte berekin. IKTek zahartzeko aktiboa eta ingurunean parte hartzea sustatzen dute. Azken urteetan, administrazio publikoek IKTen erabilera bultzatu dute. Prozesu horretan, berriazko arreta jarri dute adin handiagoko biztanleengan, teknologia horiek erabilia onura asko lor baititzakete.

Euskadiko ia adineko pertsona guztiak telefono finkoa dute (%92,6), eta gehienek, sakelako telefonoa (%78,5). Hirutik batek ordenagailua edo tableta eta Interneterako sarrera ditu etxean.

Datuek eten digitala dagoela jartzen dute agerian; 55 eta 64 urte bitarteko pertsonen %72,2k ordenagailua edo tableta dute, eta %74,1ek, Interneterako sarrera. 80 urteko eta gehiagoko pertsonen dagokienez, haien %20 inguruk dituzte ekipamendu horiek.


Elementu horiek laguntza-beharrarekin eta osasun-egoerarekin ere lotuta daude; hain zuzen, osasun-egoerarik txarrean dauden eta eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza behar duten pertsonen artean, ekipamendu horiek dituztenen portzentajea txikiagoa da. Kontuan izan behar da kolektibo horietan adinak zer-nolako eragina duen.

Etxean ekipamenduak izatea

	SAKELAKO TELEFONOA	TELEFONO FINKOA	ORDENAGAILUA/ TABLETA	INTERNETERAKO SARRERA
55 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	85,0	90,9	49,6	50,3
65 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	78,5	92,6	35,1	35,1
Adina				
55-64 urte	95,2	88,4	72,2	74,1
65-79 urte	85,7	92,6	41,4	40,3
80 urte eta gehiago	62,9	92,5	21,6	23,6
Sexua				
Gizonak	88,1	90,1	53,2	53,8
Emakumeak	82,6	91,6	46,7	47,5
Osasun-egoera				
Oso ona + ona	92,0	90,9	59,2	59,0
Hala-holakoa	79,2	91,1	36,3	38,0
Txarra + oso txarra	76,0	87,7	39,1	38,4
Laguntza-beharra				
Laguntza behar du	68,5	92,3	30,0	32,1
Ez du behar	89,2	90,6	54,5	54,9

Grafikoan argi eta garbi ikus daiteke adin txikiagoko ia pertsona guztiak elementu horiek erabiltzen dituztela beren eguneroko bizitzan. Aitzitik, 80 urteko eta gehiagoko pertsonen artean, telefono finkoa da gailurik ohikoena. Gaur egun etxe askotan, sakelako telefonoak telefono finkoa ordeztu du, batik bat belaunaldirik gazteenen artean. Hala ere, telefono finkoa funtsezkoa da adin handiagoko pertsonentzat. Hura erabiltzen ohituta daude, eta ezinbestekoa da telelaguntza-baliabidea erabiltzeko. Hortaz, behar-beharrezkoa da adin aurreratuko pertsonen beren etxean jarrai dezaten.

Ekipamendua etxebizitzan adinaren arabera



5.3.2. Etxebizitzaren eta ingurunearen irisgarritasuna


Aurreago azalduenez, etxebizitza eta haren ingurunea funtsezkoak dira pertsonen zahartzerako, bai eta, horren ondorioz, gizarte-politiken plangintzarako ere.

Euskadin, 55 urte beteak dituzten pertsonen %9,2-15ek adierazten dute irisgarritasun-arazoren bat dutela beren ohiko ingurunean (%11,2-18,8: 65 urte eta gehiago dituztenen artean). Bi portzentajeetatik txikiena etxe barruan mugitzeko oztopo fisikoren bat duten pertsoneri dagokie. Daturik handiena (%15,1), berriz, beren eraikinean sartzeko arazoak dituzten pertsoneri dagokie. Ingurune hurbilean irisgarritasun-arazoak dituztela esaten dutenen portzentajea oso antzekoa da (%14,7).

Adina handitu ahala, arazo horiek areagotu egiten dira. 80 urte beteak dituzten pertsonen %18,0k etxebizitza barruan dituzte arazoak, %27,7k beren eraikinean sartzeko arazoak dituzte, eta %31,6k, berriz, garraio publikoan mugitzeko. Garraio publikoan mugitzeko arazoak oso handiak dira adin aurreratuko pertsonentzat, baina gazteenentzat oharkabeak dira.

Irisgarritasun-arazo horiek areagotu egiten dira adin handiagoko pertsonentzat. Adineko pertsonen beren garaian etxebizitza eskuratu zutenean, garapen sozioekonomiko eta teknologikoko egoera bestelakoa zen. Orain, urteak joan eta urteak etorri, ez dira adineko pertsonen egungo egoerarako egokiak. Kontuan izan behar da adina handitu ahala bi-zi-funtzioak gainbehera etortzen direla. Beraz, etxeak adineko pertsonen beharretara egokitu beharko lirateke (Anme et al. 1994).

Irisgarritasun arazoak adinaren arabera



Etxebizitzan eta inguruan irisgarritasun-indizerik txarrena duten pertsonen profil hau dute: 80 urte beteak dituzten emakumeak, osasun-egoera txarrekoak, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza behar dutenak, eta heziketa-maila txikikoak.


Irisgarritasun-arazoak, aldagai soziodemografikoen arabera

	ETXE BARRUAN	ERAIKINEKO SARBIDEAN	INGURUNE HURBILEAN	GARRAIO PUBLIKOA ERABILTZEAN
55 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	9,2	15,1	14,7	11,8
65 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	11,2	18,8	18,7	16,0
Adina				
55-64 urte	6,1	9,3	8,4	5,3
65-79 urte	8,1	14,7	12,9	8,9
80 urte eta gehiago	18,0	27,7	31,5	31,6
Sexua				
Gizonak	7,1	11,9	11,4	8,9
Emakumeak	10,9	17,6	17,4	14,3
Osasun-egoera				
Oso ona + ona	5,1	9,2	7,9	4,0
Hala-holakoa	6,3	15,5	15,9	12,6
Txarra + oso txarra	26,8	30,7	35,3	33,3
Laguntza-beharra				
Laguntza behar du	26,7	38,4	39,8	41,8
Ez du behar	4,8	9,2	8,4	4,3
Ikasketak				
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	11,9	20,8	18,2	16,5
Lehen mailako ikasketak	9,6	14,6	16,6	13,5
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	6,0	9,8	9,3	5,5

Dena den, ingurune hurbilean irisgarritasun-arazoak izan arren, kontuan izan behar da azken urteetan alderdi horrek oso bilakaera positiboa izan duela EAEn. 1993tik 2014ra bitartean, irisgarritasun onaren pertzepzioa handitu egin da aztertutako esparru guztietan. Esate baterako, 2014an, 65 urtetik gorako biztanleen %16,0k soilik esan zuten garraio publikoa erabiltzean arazoak zituztela; 1993an, berriz, portzentaje hori halako bi zen (%30,6).

Agerikoa denez, azken urteetan aldaketa handiak gertatu dira garraio publikoan, irisgarritasunari dagokionez. Hala ere, etxebizitzetara erreparatuz gero, etxe barruan mugikortasun-arazoak dituztela adierazten dutenek antzeko portzentajeak dituzte Arazo horiek konpontzeko, elementu hauek funtsezkoak dira: etxeko irisgarritasuna hobetzeko eta etxebizitzara egokitzeko programak; bizitza osorako etxebizitzak aintzat hartzen dituzten hirigintza-plangintzak; eta prebentzioa (etxea egokitzeari edo erosteari buruzko erabakiak garaiz hartzea).

65 Urte baino gehiagoko pertsonak irisgarritasun arazoekin, 1993-2014



Etxebizitzak “harreman dinamikoa” izan behar du hartan bizi direnekin; alegia, norberaren edo familiaren bizitza-zikloaren arabera aldatzen diren egoerei erantzun behar die (Valenzuela, 1994 eta Trilla, 2001). Egia esan, hori oso gutxitan egiten da, honako eta hau da alternatiba: erabiltzaileen egoera aldatu ahala etxe egokiagoak bilatzea. Hala ere, hori ere ez da egiten. Ez, behintzat, gure gizartean; izan ere, oso bizileku-mugikortasun txikia dugu, eta adineko pertsonak, are txikiagoa (Puga, 2003). Horrenbestez, etxea, intimitateko eta segurtasuneko txoko hori, espetxe zorrotz bihur daiteke; bizi-esparru murriztua izan daiteke, eta bizitzarako, harremanetarako eta jarduerarako aukerak mugatu.

Beharrezkoa da etxebizitzaren ezaugarri materialek ere biztanleen baldintza funtzioaletara egokitzea (Pérez Ortiz, 2006). Alderdi fisikopertsonalak adierazten du ingurune horretako ezaugarriek zenbateraino errazten edo zailtzen duten adineko pertsonen eguneroko bizitza. Rojo eta Fernández-Mayoralasek (2002) azpimarratzen dute ingurune fisiko horren eta norberaren ahalmen eta gaitasunen arteko loturaren harremanaren garrantzia. Bi termino horien arteko lotura ezegokia bada, egiazko haustura bat eragin dezake adinekoen eta ingurunearen arteko harremanean. Berez, autonomia pertsonala galtzea dakar horrek, baina baita, jakina, jardueren kopurua, edukia eta intentsitatea murriztea ere (Pérez Ortiz, 2006)

Pertsonak ingurune eraikian garatzen eta eraikitzen dute beren bizitza, eta etxebizitza ingurune horren zati da. Ingurune horrek adineko pertsonen independentzia erraztu edo eragotz dezake. Izan ere, baldintza fisiko eskasak dituen ingurune bat (etxebizitza edo eraikin bat) arrisku-faktore handia izan daiteke zahartzaroan; esaterako, erorikoak eragin ditzake. Kontuan izan behar da erorikoek eragin hondatzailea izan dezaketela erortzen diren pertsonen bizi-kalitatean, baina baita haien gizarte-sarerik hurbilena osatzen duten pertsonen (senideak eta lagunak) bizi-kalitatean ere (McInness eta Askie, 2004; Yardley eta cols, 2006; Nuevo y cols, 2006; Pérez Ortiz, 2006). Horrelako gertakarien ondorioz, etxeak leku arriskutsuak izan daitezke, eta beldurrak sortu, osasuna okerragotu eta isolamendua eragin.

Zahartzaroan, kontu hori bereziki interesgarria da; alde batetik, muga fisikoak sortzeko arrisku handia dagoelako, eta beste batetik, adineko pertsonak aspaldi erosi zutelako etxebizitza, beren familiak handitzen ari zirenean, bizi-zikloko beste une batean zeudenean eta oso bestelako beharrak zituztenean.

Hortaz, inkestatutako pertsonen %42,1ek adierazten dute gerta daitezkeen mendekotasun-egoeretara egokituta dutela etxebizitza (65 urte beteak dituzten pertsonen %43,9k). Besteak beste, azpimarra daiteke etxebizitza egokituetan bizi diren biztanleen portzentajea adinarekin batera handitzen dela; hain zuzen, 80 urteko eta gehiagoko pertsonen artean, portzentaje hori %46,9koa da. Bestalde, osasun-egoerarik txarrean dauden eta eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza behar duten pertsonen artean, etxebizitza egokituak dituztenen portzentajea handiagoa da beste adin-tarteetan baino. Alegia, beharrik handiena duten pertsonak neurri handiago batean dute etxebizitza egokituak. Dena den,

nabarmendu behar da eguneroko bizitzako jarduera bat edo gehiago egiteko laguntza behar duten pertsonen %48,9k ez dutela etxebizitza egokitua.

Etxebizitza egokitu batean bizi diren eta etxebizitza egokitzeko informazioa non eskatu dakiten pertsonak

	ETXE EGOKITUA	BADAKI INFORMAZIOA NON ESKATU
55 urte eta gehiago	42,1	37,7
65 urte eta gehiago	43,9	34,0
Sexua		
Gizona	44,8	39,7
Emakumea	40,0	36,1
Adina		
55-64	39,3	43,5
65-79	42,6	37,9
80 urte eta gehiago	46,9	25,5
Osasun-egoera		
Oso ona + ona	40,4	41,0
Hala-holakoa	41,6	31,6
Oso txarra + txarra	47,5	35,8
Laguntza-beharra		
Behar du	48,2	32,6
Ez du behar	40,6	39,0
Ikasketak		
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	46,5	35,8
Lehen mailako ikasketak	36,3	32,6
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	43,5	44,5

Orobat, aipatu behar da zenbat pertsonak dakiten etxebizitza egokitzeko informazioa non eskatu, behar izanez gero. 65 urte eta gehiago dituzten 10 pertsonatik hiruk baino ez dakite nola eta non eskatu informazio hori. Adina handitu ahala, datu hori gutxitu egiten da; hain zuzen, 55 eta 64 urte bitarteko pertsonen kasuan, %45,5ekoa da, eta 80 urte beteak dituzten pertsonen kasuan, %25,5ekoa. Halaber, azpimarratu behar da behar gehien dituzten kolektiboek, osasun-egoerarik txarrean daudenek eta heziketa-mailarik txikiena dutenek ez dakitela, oro har.


Garaiz jokatu beharra dago (aholkuak eta informazioa eskatzea, eta erabakiak hartzea), etxea espetxe ez bihurtzeko.

5.3.3 Baliabideen eskuragarritasuna

Baliabide eta zerbitzuak funtsezkoak dira zahartzen ari diren pertsonen eguneroko bizitzan; hala ere, are garrantzitsua goa da baliabide eta zerbitzu horiek eskura izatea. Kontzeptu horrek adierazten du pertsona guztiek (edozein gaitasun tekniko, kognitibo edo fisiko dituztela ere) zenbateraino erabil dezaketen objektu bat, sar daitezkeen leku batean edo erabil dezaketen zerbitzu bat. Hori guztia ezinbestekoa da, pertsona guztiek parte hartzeko beharrezkoa baita, izan ditzaizkien muga funtzional guztiak alde batera utzita.

Inkestatutako pertsona guztien %7,8k adierazten dute bankura joateko zailtasunak dituztela; %11,3k garraio publikoak erabiltzeko arazoak dituztela; %8,4k kultura-jardueretara joateko (zinema, antzokia, etab.); %7,9k osasun-zentrora joateko; %5,8k parkeetara eta berdeguneetara iristeko; eta %7,2k supermerkatuan edo janari-dendan eguneroko erosketak egiteko.

Zerbitzuetara irisgarritasun arazoak adinaren arabera



Adina, baliabideen eskuragarritasunari zuzenean eragiten duen faktore bat da. Zaharrenek zailtasun gehien izaten dituzte baliabide eta zerbitzu horiek erabiltzeko. Portzentajerik aipagarrienak garraio publikoaren erabilerari eta osasun-zentrotan irisgarritasunari dagozkie; hain zuzen, 80 urteko eta gehiagoko pertsonen %20k baino gehiagok zailtasunak dituztela adierazten dute.

Beste aldagai batzuek ere zerbitzu horien erabileran eragina dute: sexuak, osasun-egoerak, laguntza-beharrak eta heziketa-mailak. Pertsonen eguneroko bizitzarako funtsezkoak diren zerbitzu eta baliabide horiek erabiltzeko zailtasun gehien dituzten pertsonen profila hau da: emakumea, osasun-egoera txarrekoa, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza behar duena eta heziketa-maila eskasekoa.

Portzentajerik handienak garraio publikoa erabiltzeko eta osasun-zentrora joateko zailtasunekin daude lotuta beti; izan ere, elementu horiek behar-beharrezkoak dira komunitatean bizitza normalizatua izateko.

Ingurunearen ikuspegi integratzailea egiteko, beharrezkoa da adineko pertsonen zer behar dituzten, non dauden eta zer lekualdaketa-ibilbide dituzten jakitea, erabiltzen dituzten zerbitzuak eskura izan ditzaten (San Román, 1992).

Zerbitzuak eta baliabidek erabiltzeko zailtasunak aldagai sozioekonomikoen arabera

	BANKUA	GARRAIO PUBLIKOA	ZINEMA, ANTZOKIA EDO KULTURA-ZENTROA	OSASUN-ZENTROA	PARKEA EDO BERDE GUNEA	SUPERMERKATUA EDO JANARI-DENDA	KOP.
55 urte eta gehiago	7,8	11,3	8,4	7,9	5,8	7,2	2496
65 urte eta gehiago	10,3	15,5	11,4	11,0	6,1	9,4	1522
Sexua							
Gizona	5,5	8,5	6,6	6,1	4,9	4,9	1115
Emakumea	9,7	13,5	9,8	9,3	6,6	9,1	1381
Adina							
55-64	4,0	4,6	3,7	3,1	5,3	3,9	974
65-79	6,9	9,7	8,7	6,1	5,5	7,3	1044
80 urte eta gehiago	17,7	28,2	17,3	21,6	7,5	13,8	478
Osasun-egoera							
Oso ona + ona	2,3	3,6	2,0	2,1	4,0	2,9	1246
Hala-holakoa	10,2	14,0	12,2	9,1	7,4	9,1	722
Oso txarra + txarra	23,2	32,6	23,5	23,0	11,1	22,1	190
Laguntza-beharra							
Behar du	24,6	37,7	26,2	27,7	9,4	20,9	503
Ez du behar	3,6	4,6	3,9	2,9	4,9	3,8	1993
Ikasketak							
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	10,7	17,1	13,2	12,0	5,6	11,3	848
Lehen mailako ikasketak	8,5	11,3	8,3	7,9	7,5	7,6	799
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	4,2	5,2	3,6	3,7	4,5	2,8	844

5.3.4 Lagunkoitasuna

Eskuarki, hiri eta herrien garapena eta haietako aldaketak parametro sozioekonomikoetan oinarritu dira, baita automobilaren nagusitasunean, eta lan-merkatuaren –hortaz, biztanleria aktiboaren– eskaeretan; hau da, askotariko biztanleriaren benetako beharrak ez dira aintzat hartu (Valle, 2009).

Nazioarteko plan gerontologikoetan, oinarritzko neurrietako bat adineko pertsonekin eta dibertsitate funtzionala duten pertsonekin lagunkoiak diren inguruneak sustatzea da.

Bizitza aktiboa eta autonomoa luzatzea hiri-diseinua, segurtasuna eta etxe-inguruak lagunkoiak izatearen menpe dago, hein handian. Inguruneetan esku hartzea gaur egungo sektore estrategikoetako bat da, osasunaren sektorearekin batera (Barrio et al, 2014).


Adineko biztanle gehienek lagunkoitzat hartzen dituzte Euskadi, beren herria eta beren auzoa, pertsonen beharretara egokituta baitaude eta bizikidetzaz erraza baita. Pertzepzio hori orokorra da, baina zenbait desadostasun daude osasun-egoera txarrean dauden pertsonen eta eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza behar dutenen aldetik.

Euskadi, beren herria eta beren auzoa lagunkoitzat hartzen duten pertsonak

	EUSKADI	HERRIA	HERRIA
55 urte eta gehiago	95,3	96,4	95,3
65 urte eta gehiago	95,0	96,5	95,6
Sexua			
Gizona	95,6	96,3	95,0
Emakumea	95,1	96,5	95,4
Adina			
55-64	95,8	96,2	94,7
65-79	95,2	96,0	95,6
80 urte eta gehiago	94,4	98,2	95,7
Osasun-egoera			
Oso ona + ona	96,6	96,9	95,8
Hala-holakoa	94,0	95,9	95,6
Oso txarra + txarra	91,7	94,9	90,7
Laguntza-beharra			
Behar du	91,2	94,7	94,0
Ez du behar	96,1	96,7	95,5
Ikasketak			
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	10,7	17,1	13,2
Lehen mailako ikasketak	8,5	11,3	8,3
Bigarren mailakoak eta goi mailakoak	4,2	5,2	3,6

Herriak lagunkoiki izateko, honako alderdi hauek hobetu daitezke, besteak beste: etxebizitza, errespetua, gizarteratzea, eta gizarte- eta osasun-zerbitzuak 80 urtetik beherako pertsonentzat. 80 urte beteak dituzten pertsonen aburuz, gizar- eta osasun-zerbitzuak hobetzea garrantzitsuagoa da errespetua eta gizarteratzea baino; eta garraio publikoa, aire zabaleko esparruak eta eraikin publikoak baino.

Lagunkotasunaren esparruan hobetu beharreko alderdiak adinaren arabera



Inguruneak adineko pertsonentzat lagunkoiak izateko mugimendu hori Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) ekimenez sortu zen 2005ean, Rio de Janeiroko Gerontologiari buruzko Munduko XVIII. Batzarrean. Mugimenduaren izena Age-Friendly Cities (Hiri lagunkoiak adinekoekin) da. Ekimenaren ideologoa Alexandre Kalache doktorea izan zen, une hartan OMEko Ageing and Life Course (Zahartzea bizitza aurrera doan heinean) Programako zuzendaria zena. Hark jarri zuen programa martxan, munduko gaur egungo biztanleriaren bi joera bereizgarri hauek oinarri hartuta: zahartze demografikoa eta urbanizazio-prozesua. Gaur egun, gizarteak gero eta zaharragoak dira, eta inguruneak gero eta urbanizatuago daude; hiri handi gehiago daude. Ekimena bi joera horiei erantzuteko sortu zen, adin handiagoko pertsonen potentziala ahalik gehien erabiltzeko xede nagusiarekin. Herritarren partaidetzako prozesu handi bat sustatu nahi da; prozesu horretako protagonistak adineko pertsonak izango lirateke, ongizate-sortzaile gisa.

Ekimena zahartze aktiboaren paradigmaren azpian dagoen teoriarantz oinarritzen da; paradigma hori 2002an zehaztu zen (Zahartzeari buruzko Munduko II. Biltzarra), "Zahartze aktiboa, esparru politiko bat" dokumentuan. "Zahartze aktiboa osasuna, parte-hartzea eta segurtasuna hobetzeko prozesua da, eta pertsonen bizi-kalitatea areagotzeko helburua du, zahartzen diren heinean" (Active Ageing: A Policy Framework. Geneva, OME, 2002).

5.4 Osasuna, mendekotasuna eta gizarte-baliabideak


5.4.1 Osasun-egoera subjektiboa

Osasun subjektiboa norberaren osasun-egoeraren pertzepzioa da. Neurri erraza da, osasun objektiborik harago joaten dena. Izan ere, osasun objektiboa diagnostikatutako gaixotasunen kopuruaren eta beste adierazle biomediko batzuen bidez neurtzen da, eta osasun subjektiboak, egoera fisikoaz gain, beste faktore batzuk ere hartzen ditu kontuan, hala nola ekonomikoak eta sozialak (Abellán, in Sancho Koord., 2008). Administrazio publikoek neurri objektiboak osatzeko erabiltzen dute osasun subjektiboa, etorkizuneko mendekotasun- eta behar-egoeren berri eman baitezake.

Euskadin, 55 urteko eta gehiagoko biztanleen erdiek baino gehiagok (%57,7) ontzat edo oso ontzat sailkatzen dute beren osasuna; herenek (%33,5) hala-holaketzat hartzen dute, eta %10ek baino gutxiagok, berriz, txartzat edo oso txartzat.


Osasun-adierazle objektiboaren kasuan bezala, alderantzizko lotura dago osasun subjektiboaren eta adinaren artean. Pertsonak zahartzen diren heinean, gero eta negatiboagozat hartzen dute beren osasun-egoera. 55 eta 64 urte bitarteko pertsonen artean, osasuna hala-holaketzat, txartzat edo oso txartzat hartzen dutenen portzentajea %30etik beherakoa da. 80 urte eta gehiago dituztenen artean, berriz, portzentaje hori (%31) beren osasuna ontzat edo oso ontzat hartzen dutenei dagokie. Egia da ondorioak ez direla berdinak "hala-holakoa" eta "txarra edo oso txarra" kategorietan; izan ere, adina handitu ahala, pertsona gehiagok adierazten dute hala-holako osasuna dutela, eta pertsona gutxiagok, txarra edo oso txarra dutela.

Osasun-egoera subjektiboa adinaren arabera




Egoera fisikoaren kasuan bezala, osasun-egoeran ere genero-aldeak daude. Emakumeek gizonen baino bizi-itzaropen handiagoa dutenez, desgaitasun-indize handiagoak dituzte. Kasu honetan, portzentajezko zazpi puntuko aldea dago osasun ona edo oso ona dutela uste duten gizonen eta emakumeen artean; hain zuzen, emakume gutxiagok uste dute hori. Osasun txarra edo oso txarra dutela usten dutenei dagokienez, antzeko aldea dago gizonen eta emakumeen artean, baina, kasu honetan, emakume gehiagok adierazten dute hori (portzentajezko lau puntu gehiago).

Osasun-egoera subjektiboa sexuaren arabera




Adinak eta sexuak baterako eragina izan dezakete osasun subjektiboan; izan ere, gizonen osasunak eta emakumeenak patroi desberdinak ditu adinaren arabera. Hori ez da gertatzen beren osasuna ontzat edo oso ontzat hartzen dutenen artean, sexuaren eta adinaren arabera oso antzeko puntuazioak lortzen baitira. Aitzitik, osasun txarra edo oso txarra dutela usten dutenei erreparatzen badiegu, aldeak ikusiko ditugu. Esate baterako, 55 eta 64 urte bitarteko gizonen artean, beren osasun-egoera txartzat edo oso txartzat hartzen dutenen portzentajea handiagoa da adin-tarte bereko emakumeena baino (hurrenez hurren, %36 eta %26). Adin handiagoko pertsonen kasuan, egoera hori goitik behera aldatzen da; seguruenik, 65 eta 79 urte bitarteko taldean gizonen kopurua txikitzen delako, osasun txarraren ondorioz. 80 urteko eta gehiagoko emakumeen %28,2k uste dute osasun-egoera txarra dutela, eta gizonen %22,4k.

Osasun-egoera subjektiboa (Oso ona+Ona) sexuaren eta adinaren arabera



Osasun-egoera subjektiboa (Oso txarra+Txarra) sexuaren eta adinaren arabera



Etxe-motari dagokionez, ezkontuta dauden pertsonen dute osasun-egoera hobea (%63,3k ona edo oso ona), alargunekin alderatuta (%48,1). Hala-holakoa eta txarra edo oso txarra kategorietan, alargunen portzentajeak handiagoak dira besteenak baino.

Seme-alabaren etxebizitzan belaunaldi anitzeko etxe batean bizi direnen artean, osasun-egoera txarra edo oso txarra dutela uste dutenen portzentajeak oso handiak dira (%30,4). Dena den, datu hori zuhurtasun handiz interpretatu behar da, lagineko oso pertsona gutxi direlako (19), eta oso litekeena da bizikidetzeta-mota hori mendekotasunarekin edo egoera funtzional eskasarekin lotuta egotea.

Heziketa-mailak ere eragina du osasun subjektiboan: zenbat eta handiagoa izan heziketa-maila, orduan eta pertsona gehiagok adierazten dute osasun ona dutela, eta alderantziz.

Aurresan daitekeenez, laguntza-beharra ere osasun subjektiboarekin lotuta dago. Laguntza behar dutenen ia %90ek hala-holaketzat, txartzat edo oso txartzat hartzen dute beren osasuna.

Osasun-egoera subjektiboa

	OSO ONA + ONA	HALA-HOLAKOA	OSO TXARRA + TXARRA
55 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	57,7	33,5	8,8
65 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	49,2	40,3	10,5
Adina			
55-64	70,2	23,5	6,4
65-79	55,7	35,4	8,9
80 urte eta gehiago	31,0	54,1	15,0
Sexua			
Gizona	61,9	32,0	6,2
Emakumea	54,5	34,6	10,9
Etxe-mota			
Pertsona batekoa	48,1	39,9	12,0
Bikotea	63,3	30,6	6,1
Belaunaldi anitzekoa adinekoen etxebizitzan	58,5	32,4	9,1
Belaunaldi anitzekoa seme-alaba baten etxebizitzan	56,9	12,8	30,4
Beste motaren bat	53,6	37,1	9,3
Ikasketak			
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	42,2	44,3	13,5
Lehen mailako ikasketak	56,1	35,9	8,0
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	73,4	21,3	5,3
Laguntza-beharra			
Behar du	11,8	53,7	34,4
Ez du behar	66,1	29,8	4,1

5.4.2 Mendekotasuna eta desgaitasuna

Euskadiko adinekoen mendekotasun- eta desgaitasun-maila kalkulatzeko, eguneroko bizitzako zenbait jarduera egiteko behar duten laguntza neurtzen duen eskala bat erabili da. Eskala horretan, hamalau item daude, honela sailkatuta: eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak (jatea, garbitzea, janzteia, etab.) eta eguneroko bizitzako jarduerak instrumentalak (erosketak egitea, telefonoa erabiltzea, zer botika hartu gogoratzea, etab.).

Pertsona batek ezin badu jarduera bat egin, edo egiteko laguntza behar badu, pertsona horrek laguntza behar duela uste da. Halaber, pertsonak jarduera bere kabuz egin badezake, edo ez badu inoiz egin, laguntzarik behar ez duela ondo-ondotzatzen da. Kontuan hartu behar da hainbat pertsonak ez dituztela inoiz zenbait jarduera egin, haietako batzuk oso lotuta baitaude genero-rol tradizionalekin. Gerta daiteke pertsona batek jarduera jakin batzuk egiteko trebezia ez izatea, baina ez bere kabuz txarto moldatzen denik (esate baterako, gizon askok ez dakite janaria prestatzen, bizitza osoan ez dutelako ikasi).


5.4.2.1 Laguntza behar duten pertsonen profila

Lagineko pertsona guztien %20k soilik behar dute laguntzaren bat. 65 urteko eta gehiagoko pertsonak soilik kontuan hartuz gero, portzentaje hori %29koa da. Jakina denez, jarduera instrumentaletan laguntza gehiago behar da eguneroko bizitzako oinarritzko jardueretan baino, egoera guztietan.

Laguntza behar duen pertsonaren profila

	LAGUNTZA BEHAR DU		
	EBOJ	EBJI	EBJ, GUZTIRA
55 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	9,2	19,5	20,1
65 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	13,5	28,1	29,1
Adina			
55-64	2,3	6,0	6,1
65-79	5,8	15,4	15,7
80 urte eta gehiago	30,4	56,1	58,4
Sexua			
Gizona	6,6	13,3	13,9
Emakumea	11,3	24,5	25,2
Etxe-mota			
Pertsona batekoa	9,2	26,4	27,1
Bikotea	5,2	12,6	12,8
Belaunaldi anitzekoa adinekoen etxebizitzan	8,1	17,1	17,7
Belaunaldi anitzekoa seme-alaba baten etxebizitzan	34,0	52,8	55,6
Beste motaren bat	26,9	38,0	39,9
Ikasketak			
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	16,5	31,7	32,5
Lehen mailako ikasketak	6,4	17,9	18,2
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	4,3	8,7	9,5
Osasun-egoera			
Oso ona + Ona	0,2	3,0	3,2
Hala-holakoak	6,3	24,2	24,7
Oso txarra + Txarra	32,8	57,7	60,1

Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza beharra



Beste gauza nabarmen bat: zaharrenak dira laguntza gehien behar dutenak. 80 urte beteak dituztenen artean, erdiek baino gehiagok (%56,1) laguntza behar dute jarduera instrumentalak egiteko, eta %30,4k, oinarrizko jarduerak egiteko. Datu horietatik ondoriozta daitekeenez, 80 urteko eta gehiagoko pertsonen %20 inguruk baino ez dutela laguntza jarduera instrumentalak egiteko.


Datu horiek pertsona gazteagoenekin alderatzen badugu, hau ikusiko dugu: 65 eta 79 urte bitarteko pertsonen artean laguntza behar duten kopurua bi aldiz handiagoa da 55 eta 64 urte bitartekoen kopurua baino.

Jarduera instrumentalak egiteko, pertsona bakarreko etxeetan bizi diren pertsonak laguntza gehiago behar dute gainerakoek baino (seme-alabaren baten etxean bizi direnak alde batera utzita); ulergarria da, pertsona horietako gehienak alargunak edo pertsona zaharragoak direlako.


Heziketa-mailari erreparatuta, desberdintasun handiak ikus daitezke. Heziketa-maila handiagoa lortu dutenek nabarmen laguntza gutxiago behar dute, bai jarduera instrumentalak egiteko, bai oinarrizkoak egiteko. Ildo horretan, gaizkien ateratzen dira heziketa-mailarik txikiena dutenak; hain zuzen, haien %33k laguntzaren bat behar dute eguneroko bitiztan moldatzeko.

Osasun-egoera eta laguntza-beharra oso lotuta daude; beraz, ez da batere harrigarria osasun-egoerarik txarrean dutenek laguntza gehien behar izatea. Pertsona horien %60 inguruk mendekotasun-motaren bat dute.

Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza-beharra adinaren arabera



Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza-beharra sexuaren arabera




Bestalde, emakumeen artean mendeko pertsonen portzentajea handiagoa da gizonen artean baino. Berriz ere, argi eta garbi geratzen da zahartzean generoaren eta osasun- eta funtzionamendu-egoera txarraren arteko lotura dagoela.


55 urteko eta gehiagoko ia pertsona guztiek inolako laguntzarik gabe egin ditzakete eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak. Jarduera guztietatik, hauek dira jarduerarik zailenak, zailtasun-mailaren arabera: bainatzea edo dutxatzea, eta janzea edo erantztea.

Jarduera instrumentaletatik, hauek dira laguntza gehien behar dutenak: erosketak egitea, etxeko lanak egitea eta garraio publikoa erabiltzea. Hala ere, jarduera horiek beren kabuz egin ditzaketen pertsonen portzentajeak oso handiak dira, %84-92koak, jardueraren arabera.

Laguntzaren beharra duen jarduerak edo bere kasa egin ezin dituenak




Eguneroko bizitarako gaitasunak



	Komuna erabiltzea	Oheratzea eta jaikitzea	Jatea	Garbitzea	Bainua edo dutxa	Desplazatzea	Janztea / eranztea
■ Laguntzarik gabe egin dezaket	96,06536	95,41652	97,30682	95,20335	92,44123	95,14643	93,39741
■ Laguntzarekin egin dezaket	2,885046	3,565096	2,039582	3,432035	5,768617	3,872481	5,346504
■ Ezin dezaket inolaz ere egin	0,9148468	0,8836407	0,5188519	1,229872	1,655406	0,8463409	1,121338
■ Ez dut inoiz egin	0,134744	0,134744	0,134744	0,134744	0,134744	0,134744	0,134744

Eguneroko bizitarako gaitasun instrumentalak




	Garraio publikoa erabiltzea	Norbere dirua administratzea	Etxeko lanak egitea	Sendagaiak hartzea	Telefonoa erabiltzea	Erosketak egitea	Sukaldatzea
■ Laguntzarik gabe egin dezaket	86,45187	91,03081	82,75609	91,50289	95,06883	83,48115	89,49653
■ Laguntzarekin egin dezaket	6,432729	4,518412	7,642405	4,946823	2,836792	8,156393	3,53675
■ Ezin dezaket inolaz ere egin	5,351292	3,712412	6,70275	1,716131	1,81398	6,83999	4,209822
■ Ez dut inoiz ere egin	1,343983	0,618083	2,852461	1,75894	0,2437228	1,522469	2,710606

5.4.3. Gizarte-baliabideak

Laguntza behar izatekotan, adinekoek oso garbi daukate non bizi nahi duten. Euskadiko adineko pertsonen %83,4k beren etxebizitzan bizi nahi dute, etxetik kanpoko beste aukera batzuen aurretik. Zaintza-arloko egungo ikuspegiak horrelako datuetan oinarritzen dira. Ikuspegi horietan, adinekoek beren etxean jarraitzea lehenesten da ororen gaitetik. Horretarako, beharrezko baliabideak ezartzen dira pertsonak ahalik eta denbora gehien jarrai dezaten beren etxean, eta hori ezin bada, beste ostatu-aukera batzuk bilatzen dira, etxebizitza baten antz handia izan behar dutela kontuan hartuta.

Etxebizitza lehentasuna, laguntza behar izanez gero



Adina handitu ahala, etxebizitzan jarraitzeko lehentasuna ere handitzen da; 80 urte eta gehiago dituzten pertsonen %89,3k hori nahi dute. Gauza bera gertatzen da osasun-egoerari eta laguntza-beharrari erreparatuz gero: beren osasun-egoera txartzat edo oso txartzat hartzen duten eta laguntza behar duten pertsonen %89k beren etxebizitzan jarraitu nahiago dute.

Laguntzaren bat behar izateagatik etxetik joan nahiago dutenak honako hauek dira: zaharren egoitza batera joango liratekeenak (%78,1), adinekoentzat egokitutako etxebizitza batera joan nahiko luketenak (%15,5) eta seme-alabaren baten etxera joatea erabakiko luketenak (%4,3).

Adinekoentzat egokitutako etxebizitza batera joango liratekeen kasuan, aipatu behar da portzentajerik handienak talde hauei dagozkiela: gazteenen taldeari (55-64 urtekoak), emakumeei, bikotekidearekin bizi direnei eta lehen mailako edo goi-mailako ikasketak dituztenei. Aitzitik, zaharrenek –80 urte eta gehiago dutenek– eta lehen mailatik beherako ikasketak dituztenek seme-alabaren baten etxera joan nahiago dute, neurri handiago batean.

Bizitzeko lehenetsitako lekua, laguntza behar izatekotan

	BEREN ETXEBIZITZAN	ETXETIK KANPO*			KOP.
		SEME-ALABAREN BATEN ETXEAN	ZAHARREN EGOITZA BATEAN	ADINEKO PERTSONENTZAT EGOKITUTAKO ETXEBIZITZA BATEAN	
55 urtekoak eta gehiagoak, guztira	83,4	4,3	78,1	15,5	1802
65 urtekoak eta gehiagoak, guztira	85,1	7,5	81,9	8,7	1095
Adina					
55-64	81,0	1,1	74,1	22,7	708
65-79	83,6	5,2	84,7	7,6	795
80 urte eta gehiago	89,3	15,9	71,4	12,7	299
Sexua					
Gizona	81,7	3,5	81,4	11,7	776
Emakumea	84,8	5,0	75,5	18,5	1026
Etxe-mota					
Pertsona batekoa	81,6	3,5	77,9	15,1	393
Bikotea	83,9	1,4	76,9	20,3	706
Belaunaldi anitzekoa adinekoren etxebizitza	84,7	2,1	87,3	10,6	575
Belaunaldi anitzekoa seme- alaba baten etxebizitza	72,9	80,3	19,7	0,0	16
Beste motaren bat	82,1	0,0	75,7	16,0	113
Ikasketak					
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	85,3	10,7	78,0	11,2	588
Lehen mailako ikasketak	84,7	1,8	76,3	20,0	598
Bigarren mailakoak eta goi- mailakoak	80,7	1,3	79,4	15,6	613
Osasun-egoera					
Oso ona + Ona	82,4	5,2	75,0	17,4	1027
Hala-holakoa	83,7	3,7	80,4	14,1	605
Oso txarra + Txarra	89,0	0,0	93,8	6,2	169
Laguntza-beharra					
Behar du	89,3	0,0	84,4	15,6	298
Ez du behar	82,4	4,9	77,2	15,5	1504


* Portzentajeak kalkulatzeko, laguntza behar izatekotan beren etxetik kanpo bizi nahiago duten pertsonak hartu dira kontuan

Laguntza behar izanda ere beren etxean geratu nahi dutenei zer prestazio-mota jaso nahiko luketen galdetu zaie. Pertsona horien erdiei baino pixka bat gehiagori (%56,8) senideen laguntza jasotzea gustatuko litzaieke; %40 ingururi gizarte-zerbitzu publikoek laguntza hori ematea gustatuko litzaieke; eta %20 inguruk laguntza pribatua jaso nahiko

lukete. Kontuan izan behar da galderaren formatua dela medio aukera bat baino gehiago adieraz daitezkeela; alegia, pertsona batek senideen laguntza eta gizarte-zerbitzu publikoak aukera ditzake, esaterako.

Pertsona gehienek aukera beren etxebizitzan jarraitzea eta senideen laguntza jasotzea izan da; ondoren, beren etxebizitzan jarraitzea zenbait laguntzaren konbinazioarekin (senideena, gizarte-zerbitzuena, etab.). Pertsonak gutxien aukeratutako aukera etxetik kanpora (seme-alaba baten etxera edo adinekoentzat egokitutako etxebizitza batera) joatea izan da.

Lehentasunak laguntza behar izanez gero



Etxebizitzan jarraitzeko laguntzaren edo prestazioaren lehentasuna

	ETXEBIZITZAN JARRAITZEKO LAGUNTZA-LEHENTASUNA*				
	SENIDEEN LAGUNTZA	GIZARTE-ZERBITZU PUBLIKOEN LAGUNTZA	KONTRATATUTAKO LAGUNTZA PRIBATUA	ED/EE	KOP.
55 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	56,8	42,2	19,2	8,4	1802
65 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	56,0	41,5	21,5	9,2	1095
Adina					
55-64	58,1	43,4	15,6	7,1	708
65-79	56,5	41,8	22,5	7,8	795
80 urte eta gehiago	54,7	40,7	18,8	12,8	299
Sexua					
Gizona	61,2	40,2	15,5	7,7	776
Emakumea	53,5	43,7	21,9	8,8	1026
Etxe-mota					
Pertsona batekoa	49,0	46,3	23,7	8,9	393
Bikotea	56,1	42,5	20,3	8,5	706
Belaunaldi anitzekoa adinekoen etxebizitzan	62,2	38,3	15,5	8,0	575
Belaunaldi anitzekoa seme-alaba baten etxebizitzan	77,1	20,2	5,8	11,3	16
Beste motaren bat	58,8	49,2	16,9	7,1	113
Ikasketak					
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	65,1	43,5	17,4	6,7	588
Lehen mailako ikasketak	54,8	41,6	16,0	10,6	598
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	50,8	41,8	24,0	7,6	613
Osasun-egoera					
Oso ona + Ona	58,5	40,2	21,1	6,9	1027
Hala-holakoak	56,0	42,4	17,2	10,4	605
Oso txarra + Txarra	50,5	54,1	13,8	10,0	169
Laguntza-beharra					
Behar du	56,2	40,9	19,4	10,8	298
Ez du behar	57,0	42,5	19,1	7,9	1504

*Oinarria: Laguntza behar izatekotan beren etxean bizi nahiago duten pertsonak.

5.5 Familia-elkarrekotasuna

Senideek ematen dituzten zaintzak eta laguntza belaunaldien arteko elkartasunaren adibiderik onena dira, eta familia bertikaltzat hartzen denaren adierazpenik garbiena. Elkartasun horren zatirik handiena belaunaldi batetik bestera doa: seme-alabengandik gurasoengana edo gurasoengandik seme-alaba edo bilobengana.

Familia-elkartasunak –egiturazkoak (elkarrekin bizitzea, hurbil bizitzea) eta asoziatiboak (harremanak)– berrikusiz gero, lotura handiak dituen familiaren ereduia nolakoa den jakin daiteke. Eredu horretan, familiako kideen arteko elkarrekikotasuna ohikoa izango da, egunerokoa.

5.5.1 Emandako laguntza

Oraindik ere, adinekoen erreferentziatzako unitatea da familia, bai senideen zaintzak jasotzeko, bai haiekin elkartasunez jokatzeko. Askotan, adineko pertsonak zerbitzuen (besteak beste, osasun- eta gizarte-zerbitzuak) kontsumitzaile hutsak baino ez direla uste da, eta alde batera uzten da familiako beste kideei ematen dizkieten laguntza eta zaintzak. Adineko pertsonak gizarte-zerbitzu garrantzitsuak ematen dituzte: seme-alabak lan-merkatuan sartzen laguntzea; seme-alabak zaintzea, gizarte honetan haurtzaindegietan plaza gutxi baitaude edo haurtzaindegiak oso garestiak baitira; eta bikote-kideen edo gurasoen mendekotasunaz arduratzen dira.

5.5.1.1 Zaintza

Inkestan, adineko pertsonak familia-ingurunean ematen duten zaintza jaso da; hain zuzen, seme-alaben, biloben eta adin handiagoko pertsonen edo desgaitasunen bat duten pertsonen zaintza.

5.5.1.1.1. Seme-alabak zaintzea


Seme-alaben zaintzari dagokionez, beren etxean seme-alabak dituzten adineko pertsonak seme-alabak egunero zaintzen dituztela adierazi da. Seme-alaba horiek egunero zaintzaren bat jasotzen dutela hartu da aintzat. Zaintza hori hazkuntzaren desberdina da, baina, hala ere, laguntza handia da seme-alabentzat, eta zaintza hori ematen duten pertsonak horretan denbora eman behar dute. Zaintza-mota horrek ez du zerikusi handirik laguntza pertsonaleko lanekin. Etxeko lanekin edo izapide eta gestioekin lotuta egon daitezke (janaria prestatzea, arropa garbitzea, osasun- edo ekonomia-esparruko gestioak egiten laguntzea, etab.). Gurasoak eta seme-alabak elkarrekin bizi direnean, zaintza- eta laguntza-transferentziak ohikoak dira.

Inkestan lortutako datuen arabera, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen %31,1ek egunero edo ia egunero laguntzen diete seme-alabei. Datuek agerian uzten dute genero eta adin aldeak daudela; alde batetik, zaintza-lan gehienak emakumeek egiten dituzte, eta beste batetik, pertsonarik gazteenek proportzio handiago batean egiten dituzte lan horiek.

Seme-alaben zaintza aldagai soziodemografikoen arabera

	EGUNERO EDO IA EGUNERO	ASTEAN ZENBAIT EGUNETAN	ASTEAN BEHIN EDO BITAN	GUTXIAGOTAN	EZ DU SEME-ALABARIK	INOIZ EZ
55 urte eta gehiago	31,1	0,3	0,1	0,8	12,9	54,4
65 urte eta gehiago	24,0	0,3	0,1	0,5	10,1	64,8
Sexua						
Gizona	29,6	0,4	0,1	0,9	14,5	54,3
Emakumea	32,3	0,4	0,2	0,7	11,6	54,4
Adina						
55-64	42,2	0,5	0,2	1,2	17,4	38,1
65-79	23,2	0,4		0,7	9,8	65,7
80 urte eta gehiago	25,7	0,0	0,4	0,0	10,9	62,6
Osasun-egoera						
Oso ona + Ona	29,1	0,3	0,3	1,0	15,2	53,7
Hala-holakoa	28,7	0,4	0,0	0,4	13,5	56,8
Oso txarra + Txarra	32,6	0,5			10,0	56,8
Laguntza-beharra						
Behar du	31,5	0,4	0,2	1,0	13,9	52,7
Ez du behar	29,4	0,0	0,0	0,0	8,9	61,2

Seme-alaben zaintza adinaren arabera



Kasu horietan guztietan, seme-alabak dituztenak eta seme-alabarik ez dutenak hartzen dira kontuan; horrenbestez, seme-alabak zaintzen edo seme-alabei laguntzen dieten pertsonen guztizko kopurua lor daiteke. Seme-alabak dituzten pertsonen datuak soilik kontuan hartuz gero, emaitza handiagoa izango litzateke. Seme-alabak dituzten pertsonen %37,2k zaintza- eta laguntza-lanak egiten dituzte haiei laguntzeko.

5.5.1.1.2 Bilobak zaintzea

Adineko pertsonen artean, familia-elkartasunaren praktika ohikoenetako bat bilobak zaintzea da. Adineko pertsona askok egiten dute laguntza-lan hori. 55 urteko eta gehiagoko pertsona guztien %25,0ek adierazten dute seme-alabei laguntzen dietela bilobak zainduz. Zaintzea behar duten bilobak dituzten pertsona guztiak kontuan hartzen baditugu, biztanleen %50 zaintzaileak direla ondorioztatuko dugu.


Laguntza-ekintza horren bidez, familia-bizitza eta lana bateratzeko beharri aurre egitea lortu dute familiek. Aitona-amonak oso baliabide erabilia dira, seme-alabek laneko ordutegiak eta eskakizunak familia-bizitzarekin bateratu ahal izateko.

Pertsona zaintzailearen profila hau da: emakumea, 65 eta 79 urte bitartekoa, osasun-egoera onekoa eta laguntzarik behar ez duena. Emakumeek maizago eta, pentsa daitekeenez, luzeago zaintzen dituzte bilobak. Gizonek ere zaintzen dituzte, baina maiztasun txikiagoarekin. Bilobak zaintzen dituzten pertsona gehienek 65 urte baino gehiago dituzte –hau da, erretiroa hartuta daude–, eta 80 urte baino gutxiago. Eskuarki, 65 urteko pertsonen bilobak adinez txikikoak izaten dira, eta 80 urte eta gehiago dituzten pertsonen bilobak zaharragoak dira, eta ez dute inork zaintzea behar. Gainera, adineko horiek osasun-egoera txarragoa izaten dute, eta horrek bilobak zaintzea eragozten die.

Bilobak zaintzea

	EGUNERO	ASTERO	GUTXIAGOTAN	INOIZ EZ	EZ DU BILOBARIK, EDO EZ DUTE ZAINITZEA BEHAR
55 urte eta gehiago	7,0	8,2	9,9	26,4	48,2
65 urte eta gehiago	8,2	8,4	12,3	28,7	41,9
Sexua					
Gizona	5,9	7,1	10,4	26,1	50,3
Emakumea	7,8	9,1	9,5	26,6	46,5
Adina					
55-64	5,1	7,9	6,1	22,7	58,0
65-79	11,1	11,2	16,1	23,5	37,6
80 urte eta gehiago	1,9	2,2	4,2	40,1	51,4
Osasun-egoera					
Oso ona + Ona	9,0	9,6	10,8	21,4	48,9
Hala-holakoa	5,1	7,7	10,8	24,4	51,9
Oso txarra + Txarra	7,3	7,3	6,8	33,3	45,3
Laguntza-beharra					
Behar du	2,7	3,3	3,9	43,5	46,2
Ez du behar	8,0	9,4	11,4	22,1	48,7
Ikasketak					
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	5,4	7,4	11,5	35,2	40,1
Lehen mailako ikasketak	8,1	9,9	8,4	21,0	52,2
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	7,5	7,4	9,7	22,4	52,7

Euskadiko adineko pertsonen, adin txikiko bilobak dituztenean, intentsitate handiz jarduten dute zaintzeko zereginen. Batez beste, 16,4 orduz astean arduratzen dira bilobak zaintzeaz; hots, 3 ordu baino zertxobait gehiago egunero, aste-lehenetik ostiralera. Adinekoen %7,9k astean 30 orduz baino gehiago zaintzen dituzte bilobak; %11,8k, 21-30 orduz; %30,9, 11-20 orduz; eta %43,7k astean 10 orduz baino gutxiago zaintzen dituzte. Aitona-amonak oso baliabide erabilia dira, seme-alabek laneko ordutegiak eta eskakizunak familia-bizitzarekin bateratu ahal izateko.

Bilobak zaintzea, asteko zaintza, orduak

Azken denboraldi honetan zenbait ikerketak jakitera ematen dutenaren arabera, bilobak zaintzea eta horrekin lotutako gainerako jarduerak egitea (ikastetxera edo haurtzaindegira eramatea eta jasotzea, askaria ematea...) adinekoen denbora gehien hartzen duten funtzioak dira. Emakumerik gazteenek familia-sarearen laguntza –hain zuzen, amonen laguntza– jasotzen dutela diote, eta hori dela lana eta familia-bizitza bateratzeko laguntza nagusia. Emakume langileen iritzi, haien amak dira (amaren aldeko amonak) bilobak zaintzeko lanetan gehien laguntzen dietenak, jasotzen dituzten gainerako laguntzekin alderatuta (Tobío, Fernández Cordón eta Argulló, 1998).

5.5.1.1.3 Adineko senideak edota desgaitasunen bat dutenak zaintzea


55 urteko eta gehiagoko pertsonen %11k adineko senideak edota desgaitasunen bat duten pertsonak ere zaintzen dituzte. Datu horretan, senidetasun-loturarik ez duten edo laguntzarik behar ez duten pertsonak ere sartzen dira. Adineko edota desgaitasunen bat duten senideak dituzten pertsonetatik, lautik batek laguntza ematen die.

Eskuarki, emakumeak arduratzen dira zaintza horiek emateaz, baina baita gizonak ere; emakumeen portzentajea %11,8koa da, eta gizonena, %9,9koa. Profil orokorra hau da: gazteak, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntzarik behar ez dutenak, eta lehen mailako ikasketak dituztenak.

Ez zaintzeko arrazoiak hauek dira: horrelako senideak ez izatea, adibidez gurasoak hil direlako; senideek inolako zaintzarik behar ez izatea; eta zaintza-lanak inoiz ere ez egitea.

Zaintza-mota hori egiten duten pertsonak 36,86 ordu ematen dituzte astean. Hau da, 5 ordu baino gehiago ematen dituzte egunero astelehenetik igandera. Izan ere, lau pertsonatik batek 40 ordu baino gehiago ematen ditu astean.

Adineko ahaide edo ezgaitasunen bat duten seme-alaben zaintza, adinaren arabera



Adineko ahaide edo ezgaitasunen bat duten seme-alaben zaintza, adinaren arabera

	EGUNERO	ASTERO	GUTXIAGOTAN	EZ DU ZAITZEN
55 urte eta gehiago	6,9	2,4	1,6	88,5
65 urte eta gehiago	5,3	1,5	0,9	91,8
Sexua				
Gizona	5,8	2,2	1,9	89,8
Emakumea	7,8	2,7	1,3	87,5
Adina				
55-64	9,5	3,9	2,6	83,5
65-79	6,8	1,8	1,1	89,7
80 urte eta gehiago	2,0	0,9	0,6	96,2
Osasun-egoera				
Oso ona + Ona	7,4	3,3	2,0	86,8
Hala-holakoa	8,1	2,2	1,2	88,5
Oso txarra + Txarra	7,4	1,0	1,0	89,3
Laguntza-beharra				
Behar du	4,9	0,7	0,4	93,5
Ez du behar	7,4	2,9	1,9	87,3
Ikasketak				
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	4,7	1,1	0,7	93,2
Lehen mailako ikasketak	9,5	2,8	1,5	85,6
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	6,8	3,4	2,6	86,5

Zaintza-lan hauek egiten dituzte, oro har: zaintza pertsonala, etxeko lanak egiteko, izapide eta gestioak egiteko laguntza, eta lagun egitea. Pertsona zaintzaile gehienek laguntza emozionala ere ematen dute. Hamar pertsonatik ia zazpik zeregin hauek egiten dituzte: zaintza pertsonala, etxeko lanak egiteko laguntza, eta izapide eta gestioak egiteko laguntza.

Sexuari eta adinari dagokienez, emakumeek etxean laguntzen dute oro har, eta pertsonarik gazteenak zaintza pertsonalaz, etxeko lanak egiteko laguntzaz, eta izapide eta gestioak egiteko laguntzaz arduratzen dira. Laguntza ematen duten 80 urteko eta gehiagoko pertsonen kasuan, laguntza emozionala nabarmentzen da, eta bestalde, ez dute batere laguntzen izapide eta gestioak egiten. Pertsonen osasun-egoera funtsezkoa da eman dezaketen laguntza-motari dagokionez.

Zaintza-lanak

	ZAINITZA PERTSONALA	ETXEAN LAGUNTZEA	IZAPIDE ETA GESTIOAK EGITEKO LAGUNTZA	LAGUN EGITEA
55 urte eta gehiago	64,8	69,3	64,5	85,0
65 urte eta gehiago	62,8	66,6	57,3	86,7
Sexua				
Gizona	61,4	61,2	63,5	86,4
Emakumea	66,8	74,0	65,0	84,2
Adina				
55-64	66,5	71,6	70,7	83,6
65-79	64,1	68,5	62,9	86,5
80 urte eta gehiago	54,5	54,6	20,6	87,7

5.5.1.1.4 Erabateko zaintza

Inkestatutako biztanleen erdiek baino gehiagok zaintza-mota horietako bat egiten dute (seme-alabak, bilobak edota adineko senideak edo desgaitasunen bat duten pertsonak zaintzea): %54,8.

Pertsona horien %57,0 emakumeak dira, eta %43,0, gizonak. Zaintzari dagokionez, sexuaren arabera alde nabarmena dago oraindik ere, baina esan daiteke zahartzaroan gizonak ere, emakumeek bezala, lan horiek egiten dituztela. Bilobak, bikotekideak eta adineko senideak zaintzen dituzten gizonen portzentajea handia da, baina oraindik emakumeena baino txikiagoa. Genero-aldeak kasuan kasuko zaintza-lanak aztertzean sortuko lirateke. Normalean, etxe barruko ingurunearekin lotutako zaintza-lan gehienak emakumeek egiten dituzte, eta etxetik kanpoko zeregin gehienak egiteaz gizonak arduratzen dira. Esate baterako, gizonak bilobak eskolara jasotzera joango lirateke, eta emakumeek, berriz, askaria pres-tatu eta emango liekete.

Adina ere zaintzaileen profilararen osagai argia da. 55 eta 79 urte bitarteko pertsonak dira zaintza-lanak oro har egiten dituztenak. Portzentaje horizontalak direnez, emaitza horietan ere agerian geratzen da adinik handieneko pertsonen lagina txikiagoa dela beste adin-tarteetako pertsonena baino; horrek eragin dezake pertsona horien pisu erlatiboa txikiagoa izatea beste adin-tarteetan baino. Horrez gain, kontuan izan behar da aipatutako zaintza-lanak egiteko osasun ona izatea beharrezkoa dela, eta hori biztanlerik gazteenen ezaugarri bat da.

Pertsona zaintzaileen profila

	ZAINTZAILEEN PROFILA
55 urte eta gehiago	54,8
65 urte eta gehiago	49,7
Sexua	
Gizona	43,0
Emakumea	57,0
Adina	
55-64	44,7
65-79	43,7
80 urte eta gehiago	11,6
Etxe-mota	
Pertsona batekoa	8,2
Bikotea	28,2
Belaunaldi anitzekoa beren etxean	58,9
Belaunaldi anitzekoa seme-alaba baten etxebizitzan	0,4
Beste motaren bat	4,3
Osasun-egoera	
Oso ona + Ona	61,5
Hala-holakoa	30,8
Oso txarra + Txarra	7,7
Laguntza-beharra	
Behar du	13,9
Ez du behar	86,1
Ikasketak	
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	0,6
Lehen mailako ikasketak	28,4
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	34,1

OHARRA: Portzentaje bertikalak

Pertsona zaintzaile guztien %58,8 belaunaldi anitzeko etxeetan bizi dira, beren etxebizitzan. Kasu honetan, oso handia da seme-alabekin bizi diren pertsonen portzentajea. Eskuarki, pertsona horiek 55 eta 64 urte bitarteko adina dute, oraindik ere emantzipatu gabeko seme-alabak dituzte, edo batez besteko amatasun-adinean daudenak; alegia, adin txiki-kiko seme-alabak dituztenak (adineko pertsonen bilobak). Orobat, adin-tarte horretan dauden pertsonen aita edo ama bizirik egon daitezke. Pertsonen belaunaldi horri "sandwich belaunaldi" esaten zaio, ohiko familia-egitura bertikaleko (aldi berean belaunaldi asko dituen) bi belaunaldiren artean baitago; hau da, aldi berean pertsona asko zaindu beharrean egon daiteke. Emantzipatu gabeko seme-alabak edota biloba txikiak eta adin aurreratuko gurasoak edo adineko senideak (aita-amaginarrebak) dituzte.

Pertsona zaintzaileen ohiko beste etxe-mota bat bikoteak osatutakoa da; izan ere, zaintza-lanak egiten dituzten 10 pertsonatik hiru bikotekidearekin bizi dira. Aurreago deskribatu dugunez, 65 eta 79 urte bitarteko belaunaldietako pertsonen (sandwich belaunaldian ere egon daitezkeenak) eta urte gehiagoko pertsonen ohiko etxe-mota da; beharbada, bikotekidearen ingurunean bete behar dute zaintza-eginkizuna.

Osasun-egoera zaintzarako faktore garrantzitsua da: hamar pertsona zaintzailetik seik osasun ona dutela adierazten dute. Oso gutxi (%7,7) adierazten dute osasun txarra edo oso txarra dutela.


Datuak aztertuta ikus daitekeenez, seme-alabak dituzten pertsona gehienak 55 eta 64 urte bitarteko adin-tartean daude (%44,2), eta belaunaldi anitzeko etxeetan bizi dira, beren etxebizitzan (%80,8). Bilobak zaintzen dituzten pertsonak hurrengo adin-tartean daude, 65 eta 79 urte bitartekoan (%38,4), eta bikotekidearekin bizi dira (%54,6). Eta adineko senideak edota desgaitasunen bat duten pertsonak zaintzen dituzten pertsona gehienak 55 eta 64 urte bitarteko adin-tartean daude (%16,0), eta belaunaldi anitzeko etxeetan bizi dira, beren etxebizitzan.

Zaintzen duten pertsona aldagai soziodemografikoen arabera

	SEME-ALABAK	BILOBAK	ADINEKO SENIDEAK EDO DESGAITASUN BAT DUTENAK
55 urte eta gehiago	32,4	25,0	11,0
65 urte eta gehiago	24,8	28,9	7,7
Sexua			
Gizona	30,9	23,4	9,9
Emakumea	33,6	26,4	11,8
Adina			
55-64	44,2	19,0	16,0
65-79	24,2	38,4	9,7
80 urte eta gehiago	26,1	8,3	3,5
Etxe-mota			
Pertsona batekoa	7,7	11,9	7,7
Bikotea	5,1	54,6	25,8
Belaunaldi anitzekoa beren etxean	80,8	28,8	51,5
Beste motaren bat	6,4	4,7	15,0


Batez beste, pertsona zaintzaile bakoitzak bi pertsona zaintzen ditu. %45,7k pertsona bat zaintzen dute; hamar pertsonatik ia hiruk bi zaintzen dituzte; %10,8k hiru pertsona zaintzen ditu; eta %7,5ek, azkenik, lau pertsona edo gehiago. Bikotekidearekin bizi diren 65 eta 79 urte bitarteko pertsonak dira aldi berean pertsona gehien zaintzen dituztenak.

Laguntzen dituen pertsona kopurua



Gehien lagundutako pertsonari dagokionez, %27,7k adierazten dute beren laguntza dela pertsona horrek jasotzen duen bakarra. %37,4k esaten dute beren laguntza ez dela bakarra, baina bai nagusia. Eta %32,6k adierazten dute beren laguntza ez dela ez bakarra ez nagusia, ez baitira zaintzaz arduratzen diren pertsona bakarrak.

Emandako laguntza: bakarra, oinarritzkoa ala bigarren mailakoa



Gainera, biztanle zaintzaileen erdiek 5 urte baino gehiago daramatzate zaintza-lan horiek egiten; esan daiteke, hortaz, iraupen luzeko zaintza dela.

5.5.1.2 Laguntza ekonomikoak

Zaintzaz gain, badaude familia-elkartasuna transferitzeko beste modu batzuk ere. Besteak beste, laguntza ekonomikoak nabarmentzen dira. 55 urteko eta gehiagoko pertsonen %8,7k diruz laguntzen diote beren etxetik kanpoko pertsonaren bati. Laguntza hori ematen duten biztanleen ia erdiek hilero ematen dute. Pertsonen %35,4k 100 eta 500 euro bitarteko laguntza ekonomikoa ematen dute.

Adin guztietako gizonek eta emakumeek jasotzen dute elkartasun-mota hori. 80 urte eta gehiago dituzten pertsonen proportzio txikiagoan (%7,2) ematen dute laguntza hori, eta oro har, ematen duten diru-kopurua txikiagoa izaten da. Kontuan hartu behar da 80 urte beteak dituzten pertsonen erosahalmena txikiagoa dela gazteagoena baino; beraz, ahalegin handia egin behar izaten dute edozein diru-kopuru emateko.


Laguntza ekonomikoa ematen duten hamar pertsonatik hiruk 5 urte baino gehiago daramatzate laguntzen. 3 urte baino gutxiago daramatzaten pertsonen kopurua oso antzekoa da.

Gainera, etxetik kanpoko pertsonen diruz laguntzen dieten pertsonen %62,3ren arabera, laguntza-mota hori krisi ekonomikoaren ondorioz areagotu da.

Laguntza ekonomikoa ematen duten pertsonak, maiztasuna eta kopurua

	LAGUNTZA EKONOMIKOA EMATEN DUTE	MAIZTASUNA		KOPURUA			
		HILERO EDO IA HILERO	NOIZEAN BEHIN	< 100 euro	100-500	> 500	ED/EE
55 urte eta gehiago	8,7	42,3	44,5	22,2	35,4	11,6	30,8
65 urte eta gehiago	8,4	41,6	46,4	25,8	31,8	10,1	32,3
Sexua							
Gizona	9,2	42,9	44,7	18,9	34,7	15,3	31,1
Emakumea	8,2	41,8	44,3	25,2	36,0	8,2	30,5
Adina							
55-64	9,1	43,4	41,7	17,0	40,7	13,7	28,6
65-79	9,0	40,9	44,6	23,3	35,0	12,6	29,1
80 urte eta gehiago	7,2	43,4	51,3	32,5	23,1	3,4	41,0


Laguntza ekonomikoa, denbora babesa eskaintzen



■ 3 urte arte ■ 3 eta 5 urte artean ■ 5 edo urte gehiago ■ ED/EE

Adineko Pertsonen Gizarte Behatokiak argitaratutako azken ikerketaren (CCOO, 2014) arabera, 2013an Euskadiko etxeen %19,7ren mantenua erretiro-pentsioa duen pertsona baten mendean zegoen. Diru-iturri nagusia erretiro-prestazio bat duten etxeen kopurua krisialdi honetan handitu da; hain zuzen ere, 2013an, etxeen %20 zeuden egoera horretan. Erretiro-prestazio bat kobratzen duten pertsonak mantendutako etxe gehienak autonomia-erkidego hauetan zeuden: Gaztela eta Leon (%24,7), eta Asturias (%24). Haietan, erretirodun bat arduratzen zen lau etxetik ia baten mantenuaz. Aitzitik, Kanariak eta Balearrak zerrrenda horretako beste muturrean zeuden (%13 eta %16, hurrenez hurren).

Erretiro-prestazioa kobratzen duen pertsona batek mantendutako etxeak (ehunekotan), 2013



Iturria: CCOO (2014): Observatorio Social de las Personas Mayores 2014. Para un envejecimiento activo.

Gurasoek seme-alabei laguntza ekonomikoa ematea oso ohikoa da gure gizartean, baina, egungo krisi ekonomikoaren ondorioz, laguntza horien kopurua handitu egin da. Azken urteetan, langabezia-tasa asko handitu da –batez ere, belau-naldi gazteetan–, eta horren ondorioz, jatorrizko familiaren laguntza gero eta garrantzitsuagoa da etxetik kanpoko beste gune batzuen mantenuari dagokionez. Erretiro-pentsioari esker, adineko pertsonak egonkortasun ekonomiko handiagoa dute eta, beraz, senideen arazo ekonomikoak konpondu behar izaten dituzte.

5.5.1.3 Etxeko lanak

%4,5ek etxeko lanak egiten laguntzen diete etxetik kanpoko senideei. Gehienbat, emakumeek eta 55 eta 64 urte bitarteko pertsonak ematen dute laguntza-mota hori.

Esate baterako, ohikoa da emakumeek beren seme-alabei etxeko lanetan laguntzea, eta horri esker, seme-alabek lana eta familia-bizitza bateratu ahal izatea. Atal honetan, ez ditugu kontuan hartu osasun txarra duten senideei etxeko lanak egiten laguntzen dieten pertsonak; beraz, ez ditugu adin aurreratuko gurasoei laguntzen dieten pertsonak zenbatu (zaintzei buruzko atalean hartu ditugu kontuan).

Beste senide batzuei etxeko lanak egiten laguntzen dieten 10 pertsonatik seik astean behin egiten dute. %37,5ek 5 urte edo gutxiago daramatzate laguntza hori ematen, eta %22k soilik adierazten dute laguntza-behar hori krisiaren ondorioz handitu dela. Beraz, badirudi etengabeko eta ohiko laguntza hori kulturaren ezaugarri bat dela, eta ez egoeraren araberakoa.

Etxeko lanak egiteko laguntza

	ETXEKO LANAK
55 urte eta gehiago	4,5
65 urte eta gehiago	3,2
Sexua	
Gizona	3,4
Emakumea	5,4
Adina	
55-64	6,5
65-79	3,4
80 urte eta gehiago	2,7

5.5.1.4 Familia-harrera

Inkesta honetan aztertutako familia-elkartasunaren beste ohitura bat familia-harrera da; hau da, behar duen senide bat etxean hartzea. Honen adibide garbi bat da emantzipatu ziren seme-alabek jatorrizko etxera bueltatzea, langabeziagatik edo bikote harremana bukatzeagatik. Kasu honetan, 55 urte beteak dituzten pertsonen %5ek esan dute etxean senideren bat hartu dutela. Gizonek baino emakume gehiagok eman dute laguntza-mota hori, eta adin aurreratuetan. Zuhurtasun handiz hartu behar ditugu datu horiek, lagina oso txikia baita.

Etxean senideren bat hartu duten biztanleen ia erdiek azken hiru urteetan egin dute. Antzeko pertsona-kopuruak adierazi du krisiaren ondorioz esparru horretan gehiago lagundu behar izan duela. Datu hauek kontuz hartu behar dira lagina txikia delako.


Familia-harrerarik ohikoena emantzipatutako seme-alabak etxera itzuli behar izatea da, eta kausa nagusia langabezia da.

Etxean senideren bat hartu duten pertsonak

	FAMILIA-HARRERA
55 urte eta gehiago	5,0
65 urte eta gehiago	5,3
Sexua	
Gizona	4,0
Emakumea	5,9
Adina	
55-64	4,6
65-79	5,0
80 urte eta gehiago	6,0


Halaber, familiek krisi ekonomiko eta finantzarioak eragindako arazoei erantzuteko modu bat izan da familia-harrera. 2008an higiezin-arloko burbuilaren eta krisiaren ondorioz hasitako krisi ekonomikoak bete-arazpen hipotekarioen eta etxegabetzeen kopurua handitzea eragin du. Horrez gain langabezia-tasa handia kontuan hartuta, familia askok ahalegin handia egin behar izan dute, eta baliabideak banatu. Gauzak horrela, adineko pertsonen laguntza ezinbestekoa da, eta adin-tarte guztietako pertsonak ematen dute.

Familia harrera, denbora babesten



■ 3 urte baino gutxiago ■ 3 eta 5 urte artean
 ■ 5 edo gehiago ■ Ns/Nc


Eskaintako arreta adinaren arabera



5.5.1.5 Laguntzak krisialdian

Krisiaren ondorioz gehien ugartu den laguntza-mota ekonomikoa da; hain zuzen, 10 pertsonatik seik adierazten dute krisiaren ondorioz laguntza ekonomiko handiagoa eman behar dutela. Bigarren laguntza-motarik ugariena familia-harrrera da; biztanleen erdiek krisiari egozten diote behar hori handitu izana. Seme-alabak zaintzeko eta etxetik kanpoko etxeko lanak egiteko laguntza handitu egin da, %20ren ustez. Bestalde, badirudi bilobak eta adineko pertsonak zaintzeko lanek ez dutela egungo egoerarekin zerikusirik, laguntza hori beti ematen dela.

Laguntza areagotzea krisia dela eta



Krisia dela eta, belaunaldi arteko elkartasunaren garrantzia handitu egin da. Bengtson eta Roberts-ek proposatzen dituzten belaunaldi arteko elkartasun-motetatik (asoziatiboa, afektiboa, adostasunezkoa, funtzionala, normatiboa eta egiturazkoa), bi hauek sendotu dira krisi ekonomikoaren ondorioz: egiturazko elkartasuna (bizikidetzeta-mota eta hurbiltasuna) eta elkartasun funtzionala (laguntza ekonomikoak eta zaintza) (García Sanz eta Abellán, 2013).

5.5.2 Jasotako laguntza

Normalean, adineko pertsonen eta zaintzaz hitz egitean, jasotzen duten laguntzan jarri ohi da arreta, eta ez ematen duten laguntzan. Jarraian, biztanleria-talde horrek jasotzen dituen laguntza-motak aztertuko ditugu.

5.5.2.1 Jasotako zaintza

Lehenago azaldu dugunez, 55 urte beteak dituzten pertsonen %9,2k laguntza behar dute eguneroko bizitako oinarrizko jarduerak egiteko, eta %19,5ek, jarduera instrumentalak egiteko. Aztertutako lagineko pertsona guztien %20,1ek adierazten dute eguneroko bizitako jardueraren bat egiteko laguntza behar dutela.


Aipatutako 14 jardueretako bat edo gehiago egiteko laguntza behar duten pertsonen %31,3k adierazten dute osasuna dela eta behar dutela. Horrenbestez, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen %7,7k laguntzaren bat jasotzen dute beren osasun-egoera dela eta.

Jasotako laguntzarik ohikoena etxeko lanak egiteko laguntza da (etxeko lanak, erosketak, konponketa txikiak, etab.); 55 urte eta gehiagoko biztanleen %7,2k jasotzen dute. Biztanleen %4k laguntza emozionala eta izapide eta gestioak egiteko laguntza (medikuarengana laguntzea, bankura joatea) jasotzen dute. Oso gutxik (%2,6) jasotzen dute zaintza pertsonala (beren burua garbitzea, jaikitzea, janztea, eranztea, jatea, etxean mugitzea, etab.).

Jasotzen den laguntzarik ohikoenetako bat etxeko lanak egiteko laguntza da. Laguntza jasotzen duten pertsonen %94,9k laguntza hori behar dute. Pertsona horien erdiek laguntza emozionala eta izapide eta gestioak egiteko laguntza ere jasotzen dute. Laguntza jasotzen duten hiru pertsonatik batek zaintza pertsonalak behar ditu.

Jakina, jasotako laguntza adinarekin batera handitzen da. 80 urte eta gehiago dituzten pertsonen %22,6k jasotzen dute zaintza pertsonalerako laguntza. Bestalde, gainerako adin-tarteetako pertsonek bezala, 80 urteko eta gehiagoko pertsona gehienek etxeko lanak egiteko laguntza jasotzen dute. 10 pertsonatik seik izapide eta gestioak egiteko laguntza eta laguntza emozionala ere jasotzen dute, eta laguntza jasotzen duten 80 urteko eta gehiagoko pertsonen %41,0k zaintza pertsonala ere jasotzen dute. Alegia, zaintza pertsonalerako laguntza jasotzen duten 80 urte eta gehiagoko pertsonen %22,6 horren ia erdiei eguneroko bizitzako oinarriko jarduerak egiten laguntzen diete.


55 Urte baino gehiago dituzten eta osasun arazoak direla eta laguntza jasotzen dutenak, jasotako laguntza motaren arabera



Adina handitu ahala, osasun egoeratik laguntza jasotzen duten pertsonen portzentajeak esponentzialki handitzen dira: 55 eta 64 urte bitartekoen artean, %2,3 da, 65 eta 79 urte bitartekoen artean, %5,9; eta urte gehiago dituztenen artean, %22,6. Lehen bi belaunaldien artean, kopurua halako bi handitzen da, baina 80 urtetik aurrera, halako lau handitzen da. Bistakoa da 80 urteko eta gehiagoko adin-tartean mendekotasun-mailarik eta laguntza-beharrik handienak daudela. Izan ere, adin horretan, gaitasun funtzionalen gainbehera orokortu egiten da. Hori da familien eta gizarte- eta osasun-babeseko sistemaren laguntza eta arreta gehien behar duen taldea.


	OSASUNA DELA ETA LAGUNTZA JASOTZEN DU	LAGUNTZA-MOTA			
		ZAINTZA PERTSONALA	ETXEKO LANAK EGITEKO LAGUNTZA	IZAPIDE ETA GESTIOAK EGITEKO LAGUNTZA	LAGUN EGITEA
55 urte eta gehiago	7,7	33,2	93,1	53,0	52,0
65 urte eta gehiago	11,2	34,9	94,9	54,4	54,0
Sexua					
Gizona	5,4	35,7	86,9	51,0	51,1
Emakumea	9,6	32,1	95,9	53,9	52,5
Adina					
55-64	2,3	20,9	79,2	42,2	37,4
65-79	5,9	24,1	95,6	38,8	41,8
80 urte eta gehiago	22,6	41,0	94,5	63,4	60,9

Osasun arrazoiak direla eta, laguntzaren bat jasotzen duten pertsonen portzentaia adinaren arabera




Zaintza pertsonalerako laguntza behar duten pertsonak egunero jasotzen dute. %85,4k laguntza hori egunero jasotzen dutela adierazten dute. Lehenago esan denez, honetarako behar dute laguntza hori: beren burua garbitzeko, jaikitzeko, janzteko, erantzeko, jateko, etxean mugitzeko, etab. Zaintza horiek egunero behar dituzte, eta behar-beharrezkoak dira pertsonarentzat.

Jasotako zaintza pertsonala: maiztasuna



Etxeko lanak egiteko laguntza behar duten pertsonen %55ek egunero jasotzen dute, maiztasun handiz. 10 pertsonatik hiruk astean behin edo bitan jasotzen dute laguntza hori. Jakina, laguntza horren intentsitatea txikiagoa da, ez baita egunero egin behar, baina bai nolabaiteko maiztasunez.


Etxean jasotako laguntza: maiztasuna



Izapide eta gestioak egiteko laguntza behar duten adineko pertsonen ia erdiek egunero jasotzen dute. %27,7k astean behin baino gutxiagotan jasotzen dutela adierazten dute.

Laguntza hori behar duten pertsona guztiak maiztasun eta intentsitate handiz jasotzen dute, lan-motaren arabera. Askotan, egunero egin behar ez diren gauzak egiteko ere jasotzen dute laguntza egunero. Horrek esan nahi du laguntza-sare handia dagoela.

Tramite eta gestiotan laguntza: maiztasuna




Zaintza horiek ematen dizkieten pertsoneri dagokienez, ikerketa honen emaitzek berriro ere ondorioztatzen dute senideen protagonismoa. Argi eta garbi azaltzen da "gizarte-babeseko armada ikusezin" hori, batik bat alabek osatua. Dena den, gero eta handiagoa da emakume zaintzaile profesional eta pribatuen kolektiboa. Gehienak immigranteak dira, eta etxeko langilearen kategorian sartzen dira.

Laguntza behar duten pertsonen erdiek senide baten laguntza jasotzen dute. Ondoren, pertsonen %42,6k etxeko langilearen laguntza jasotzen dute; haientzat, zaintzarako euskarri nagusia da etxeko langilea. Gero eta ohikoagoa da etxeko langileak kontratatzea mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaindu ditzaten. Pertsonen %4,2ren lehen aukera gizarte-zerbitzuak dira, eta %1,2k boluntario edota auzokoen laguntza jasotzen dute.

Bigarren aukeran, pertsonen %38,5ek erantzun dute familia dela. Ondoren, pertsonen %8,3ren bigarren aukera etxeko langilea da, eta %3,3rena, gizarte-zerbitzuak. Hirugarren aukerari dagokionez, familia dago lehen postuan (%22,3), eta ondoren, auzokoen eta boluntarioen laguntza (%7,6).


Osasun arrazoiengatik laguntza jasotzen dutenak, laguntza ematen dutenak



5.5.2.2 Beste motaren bat

Osasun-egoeragatik jasotzen den laguntzaz gain, osasun-arazorik ez duten pertsonak jaso dezaketen laguntza ere aztertu da. Ildo horretan, etxeko lanak egiteko laguntzari, familia-harrerari eta laguntza ekonomikoei buruzko informazioa bildu da. Emandako laguntzari buruzko atalean aztertutako laguntza-mota beren inguruan galdetu zaie elkarrizketatutako pertsoneri.

55 urte eta gehiago dituzten pertsonen %8,2k etxeko lanak egiteko laguntza jasotzen dutela adierazten dute; oso gutxik (%1,4) laguntza ekonomikoak jasotzen dituzte; eta %0,7k senide baten etxera joan behar izan dute. Dirudienez, etxeko lanak egiteko laguntza da biztanle horiek jasotako laguntza nagusia.

Laguntzaren bat jasotzen duten pertsonen portzentaia, jasotako laguntzaren arabera**5.5.3 Laguntzei buruzko balantzea**


Laguntza informaltasunez ematen duten adineko pertsonen eta laguntza jasotzen dutenen portzentajeak alderatuz gero, balantzeak agerian uzten du 55 urteko eta gehiagoko pertsonen %54,8k laguntza-mota informalen bat (seme-alabak, bilobak, adineko pertsona bat edo desgaitasunen bat duen pertsona bat zaintzea) ematen dute, eta %7,7k soilik osasun-egoera dela eta jasotzen dute.

Bestalde, beste mota bateko laguntzak ere hartu dira kontuan; esaterako, adineko pertsonen %8,7k laguntza ekonomikoak ematen dituzte, eta %1,4k jasotzen dituzte. Hala ere, etxeko lanak egiteko laguntza informalarik dagokionez, jasotzen duten adineko pertsonak gehiago dira ematen dutenak baino (%8,2 eta %4,5, hurrenez hurren). Atzeraldi ekonomikoetan, senideek ematen duten beste laguntza-mota bat familia-harrera da. Pertsonen %5ek adierazten dute etxean senideren bat hartu dutela, baina %0,7k soilik esaten dute senide baten etxera joan behar izan dutela.


65 urtetik gorako pertsonen taldean, datuak oso antzekoak dira: %49,7k zaintzak ematen dituzte, eta %11,2k jasotzen dituzte; %8,4k laguntza ekonomikoak ematen dituzte, eta %1,6k jasotzen dituzte; %5,3k senideren bat hartu dute etxean, eta %0,7 joan dira senide baten etxera; eta %3,2k etxeko lanak egiten laguntzen dute, eta %11,1ek jasotzen dute laguntza hori. Etxeko lanak egiteko laguntzaren kasuan, jasotzen dutenak gehiago dira ematen dutenak baino.

Hortaz, eta adineko pertsonen inguruko estereotipoek (mendekoak direla, gastuak sortzen dituztela, eta senideen ahalegina eragiten dutela) aditzera ematen dutenaren kontra, zaintza eta laguntza ematen duten adinekoak gehiago dira jasotzen dutenak baino. Errealitate ezezagun horrek kontra egiten dio, datu objetiboekin, zahartzaroa karga sozialtzat hartzen duen estereotipoari.

Laguntza jaso eta ematen duten 55 urtetik gorako pertsonen portzentaia



Laguntza jaso eta ematen duten 65 urtetik gorako pertsonen portzentaia



Adineko pertsonak beren familia-esparruan egiten dituzten ekarpenak ezinbestekoak dira. Etapa horretan, asko handitzen da ordaindu gabeko jardueretan ematen den denbora, bai etxean, bai familian; batez ere, familian, aurrerago aztertuko dugunez, oraindik ere adinekoek gutxi parte hartzen baitute gizarte-ingurunean.

Zahartzaroan, etxearekin eta familiarekin lotutako jarduerak eta lanak dira aipagarrienak. Bizitzaren etapa horretan, familia enpleguaren ordezkari handia da, soziabilitate-, identitate- eta autoestimatu-iturri gisa, eta denbora egituratzeari dagokionez (Pérez Ortiz, 2003). Pertsonak erretiro-adinean sartzean, lan-merkatutik urrundu eta familiari denbora gehiago eskaintzen hasten dira. Eskuarki onartzen da zahartzaroan, lan egiteari utzi ondoren, familiarekiko harremana estutu egiten dela (Iglesias, 2001)

Adineko pertsonak etxean ordaindu gabeko lanak egiten ematen duten denbora interesgarria da ikuspuntu sozioekonomikotik. Funtzio horiek onura ekonomiko handia ematen dute, familiek ez baitiete beste pertsona batzuei ordaindu behar lan horiek egiteko, zaintza-lanetan bezala. Funtzio horiek gutxietsita daude, "ikusezinak" dira, eta gizarteak ez ditu aintzat hartzen (Agulló, 2000).

5.6 Eguneroko bizitza

Egunean zehar egin beharreko jarduerak banatzea, pertsonen bizi-estiloa antolatzen eta egituratzen da. Eguneroko ohiturak bizitzako etaparen arabera aldatzen dira. Gerontologiak jardueretan eta denboraren erabileran gertatzen diren aldaketa horiek aztertu ditu, pertsonen zahartze-prozesuaren zati bat baitira. Jarduera-aldaketei buruzko teoria psikosoziologikoei ikerlan zientifiko asko sortu dituzte. Ikerketa gehien sortu dituzten teoriak hauek dira: Desloturaren teoria (Cumming eta Henry, 1961) eta Jardueraren teoria (Neugarten, Havighurst eta Tobin, 1961). Eguneroko ohituren aldaketa aztertuta, teoria horiek zahartzeari buruzko bertsio desberdinak ematen dituzte.

Desloturaren teoriaren arabera, bizitza aktiboarekiko loturak pixkanaka hausten dira zahartzearekin batera. Horrek bi ondorio ditu: alde batetik, eguneroko bizitzan normaltasunez egiten ziren jarduera asko apurka-apurka alde batera uztea; eta beste batetik, pertsona gizartetik pixkanaka urruntzea, edo pertsonaren eta gizartearen arteko lotura apurka desagitea. Jardueraren teoriak aurrekoa ezeztatzen du. Haren arabera, aktibo jarraitzeko gaitasuna erretiroa eta zahartzea arrakastaz bizitzeko oinarritzko baldintzetako bat da; hortaz, zenbat eta jarduera gehiagotan parte hartu, orduan eta gogobetetasun handiagoa izango dute adinekoek.

Zahartze-prozesuari buruzko bi ikuspegi horiek kontrako bi jarrera islatzen dituzte, imaginario sozialean ere oso hedatuta daudenak: alde batetik, adineko pertsonak pasibotzat eta baliabide-hartzailatzat hartzen dituenak, eta beste batetik, aktibotzat eta laguntza-emaitzat hartzen dituenak.

Gero eta ohikoagoa da zahartzaroa aukeraz betetako alditzat hartzea, nabarmen aktibotzat, baina, dena den, pertsona gehienek oraindik ere uste dute adineko pertsonak emankorra ez den gizarte-kolektibo bat osatzen dutela, eta gizarte-eta osasun-gastuarekin erlazionatzen dute, ez egiten dituen gizarte-ekarpenekin. Gaur egun gure gizartean hedatuta dauden estereotipoek hartzailetzat baino ez dituzte adineko pertsonak hartzen, eta haien ekarpenak balioestea galarazten dute. Gizarteak jarduera-ezarekin, mendekotasunarekin, ahultasunarekin eta bakardadearekin lotzen du zahartzaroa (Barrio, Sancho eta Yanguas, 2011)

5.6.1 Etxeko lanak

Zahartzaroan, etxearekin eta familiarekin lotutako jarduerak eta lanak dira aipagarrienak. Etapa horretan, familia da eguneroko bizitzaren ardatz nagusia, lanaren ordezkari, gizonen kasuan; soziabilitate-, identitate- eta autoestimuturria da, eta adinekoen denbora egituratzen du. Pertsonak erretiro-adinean sartzean, lan-merkatutik urruntzen dira, eta etxeari eta familiari denbora gehiago eskaintzen hasten dira (Barrio, Sancho eta Yanguas, 2011).

Etxeko lanak eta lehenago aztertutako zaintza-lanak egiten ematen dute bizitza pribatuko denbora hori. 55 urteko eta gehiagoko 10 pertsonatik ia zazpi etxeko lanak egunero egiten dituztela adierazten dute. Horri dagokionez, genero- eta adin-alde handiak ikus daitezke.


Adinekoen %80,7k egiten dituzte lan horiek egunero edo ia egunero, baina gizonen %51,3 baino ez daude egoera horretan. Etxeko lanen banaketa oso desberdina izan da eta, oraindik ere, desberdina da gizonen eta emakumeen artean. Adineko emakumeen egungo belaunaldiaren bizitzak tradizioaren eragin handia izan du; izan ere, emakumeek etxeko lanak egiteaz arduratu behar izan zuten, eta gizonek, berriz, etxetik kanpoko lanaz. Inkestaren datuek etxeko lanen banaketa desberdin hori berresten dute.

Zahartzaroan, bizitza aktiboan nagusi ziren rolak nolabait leuntzen dira, eta gizonak gehiago parte hartzen hasten dira tradizionalki emakumeek egin behar zituzten jardueretan (Barrio, 2007). Hala eta guztiz ere, lanen banaketan sexu-diskriminazio handia dago oraindik ere.

Etxeko lanak

	EGUNERO	ASTERO	GUTXIAGOTAN	INOIZ EZ
55 urte eta gehiago	67,6	9,5	7,0	12,4
65 urte eta gehiago	64,8	8,3	6,8	15,7
Sexua				
Gizona	51,3	11,7	13,2	18,9
Emakumea	80,7	7,6	2,1	7,2
Adina				
55-64	71,9	11,3	7,4	7,3
65-79	69,2	9,7	7,2	11,1
80 urte eta gehiago	55,3	5,4	6,0	25,8
Osasun-egoera				
Oso ona + Ona	74,9	9,0	6,3	7,4
Hala-holakoa	69,2	10,8	7,5	10,2
Oso txarra + Txarra	61,4	12,3	8,3	14,0
Laguntza-beharra				
Behar du	45,3	7,9	8,6	30,7
Ez du behar	73,2	9,9	6,7	7,8
Ikasketak				
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	60,5	10,1	8,5	17,4
Lehen mailako ikasketak	72,0	7,4	6,6	10,1
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	70,7	10,7	6,0	9,6

Etxeko lanak sexu eta adinaren arabera



5.6.2 Aisialdia

Gizarte modernoan, oinarrizko aldaketak gertatu dira aisialdiaren antolaketan, eta aisialdiak garrantzi handia du pertsonarentzat. 65 urte beteak dituzten zenbait pertsonak ez dute beren bizitzan aisialdirako aukerarik izan, eguneroko jardueri aurre egin behar zirelako. Bizitza-estilo horrek asko mugatu zuen pertsona horien errealitatea, eta zahartzaroan, askotan, ez dute aisialdia erabiltzeko trebetasunik. Gaur egun nagusi den asiaren kulturak ez du batere zerikusirik pertsona horiek bizi izandako errealitatearekin. Egun, aisialdiak bilakaera handia izan du, eta belaunaldi berriek ez dute edozein denbora-pasarekin bete beharreko hondar-denboratzat hartzen. Haienentzat, erabil daitekeen denbora bat da, eta izan ere, zenbait kasutan, lana bera bezain diziplinatuta eta araututa dauden jarduerak egiteko erabiltzen dute. Denbora «produktiboki» eta gogobetetasunez erabiltzeko baliabideak eskura izateak oso eragin positiboa du esparru afektibo, psikologiko eta sozialetan; azken batean, pertsonen bizi-kalitatean (Barrio, 2007).

Hala ere, adineko pertsonen belaunaldi berriek oso antz gutxi dute aurrekoekin. Egungo adinekoek heziketa-maila handiagoa dute, bizitzako aurreko etapetan aisialdiaz gozatu dute, teknologia berrien gorakada ezagutu dute, eta emakumeen kasuan, lan-merkatuan sartu dira. Horrek guztiak zahartzaroan mundua ikusteko eta aisialdiaz gozatzeko beste ikuspegi bat sortzen du.

Deustuko Unibertsitateko Aisiazko Ikaskuntzen Institutuko taldea 1990eko hamarkadaren hasieran hasi zen aisialdia/zahartzea binomioan sakontzen; ikerketen eta prestakuntza-ekimenen bidez, asiak giza garapenerako duen potentziala frogatzen saiatzen dira. Aisiak esperientzia gisa duen balioa da haren teoriaren ardatza, pertsonengan giza gaitasunak eratzeko eta garatzeko prozesuak sustatzeko duen balioa, alegia. Teoria horren arabera, ongizatea egituratzen duen eta zahartze-prozesu atseginak sustatzen dituen aldagai bat da aisia (Moteagudo, Cuenca eta San Salvador, 2014).

Belaunaldi- eta gizarte-faktoreek oso eragin handia dute aisialdiaren erabileran. Zenbait faktorek asko baldintzatzen dute adineko pertsonen egungo belaunaldiek aisialdia erabiltzeko modua. Hona hemen horietako batzuk: jasotako heziketa, gizonen eta emakumeen jardueren arteko bereizketa soziala, portaerazko ohituren ondoriozko osasun-baldintzak eta gizarte-estereotipoak (Bueno Martínez, B., Buz Delgado, J., 2006).

Aisialdiarekin lotutako bizi-estiloak garatzen lortzen bada, aisialdi-kultura garatu ahal izango da, kultura hori ezin baita tradizioetan oinarritu. Aisialdiko bizimodu ereduak lortzeko eta transmititzeko, beharrezkoa da aisialdiari buruzko prestakuntza (Barrio, 2007).

Eskuarki, esan daiteke aisialdiko portaerek zentzua dutela gizakiaren autoerrealizaziorako zeregin garrantzitsuak dituztenean (Weber, 1969: 212).

Aisialdiko jarduerak bereziki garrantzitsuak dira adineko pertsonentzat; izan ere, enpleguaren jarduera edo amatasunarekin/aitatasunarekin lotutako erantzukizunak desagertzen edo gutxitzen direnean, aisialdirako denbora asko dago. Kasu horietan, denbora hori betetzeko aukeratzin diren jarduerak erreferentzia eta esanahi berriak ematen dizkiete pertsoneri. Ildo horretan, aisialdiko jardueren bidez bizitza sozial aktiboa izatea funtsezkoa da mendekotasuna prebenitzeko, eta gogobeteko zahartzea bermatzen du, kuantitatiboki zein kualitatiboki. Gainera, pertsonen bizi-gogobetasun handiagoa izaten laguntzen du, ongizate fisiko, psikologiko eta sozial gisa ulertuta (EDE Fundazioa, 2013).

5.6.2.1 Ariketa fisikoa eta kirol-jarduerak

Euskadiko adineko pertsonen artean, aipatzekoa da zenbatek egiten dituen jarduera fisikoak edo kirol jarduerak: %80,1ek. Esan daiteke ia adineko guztiek egiten dituztela jarduera horiek osasun-arriskuak prebenitzeko eta zahartze aktiboa lortzeko.

Horrelako jarduerak, sasoi fisikoari eta mentalari eusten laguntzeaz gain, gaixotasunak prebenitzen laguntzen dute. Ariketa fisikoak eta kirolak onura psikosozialak ere dituzte: besteekin harremanetan egotea eta norberaren gorputza onartzea. Proba zientifiko askok berresten dute zer garrantzitsua den ariketa fisikoa zahartzaroan osasunari eta jarduerahaldmenari eusteko. Izan ere, OMEk garatutako zahartze aktiboaren paradigmen oinarrietako bat da (Argulló, 2001).


Adineko pertsonen %60,8k egunero egiteko dituzte ariketa fisikoko jarduerak. 65 eta 79 urte bitarteko adin-tartean, portzentajea %67,3koa da. Adin aurreratuko pertsonen –80 urte eta gehiago dituztenen– artean, portzentajea txikiagoa da, %47,8koa, baina datu hori, beste adin-tarteetan dagoena baino txikiagoa bada ere, oso handia da. Euskadiko 80 urteko eta gehiagoko pertsonen erdiek ariketa fisikoko jarduerak egunero egiteak argi eta garbi adierazten du pertsona horien osasun-egoera ona dela, kirolaren kultura bizi-estilo gisa oso orokortuta dagoela, eta gizarteak barneratu duela kirolak zer abantaila dituen adin guztietako pertsonentzat.

Besteak beste, Euskadiko adineko pertsonen jarduera hauek egiten dituzte: kirola egitea, ariketa fisikoa egitea, ibiltzea eta mendira joatea. Jarduera horiek oso hedatuta daude Euskadiko kulturaren, gazteen zein adinekoen artean. Oinarrizko tresna bat dira nork bere burua zaintzeko eta bizi-kalitatea sustatzeko.

Egunero, emakumeek baino gizon gehiagok egiten dute ariketa fisikoren bat (hurrenez hurren, %54,8 eta %68,2). Kirolaren kultura hedatuago egon da beti gizonen artean. Emakumeek gizonen baino jarduera fisiko eta kirol gutxiago egin izan dute eta egiten dute gaur egun. Hori ez da ez ustekabekoa ez bakana; izan ere, emakumeen parte-hartzea txikiagoa izan da tradizionalki publikotzat hartu diren esparruetan; hau da, lan-munduan, politikan, kulturaren eta abar, eta kirola esparru horietako bat da. Hala ere, 55 urteko eta gehiagoko emakumeen %83,6k jarduera horiek egiten dituztela adierazten dute, eta datu hori gizonen portzentajearen oso antzekoa da. Maiztasuna izan daiteke gizonen eta emakumeen arte alderik handiena, baina hau izan daiteke horren arrazoia: oro har, emakumeek denbora gutxiago dute ariketa fisikoa egiteko.

Bestalde, osasun-egoerak eragin handia du; jakina, osasun-egoera subjektibo ona duten pertsona gehienek egiten dituzte kirol-jarduerak. Hala ere, osasun-egoera txarra duten adineko askok egunero ariketa fisikoa egiten jarraitzen dute (%40,9). Gauza bera gertatzen da laguntza-beharraren aldagaiari dagokionez. Orobat, zuzeneko lotura ikusi da heziketa-mailaren eta ariketa fisikoaren artean, baina, egia esan, ariketa fisikoa egiten duten pertsonen portzentajeak handiak dira kasu guztietan.

Jarduera fisikoak edo kirol-jarduerak egiten dituzten pertsonak adinaren arabera




Jarduera fisikoak edo kirol-jarduerak egiten dituzten pertsonak

	EGUNERO	ASTERO	HILERO	GUTXIAGOTAN	INOIZ EZ
55 urte eta gehiago	60,8	17,2	2,1	7,0	12,8
65 urte eta gehiago	61,1	13,9	2,0	7,4	15,4
Sexua					
Gizona	68,2	15,5	1,6	6,1	8,4
Emakumea	54,8	18,5	2,6	7,7	16,3
Adina					
55-64	60,3	22,2	2,4	6,3	8,7
65-79	67,3	14,1	2,4	5,5	10,5
80 urte eta gehiago	47,8	13,6	1,1	11,7	25,8
Osasun-egoera					
Oso ona + Ona	70,5	17,1	2,2	4,1	6,1
Hala-holakoa	55,6	19,2	2,3	9,9	12,7
Oso txarra + Txarra	40,9	15,1	3,3	12,5	28,1
Laguntza-beharra					
Behar du	37,7	15,3	1,8	13,7	31,5
Ez du behar	66,6	17,6	2,2	5,3	8,1
Ikasketak					
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	57,3	16,3	2,2	9,8	14,3
Lehen mailako ikasketak	58,4	18,5	1,7	6,8	14,4
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	66,7	16,8	2,4	4,4	9,5

Maiztasun gutxirekin egiten dituztela edo inoiz egiten ez dituztela adierazten duten pertsonen (%19,8) hau galdetu zitzaien: ea maizago egin nahiko lituzketen edo jarduerarik egin nahiko luketen. Pertsona horien %26,1ek gustatuko litzaiekeela erantzun zuten. Emakumeen %28,5ek eta gizonen %23,1ek, hain zuzen. Horrelako jarduerarik ez egiteko

edo maiztasun gutxirekin egiteko arrazoi hauek nabarmentzen dituzte: osasun txarra eta denborarik eza. Batik bat, emakumeek adierazten dituzte arrazoi horiek, gizonek baino gehiago. Pertsonarik gazteenen arrazoi nagusia denborarik eza da, eta zaharrenena, berriz, osasuna.

Jarduera fisikoa edo kirol jarduera adinaren arabera



Jarduera fisikoak edo kirol-jarduerak: egin nahiko lituzketen edo maizago egin nahiko lituzketen pertsonak, eta ez egiteko arrazoiak

	EGIN NAHIKO LITUZKETE/ MAIZAGO	EZ EGITEKO ARRAZOIAK		
		OSASUNA	DENBORA-EZA	BESTE BATZUK
55 urte eta gehiago	26,1	47,2	38,0	22,0
65 urte eta gehiago	24,6	65,4	19,9	21,6
Sexua				
Gizona	23,1	43,6	36,8	26,0
Emakumea	28,5	49,6	38,7	19,4
Adina				
55-64	28,4	24,1	60,9	22,5
65-79	22,6	52,8	29,4	26,7
80 urte eta gehiago	30,3	91,9	0,0	10,7
Osasun-egoera				
Oso ona + Ona	18,5	12,5	66,3	28,4
Hala-holakoa	32,8	65,6	20,8	20,8
Oso txarra + Txarra	51,3	84,8	12,5	9,6
Laguntza-beharra				
Behar du	49,8	89,6	6,7	8,6
Ez du behar	21,8	29,5	51,0	27,5
Ikasketak				
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	29,7	65,4	24,8	18,6
Lehen mailako ikasketak	25,7	45,8	40,9	20,4
Bigarren mailako eta goi-mailakoak	23,4	27,8	50,1	27,4

Oro har, gizartea ados dago ariketa fisikoa adineko pertsonen aintzat har dezaketen prebentzio-neurririk garrantzitsua dela (Ruipérez, 2000). OMEk hain bat gomendio egiten ditu zahartze aktibo eta osasungarria izateko, eta haietako bat zahartzaroaren aurretik eta zahartzaroan ariketa fisikoa egitea da. Neurritzko jardura fisikoetan aldian behin parte hartuz, adinekoek gainbehera funtzionala atzeratu eta gaixotasun kronikoak izateko arriskua txikitu dezakete, bai osasuntsu daudenean, bai gaixotasun kronikoak dituztenean.


5.6.2.2 Jarduera sedentarioak

Hauek dira ikerketa honetan kontuan hartu diren jardura sedentarioak: telebista ikustea, irratia entzutea, irakurtzea... Egiteko ahalegin fisikorik behar ez duten eta etxe barruan egin daitezkeen jarduerak dira.

55 urteko eta gehiagoko ia pertsona guztiek egunero egiten dituzte jardura horiek. Gainera, ez dago alde nabarmenik adinaren, sexuaren, osasun-egoeraren edo heziketa-mailaren arabera. Bestalde, adin guztietako biztanleek egiten dituzte jardura horiek. Esaterako, ia biztanle guztiek masiboki kontsumitzen dituzte hedabideak.

Hedabideak kontsumitzen dituzten pertsona guztientzat (edozein dela haien adina, sexua, gizarte-maila edo beste edozein estatus-ezaugarri), kazetaritza-produktu gisa aukeratutako egunkariak, telebista-kateak edo irratiak hau du helburu nagusi eta oinarritzko: bizi diren munduaren zati direla sentiaraztea, bakarrik ez daudela sinestaraztea, komunitateko kide aktiboak direla (García, 2005).

Jardura sedentarioak, maiztasuna




5.6.2.3 Aisiako etxeko jarduerak

Hauek dira galde-sortan sartutako jarduerak: baratza edo lorategia zaintzea, esku-lanak, brikolajea, puntua, kakorraz-lana... Jardura horiek guztiak lanarekin eta etxeko bizimoduarekin daude lotuta, nolabait.

55 urteko eta gehiagoko biztanleen erdiek jardura horiek egiten dituzte aldian behin. Emakumeek gizonen baino gehiago egiten dituzte; izan ere, lotura handiagoa dute etxeko bizitzarekin, bai eta, beraz, etxean egiten diren aisiako jardurekin ere.

Aisiako etxeko jarduerak adinaren arabera




Aisiako etxeko jarduerak egiten dituzten pertsonak

	EGUNERO	ASTERO	HILERO	GUTXIAGOTAN	INOIZ EZ
55 urte eta gehiago	19,0	14,3	4,7	11,8	49,8
65 urte eta gehiago	19,5	12,0	3,7	11,3	53,0
Sexua					
Gizona	16,0	13,6	4,6	9,0	56,5
Emakumea	21,4	14,9	4,7	14,1	44,3
Adina					
55-64	18,1	18,1	6,2	12,6	44,7
65-79	21,3	13,0	3,9	12,2	49,1
80 urte eta gehiago	15,7	9,7	3,3	9,4	61,5
Osasun-egoera					
Oso ona + Ona	20,6	15,1	5,7	11,9	46,4
Hala-holako	16,5	14,7	4,2	13,0	50,9
Oso txarra + Txarra	18,6	8,9	2,0	11,8	58,7
Laguntza-beharra					
Behar du	13,8	8,5	3,3	9,6	64,2
Ez du behar	20,3	15,8	5,0	12,4	46,1
Ikasketak					
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	16,2	13,0	2,7	13,6	54,3
Lehen mailako ikasketak	21,2	12,0	5,1	12,1	49,0
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	19,5	18,1	6,2	9,6	46,2

%14,6ri jarduera horiek egitea gustatuko litzaieke, edo maizago egitea. Emakumeen portzentajea handiagoa da gizonena baino (hurrenez hurren, %17,2 eta %11,4). Ariketa fisikoko jardueren kasuan bezala, hauek dira jarduera horiek ez egiteko edo nahi baino maiztasun txikiagoarekin egiteko arrazoiak: osasuna eta denborarik eza. Osasuna da arrazoi nagusia pertsona zaharrentzat, adin osasun-egoerarik txarra dutenentzat eta eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza behar dutenentzat; denborarik eza, berriz, pertsona gazteentzat eta osasun ona dutenentzat.

Seguruenik, 55 eta 64 urte bitarteko adin-tarteko pertsonak lanean egongo dira, eta gainera, zaintza-karga gehien izango dituzte. Beraz, denbora gutxiago izango dute aisiako jarduerak egiteko.

Aisiako etxeko jarduerak: egiteko arrazoiak adinaren arabera



Aisiako etxeko jarduerak: egin nahiko lituzketen edo maizago egin nahiko lituzketen pertsonak, eta ez egiteko arrazoiak

	EGIN NAHIKO LITUZKETE/ MAIZAGO	EZ EGITEKO ARRAZOIAK		
		OSASUNA	DENBORA-EZA	BESTE BATZUK
55 urte eta gehiago	14,6	32,4	47,0	25,8
65 urte eta gehiago	13,6	49,4	29,8	25,0
Sexua				
Gizona	11,4	22,8	44,4	37,9
Emakumea	17,2	37,4	48,3	19,6
Adina				
55-64	16,1	11,4	68,3	26,9
65-79	13,3	37,7	38,4	29,7
80 urte eta gehiago	14,4	79,9	7,5	12,6
Osasun-egoera				
Oso ona + Ona	11,7	9,6	67,2	28,3
Hala-holakoa	15,7	39,7	38,2	28,5
Oso txarra + Txarra	30,1	75,8	13,0	14,3
Laguntza-beharra				
Behar du	22,5	80,2	11,3	13,5
Ez du behar	13,2	17,6	58,0	29,6
Ikasketak				
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	14,8	43,9	34,1	22,1
Lehen mailako ikasketak	16,5	32,7	44,4	30,9
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	12,9	20,1	63,6	23,8

5.6.2.4 Kultura-jarduerak

Kultura-jardueren artean, zinema, antzerkia, erakusketak eta hitzaldiak daude, besteak beste.

Kultura-ohiturak ezaugarri sozialen eta bizitza-historiaren arabekoak dira. Heziketa-mailak, ekonomia- eta gizarte-mailak, eta bizitza osoan zehar barneratutako ohiturek zuzeneko eragina dute gaur egungo kultura-konsumoan (Barrio, Sancho eta Yanguas 2011)

55 urte eta gehiago dituzten pertsonen erdiek baino gehiagok –eta 65 urteko eta gehiagoko %63,8k– onartzen dute ez dutela inoiz horrelako jarduerarik egiten. Adinik aurreratueneko (80 eta gehiago) pertsonen %83,8k adierazten dute ez dutela kultura-jarduerarik egiten, eta oso gutxi (%15) esaten dute egin nahiko lituzketela.


Adinekoen belaunaldi horiek gazteak eta helduak zirenean, kultura bigarren mailan zegoen. Gerra zibila, krisi ekonomikoa eta lanaldi luzea tarteko, kultura-jarduerak gizarte-maila handiagoko pertsonen eskura zeuden bereziki. Horrez gain profil sozioekonomikoa kontuan hartuta, oso gutxi hartzen zuten parte kultura-jardueretan. Aldagai hori heziketa-mailarekin alderatuta ondoriozta dezakegu: bigarren mailako eta goi-mailako ikasketak dituzten 10 pertsonatik hiruk soilik adierazten dute ez dituztela jarduera horiek egiten.

Bestalde, ez dago emakumeen eta gizonen arteko alderik kultura-jarduerari dagokienez.

Kultura-jarduerak egiten dituzten pertsonak

	ASTERO	HILERO	GUTXIAGOTAN	INOIZ EZ
55 urte eta gehiago	6,1	11,5	28,8	53,0
65 urte eta gehiago	4,5	7,4	23,5	63,8
Sexua				
Gizona	6,3	11,3	26,9	55,1
Emakumea	6,0	11,6	30,4	51,3
Adina				
55-64	8,6	17,8	37,0	36,3
65-79	6,0	9,6	29,1	54,6
80 urte eta gehiago	1,4	2,8	11,3	83,8
Osasun-egoera				
Oso ona + Ona	8,0	17,0	35,3	39,2
Hala-holakoa	5,6	6,5	24,9	62,1
Oso txarra + Txarra	2,9	1,9	19,6	75,5
Laguntza-beharra				
Behar du	2,1	3,1	10,6	83,7
Ez du behar	7,2	13,6	33,4	45,3
Ikasketak				
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	2,6	3,3	23,1	70,5
Lehen mailako ikasketak	5,0	8,7	27,4	58,4
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	10,7	22,4	36,1	30,3

Kultur jarduerak adinaren arabera




55 urteko eta gehiagoko lau pertsonatik batek kultura-jarduerak egin edo maizago egin nahiko lituzke. Kultura-jarduerak egiten ez dituzten pertsonen %31,2ren ustez, prezioa da ez egiteko arrazoi nagusia. Antzeko kopuruak adierazten du denborarik eza dela arrazoi nagusia. Osasun txarra, 80 urte beteak dituzten pertsonen arrazoi nagusia da. Baita ere, kultura-eskaintzarik ez dagoela azpimarratzen dute.

Kultura-jarduerak: egin nahiko lituzketen edo maizago egin nahiko lituzketen pertsonak, eta ez egiteko arrazoiak

	EGIN NAHIKO LITUZKETE/ MAIZAGO	EZ EGITEKO ARRAZIOIAK				
		OSASUNA	PREZIOA	EZ DAGO ESKAINTZARIK	DENBORA-EZA	BESTELAKOAK
55 urte eta gehiago	25,1	11,8	31,2	9,4	30,7	30,4
65 urte eta gehiago	20,6	18,8	29,5	9,7	19,1	33,1
Sexua						
Gizona	19,0	11,1	27,3	8,5	32,7	30,9
Emakumea	29,8	12,1	33,1	10,0	29,7	30,1
Adina						
55-64	31,6	5,1	32,8	9,2	41,7	27,8
65-79	22,3	12,1	29,9	8,7	23,8	37,1
80 urte eta gehiago	15,6	46,2	27,8	13,9	0,0	16,6
Osasun-egoera						
Oso ona + Ona	25,5	0,7	30,1	13,5	38,6	31,6
Hala-holakoa	23,3	20,9	33,4	3,8	20,5	33,6
Oso txarra + Txarra	28,0	49,6	29,4	3,4	15,8	13,9
Laguntza-beharra						
Behar du	22,3	51,2	30,3	6,2	9,0	17,6
Ez du behar	25,6	5,6	31,3	10,0	34,1	32,4
Ikasketak						
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	18,1	20,9	27,0	6,6	23,8	26,9
Lehen mailako ikasketak	28,7	10,9	35,1	9,6	26,7	37,8
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	28,1	7,3	29,9	10,9	38,5	25,4

Kultura-jarduerak: ez egiteko arrazoiak adinaren arabera



5.6.2.5 Bizitza sozialeko jarduerak

Bizitza sozialeko jarduerak gizarte-interakziokoak dira: bazkaltzera edo afaltzera joatea, lagunekin egotea, tabernara edo kafetegira joatea, dantzan egitera joatea, klubera edo adinekoen zentrora joatea, etab. Alegia, beste pertsona batzuekin batera egiten diren aisiako jarduerak, helburu nagusi interakzioa dutenak.

Horrelako jardueretan, harreman sozialak dira funtsezkoak. Harremanen bitartez, pertsonak laguntza, afektua eta autoafirmazio pertsonala lortzen dute, eta harreman horien kantitateak eta kalitateak bi ondorio dituzte bereziki: eragin ona dute pertsonen funtzionamendu sozialean, eta zahartzaroan autoestimuari eusten lagundu eta galeren efektua arintzeko funtzioa izan dezakete (Díaz-Veiga, 1987, in Yanguas Lezaun, 2006).

55 urteko eta gehiagoko pertsonen %82,4k, aldi berean egiten dituzte jarduerak horiek; %21,7k egunero egiten dituzte; %31,6k astean behin; eta %11k hilean behin. Beraz, biztanle gehienek egiten dituzte jarduerak horiek, eta gainera, maiztasun handiz.

Dena den, sexu eta adin aldeak daude. Jarduerak horiek emakumeek zein gizonak egiten badituzte ere, gizonak maizago egiten dituzte emakumeek baino. Gizonak etxeko esparruaren ordezkotzat gune gehiago bilatzen dituzte, genero-arau tradizionalak –emakumeak kulturalki etxearekin eta gizonak beste esparru batzuekin lotzen dituztenak– luzatuz. Edonola ere, emakume gehienek egiten dituzte jarduerak horiek. Badirudi adineko emakumeek aisiaren zati hori konkistatu dutela.

Emakumeek beren aisialdiko esparrua konkistatzea da emakumeak etxeko esparrutik bereizita duen identitateari zentzua eman diezaiokeen bide bakarra (Rincón, 1995).


Gizonak fase desberdinetan egituratzen dute beren denbora, baina emakumeek ezin dituzte bereizi; haien zentzuan, beren lanak continuum bat dira. Emakumeek asteburu eta oporretan ere lan egin behar izaten dute, familia zaindu eta hartaz arduratzen baitira. Emakumeen denboraren antolaketa biribila da, eta hori dela eta, etxetik kanpo lan egiten badute ere, ez dute aisialdiztat egituratu daitekeen denbora-tarterik (Rincón, 1995).

Tradizionalki, aisialdia gizonen eskubidetzat hartu izan da. Gizona lan-merkatuaren barruko lan ordainduarekin zegoen lotuta, eta emakumea, berriz, etxeko lanarekin. Etxeko lana ordaindu gabea eta ikusezina zen, eta duela gutxira arte, ez da lantzat hartu ere egin. Azkenean, lortu egin zen; alde batetik, emakumeen aldarrikapenen ondorioz, eta beste batetik, etxeko lanen baliagarritasunari eta balio ekonomikoari buruzko ikerketei esker. Hori guztia kontuan hartuta, gizona erlazionatu ohi da aisialdiaren erabilerarekin, eta ez emakumea. Emakumea lan-esparruan sartu zenean eta gizarte-egitura aldatu zenean, bidea pixkanaka ireki da emakumeentzat, eta gaur egun, emakumeek aisialdiaz gozatzeko eskubidea dutela guztiz onartuta dago. Egun, adineko emakumeak aisialdi hori aldarrikatzen ari dira. Zalantzarik gabe, esparru horietako bat etxetik kanpoko bizitza sozialaren konkista da. Kaleetan, tabernetan, terrazetan, parkeetan eta abarretan hiri eta herrietako esparru publikoetan gozatzeko ikus daitezkeen adineko emakumeen taldeek argi eta garbi adierazten dute.

Jarduera sozialak egiten dituzten pertsonak

	EGUNERO	ASTERO	HILERO	GUTXIAGOTAN	INOIZ EZ
55 urte eta gehiago	21,7	31,6	11,0	18,1	17,3
65 urte eta gehiago	22,6	26,0	9,4	18,6	23,0
Sexua					
Gizona	28,3	31,3	9,8	16,2	14,1
Emakumea	16,3	31,9	11,9	19,7	19,9
Adina					
55-64	20,1	40,3	13,5	17,3	8,4
65-79	26,2	30,6	9,7	18,0	15,1
80 urte eta gehiago	14,8	16,1	8,7	20,0	40,4
Osasun-egoera					
Oso ona + Ona	24,0	37,0	12,1	18,0	8,6
Hala-holakoa	20,9	29,5	9,1	20,7	19,5
Oso txarra + Txarra	13,4	15,4	11,2	19,8	40,3
Laguntza-beharra					
Behar du	15,6	19,1	9,0	16,2	40,1
Ez du behar	23,2	34,8	11,5	18,6	11,6

Jarduera sozialak adinaren arabera




Gainerako jardueretan bezala, bizitza sozialeko jarduera gutxiago egiten dira adina handitzen den neurrian. M. T. Bazoren (2001) arabera, hautaketa-prozesu bat eta aldaketetara egokitzeko prozesu bat egiten ditugu bizitza osoan zehar, eta horren ondorio da adina handitu ahala jarduera-kopurua txikitzea. Schaie eta Willis-ek (2003) prozesu horiek gertatzeko moduak azaltzen dituzte. Azalpen horiek lehen aipaturiko jardueraren teoria zein desloturaren teoria (disengagement) ezeztatzen dituzte. Jardueraren teoriaren arabera, jardueren eta harreman sozialen kopurua txikitzea zahartzaroaren definizioa zehazten duten arau sozialen ondorio da. Desloturaren teoriari dagokionez, zahartzen diren pertsonak gizartetik urruntzeko prozesuaren ondorio da; azken batean, desagerpen biologikoaren hurbiltasunaren ondorio. Hala ere, erlatibitate emozionalaren teoriak adierazten duenaren arabera, jarduerak eta harremanak gutxitzea adineko pertsonen baliabideak birbanatzeko estrategia aktibo baten ondorio da. Bestalde, aurre-egitearen teoriak aldaketekiko zenbait estrategia bereizten ditu: asimilatiboak eta moldakorak. Estrategia asimilatiboan helburua galerak prebenitzea da, eta bizitzan zehar nahi gabeko aldaketak gertatzen diren heinean, jarduera batzuen ordez errazago egiten diren beste batzuk egin daitezkeela adierazten du. Estrategia moldakorrek, jarduerak ordezteaz gain, xedeak eta itxaropenak birdoitu behar direla esaten dute, baliabide pertsonaletan eta gaitasun funtzionaletan gertatutako aldaketei aurre egiteko. Azkenik, Baltes-en hautaketa, optimizazio eta konpentsazioaren teoriaren arabera, estrategia horiek mugatuta daude; izan ere, bizitzako etapa guztietan gertatzen dira aldaketak, eta horien ondorioz, galera eta irabazi psikologikoak daude, baina, zahartzaroan, balantzea nabarmen desorekatzen da, eta irabaziek ezin dituzte gertatzen diren galerak konpentsatu (Schaie eta Willis, 2003, in Pérez Ortiz, 2006).

Bizitza sozialeko jarduerari dagokionez, adina handitzen den heinean gero eta pertsona gutxiagok egiten dituzte; hain zuzen, 80 urte eta gehiago dituzten pertsonen %40,4k ez dituzte inoiz egiten. 55 eta 64 urte bitarteko pertsonen artean, portzentaje hori %8,4koa da.

Bestalde, bizitza sozialeko jarduerarik egiten ez duten edo maiztasun txikiarekin egiten dituzten pertsonen %22,8ri egitea gustatuko litzaieke. Aurreko atalean bezala, denborarik eza, prezioa eta osasun txarra dira jarduera horiek maiztasun txikiarekin egiteko arrazoi nagusiak. Prezioa eta denbora-eza pertsonarik gazteenen arrazoi nagusiak dira. Lehenago bezala, osasuna da 80 urte beteak dituzten pertsonena.

Bizitza soziala: ez egiteko arrazoiak adinaren arabera



Bizitza sozialeko jarduerak: egin nahiko lituzketen edo maizago egin nahiko lituzketen pertsonak, eta ez egiteko arrazoiak

	EGIN NAHIKO LITUZKETE/ MAIZAGO	EZ EGITEKO ARRAZIOAK			
		OSASUNA	PREZIOA	DENBORA-EZA	BESTE BATZUK
55 urte eta gehiago	22,8	21,4	28,6	29,9	31,0
65 urte eta gehiago	21,0	32,7	22,8	19,9	34,2
Sexua					
Gizona	20,3	24,7	25,0	27,4	35,0
Emakumea	24,7	19,2	30,9	31,5	28,5
Adina					
55-64	25,5	7,6	35,6	42,1	27,3
65-79	21,4	22,9	26,1	24,3	37,0
80 urte eta gehiago	19,7	62,9	12,6	6,2	25,4
Osasun-egoera					
Oso ona + Ona	19,6	1,9	32,6	39,5	33,6
Hala-holakoa	25,4	30,6	26,5	24,1	35,0
Oso txarra + Txarra	33,4	69,8	18,4	10,3	10,1
Laguntza-beharra					
Behar du	31,4	66,6	24,9	7,4	16,2
Ez du behar	21,2	9,1	29,6	36,0	35,1
Ikasketak					
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	26,1	33,7	19,9	24,3	31,1
Lehen mailako ikasketak	24,7	14,5	33,0	23,4	39,1
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	18,0	14,0	34,5	45,9	20,1

Jarduera horiek portzentajerik handienetan egin nahi dituzten pertsonak hauek dira: emakumeak, pertsonarik gazteenak eta osasun-egoera txarra duten pertsonak.


5.6.2.6 Turismoa, bidaiak eta irteerak

Aisia- eta turismo-jarduerak jarduera sozialak dira bereziki; haien bidez, pertsonak beren bizi-premiak asetzen dituzte. Atal honetan, zenbait alderdi edo osagai nagusi bereiz daitezke: bizilekuaz bestelako leku batera joatea/lekualdatzea, aisia-mota bat, aurkikuntza, ingurumenarekiko interakzioa, esperientzia, tenporaltasuna, kultura arteko harremana eta ekonomia. Halaber, turismo-esperientzian, interakzio sozialeko prozesuak gertatzen dira, turismo-jarduerak turistengan edota tokiko biztanleriarengan dituen efektuen ondorioz (Marín, 2006).

Bidaiatzea baldintza sozial eta kulturalen emaitza da, besteak beste; hori dela eta, ondoriozta daiteke bidaiatzea gizarte aurreratuetan gertatzen ari den aldaketa sozial baten isla dela, eta beraz, bidaiatzen duten pertsonen kopuruak gora egingo duela. Horrenbestez, esan dezakegu bidaiaren fenomenoak zuzenean lotuta dagoela gaur egungo gizarteko bizi-baldintza berriekin (Marín, 2006).

Inkestaren datuei erreparatuta, 55 urteko eta gehiagoko 10 pertsonatik seik bidaiak, irteerak eta turismo-jarduerak egiten dituzte. Pertsonarik gazteenak dira jarduera horiek gehien egiten dituztenak (%74,8). 80 urte eta gehiago dituzten pertsonak dagokienez, askoz txikiagoa da portzentajea; hain zuzen ere, %27,1ek soilik adierazten dute horrelako jarduerak egiten dituztela. Beste aldagai batzuk ere daude jarduera horiekin lotuta: sexua, osasun-egoera, laguntza-beharra eta heziketa-maila. Profil nagusia honako hau da: gizonak, osasun-egoera ona dutenak, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntzarik behar ez dutenak, eta bigarren edo goi-mailako ikasketak dituztenak.

Bidaia eta irteerak egiten dituen pertsonen portzentaia, adinaren arabera



Bidaiak, irteerak edo turismo-jarduerak egiten dituzten pertsonak


	EGITEN DITU	INOIZ EZ
55 urte eta gehiago	60,7	38,9
65 urte eta gehiago	51,7	47,9
Sexua		
Gizona	65,4	34,1
Emakumea	56,9	42,8
Adina		
55-64	74,8	24,8
65-79	63,0	36,4
80 urte eta gehiago	27,1	72,9
Osasun-egoera		
Oso ona + Ona	73,9	25,7
Hala-holakoa	52,3	47,3
Oso txarra + Txarra	37,0	62,5
Laguntza-beharra		
Behar du	29,6	70,2
Ez du behar	68,6	31,0
Ikasketak		
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	46,9	52,9
Lehen mailako ikasketak	57,9	41,5
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	77,4	22,2

Hori da pertsona gehienek (%40,6) gustura egingo luketen edo maizago egingo luketen jarduera. Ez egiteko edo nahi adina aldiz ez egiteko arrazoiaren artean, prezioa, denborarik eza eta osasuna nabarmentzen dira, baina badago garrantzi estatistikoa duen beste arrazoi bat ere: konpainia, bidaidea, alegia. Jarduera horiek egiteko bidaideren batekin joan beharra 80 urteko eta gehiagoko pertsonen artean da handiagoa. Hala ere, adin-tarte horretako pertsonen arrazoi nagusia osasun-egoera da. Belaunaldi gazteetako pertsonentzat, prezioa da arrazoi nagusia, eta gero, denbora-eza.

Turismoa, bidaiak eta irteerak: egin nahiko lituzketen edo maizago egin nahiko lituzketen pertsonak, eta ez egiteko arrazoiak

	EGIN NAHIKO LITUZKETE/ MAIZAGO	EZ EGITEKO ARRAZIOIAK				
		OSASUNA	KONPAINIA	PREZIOA	DENBO- RA-EZA	BESTE BATZUK
55 urte eta gehiago	40,6	18,5	8,2	37,0	27,6	25,3
65 urte eta gehiago	34,5	30,4	11,9	27,3	15,3	27,5
Sexua						
Gizona	40,9	17,2	7,8	35,6	28,1	27,0
Emakumea	40,4	19,5	8,5	38,1	27,2	24,0
Adina						
55-64	49,7	6,3	4,5	46,8	40,2	23,1
65-79	35,8	21,8	10,5	32,3	19,9	29,7
80 urte eta gehiago	30,7	58,8	16,2	11,0	0,0	20,4

Irteerak ez egitearen arrazoiak, adinaren arabera



Estatuko eta EAEko adineko pertsonentzat, turismoaren esparrua oso garrantzitsua da, Imsersori eta antzeko programei esker. Horrelako programak eredu bihurtu dira beste herrialde batzuentzat. Belaunaldi horien artean turismoa organismo publikoen bidez sustatzeari esker, aisia-mota horretara hurbildu dira adineko pertsonak; izan ere, haietako gehienek ez zuten bidaiatzea aisiatzat hartzen. Egun, adineko pertsonen belaunaldi berriak profil horretatik urrun samar daude, Espainiako eta Euskadiko turismo-gorakadaren goiena bizi izan zuten turistak erretiroa hartzen hasi baitira. Haien bizitzan, bidaiak oso garrantzitsuak izan dira. Etorkizun hurbilean, turismoaren sektorean teknologia berriei eta kostu txikiko konpainiei esker izandako iraultza bizi izan duten belaunaldiak hartuko dute erretiroa. Labur-labur, etorkizuneko adinekoek turismo-esperezentzia handia izango dute, eta oso bestelako lotura izango dute aisia-mota horrekin.


5.6.2.7 Erljio-jarduerak

Erljio-ospakizunetara joatea aisia-jardueratzat hartu ohi da, pertsonak etxetik irten eta beste pertsona batzuekin harremanetan baitaude. Adinik handieneko belaunaldientzat eta emakumeentzat, oso garrantzitsua izan da eta da, oraindik ere.

Adina handitu ahala biztanleriaren portzentajea handitzen duen jarduera bakarra da. 80 urte eta gehiago dituzten pertsonak gehiago hartzen dute parte gazteagoek baino, eta emakumeek, gizonak baino. Etxetik kanpoko jardueretatik, hori da adineko emakumeen artean hedatuena, eta oso garrantzitsua da emakume zaharrenentzat (%63,9k hartzen dute parte jarduera horietan).

Jarduera horiek erlijiozaletasun-mailarekin daude lotuta. Dirudienez, lotura nabarmena dago erlijiozaletasun-mailaren eta adinaren artean; hau da, adina handitzen den heinean, erlijio jakin baten aldekoak diren pertsonen portzentajeak gora egiten du. Baina pertsonaren bizitzaren etapak ez du haren erlijio-joera zehazten. Ez da gizakien bizi-zikloaren zati bat: zenbat eta zaharragoa izan pertsona bat, orduan eta fededunagoa da. Izan ere, kultura-aldaketa zabal eta orokor baten ondorio da. Lehen, erlijioa oso garrantzitsua zen pertsonen eguneroko bizitzan. Eliza tokiko gai guztien erdian zegoen, eta eragin handia zuen familia-bizitzan eta bizitza pribatuan. Adineko pertsonen eta gazteen arteko belaunaldi-aldaketak batzuek eta besteek aldarrikatutako balioak aldatzea ekarri du, eta nagusiki tradizionalak ziren balioen orde, balio modernoak ari dira gailentzen (Barrio, Sancho eta Yanguas 2011).

Erljio-ospakizunetara doazen pertsonak adinaren arabera



Erljio-ospakizunetara doazen pertsonak

	ASTERO	HILERO	GUTXIAGOTAN	INOIZ EZ
55 urte eta gehiago	22,9	5,9	26,8	43,9
65 urte eta gehiago	30,5	7,5	23,7	37,7
Sexua				
Gizona	15,6	4,5	26,8	52,3
Emakumea	28,7	7,0	26,8	37,1
Adina				
55-64	10,9	3,3	31,7	53,4
65-79	28,1	7,2	26,5	37,4
80 urte eta gehiago	35,9	8,2	17,4	38,5
Osasun-egoera				
Oso ona + Ona	22,3	5,4	28,9	42,7
Hala-holakoa	27,8	5,8	27,4	38,5
Oso txarra + Txarra	18,3	7,9	20,3	52,6
Laguntza-beharra				
Behar du	24,3	7,5	19,7	48,2
Ez du behar	22,5	5,5	28,6	42,8
Ikasketak				
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	23,5	7,9	30,6	37,7
Lehen mailako ikasketak	26,8	5,3	23,0	43,9
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	18,4	4,3	26,8	50,0

Jarduera horietan parte hartzen ez duten edo gutxitan parte hartzen duten pertsonen %5ek adierazten dute parte hartzea gustuko izango luketela. Dirudienez, biztanle gehienek nahi adina aldiz egiten dute jarduera hori, eta hortaz, egin ezin duten pertsonen portzentajea oso txikia da.

5.6.2.8 Interneten erabilera


Adineko pertsonak gero eta gehiago erabiltzen dituzte teknologia berriak beren eguneroko bizitzan, eta horren ondorioz, haien bizi-kalitatea, osasuna eta autonomia hobetu egiten dira. Halaber, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek (IKT) aukera ematen dute adineko pertsonak lanean aktibo jarraitzeko eta beren komunitatean parte hartzen jarraitzeko. Azken urteetan, administrazio publikoek IKTen erabilera bultzatu dute. Prozesu horretan, berariazko arreta jarri dute adin handiagoko biztanleengan, teknologia horiek erabilia onura asko lor baititzakete.

55 urteko eta gehiagoko pertsonen %36,8k Internet erabili dute azken urtean. Etxebiztari eta ekipamenduari buruzko atalean azaldu dugunez, teknologia horien erabilera oso bestelakoa da belaunaldiaren arabera. Gazteen artean, 10etik seik erabiltzen dituzte, eta adin aurreratuako pertsonen artean, berriz, %7,4k; alegia, 100 pertsonatik zazpik. Hortaz, belaunaldien arteko eten digitala oso handia da. Beste aldagai batzuk ere daude jarduera horiekin lotuta: sexua, osasun-egoera, laguntza-beharra eta heziketa-maila. Oro har, hau da Internet gehien erabiltzen dituzten pertsonen profila gizonak, osasun ona dutenak, laguntzarik behar ez dutenak (adin txikiagoko pertsonen artean, ezaugarri horiek ere nagusitzen dira) eta heziketa-maila handikoak.

Internet erabiltzen duten pertsonak

	EGUNERO	ASTERO	HILERO	GUTXIAGOTAN	INOIZ EZ
55 urte eta gehiago	22,8	6,1	2,1	5,8	62,5
65 urte eta gehiago	12,6	3,6	1,5	3,9	77,9
Sexua					
Gizona	27,5	6,7	2,3	6,0	56,8
Emakumea	18,9	5,6	2,0	5,7	67,2
Adina					
55-64	38,7	10,1	3,2	8,8	38,5
65-79	16,9	4,4	1,6	5,1	71,4
80 urte eta gehiago	3,1	1,8	1,2	1,3	92,3
Osasun-egoera					
Oso ona + Ona	33,0	8,0	2,6	7,5	48,3
Hala-holakoa	11,7	4,5	1,8	4,9	76,2
Oso txarra + Txarra	10,8	5,5	1,0	3,9	78,8
Laguntza-beharra					
Behar du	5,1	2,2	1,3	3,5	87,9
Ez du behar	27,2	7,1	2,4	6,4	56,2
Ikasketak					
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	5,6	2,9	1,1	3,1	86,7
Lehen mailako ikasketak	11,6	6,3	2,2	7,8	71,3
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	50,7	9,1	3,1	6,8	29,9

Internet erabiltzen duten pertsonak adinaren arabera



Belaunaldien artean IKTen erabileran alde handia badago ere, teknologia berri horiek oso azkar sartu dira adineko pertsonen bizitzan. INEren inkestan ikus daitekeenez, Estatuan Interneten erabilera %5,1etik %26,2ra igaro da 2006tik 2014ra bitartean. Hau da, 2006ko datua halako bost handitu da. Informazioaren teknologia berriak oso azkar txertatzen ari dira adineko pertsonen eguneroko bizitzan. Teknologia horiek erabiltzeak bizi-kalitatea, osasuna eta autonomia hobetzea dakarte berekin.

Egoera: Azken hiru hilabeteetan ordenagailua eta Internet erabili dituzten pertsonen portzentajea, 2006 eta 2014

	ORDENAGAILUA		INTERNET	
	2006	2014	2006	2014
Pertsonak, guztira	53,4	73,3	47,3	76,2
55 eta 64 urte bitartean	23,3	54,2	18,1	55,4
65 eta 74 urte bitartean	7,5	25,8	5,1	26,2

Iturria: INE: INEBASE: Etxeko ekipamenduari eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien erabilerari buruzko inkesta, 2014.

5.6.2.9 Hezkuntza-jarduerak

Hezkuntza, etengabeko ikaskuntza, eta ezagutzen eta jarrerren garapena funtsezkoak dira, bai pertsonak garatzeko, bai gizartean parte hartzeko (EDE Fundazioa, 2013).

Duela gutxi, Europako Batzordeak etengabeko ikaskuntza lehentasunezko helburu politikotzat aldarrikatu du. Hezkuntzaren garrantzia onartu eta nabarmendu du, gizarte-partaidetzarako eta norberaren garapenerako beharrezko baldintza gisa: "ezagutzak, jarrerak eta gaitasunak etengabe lortzea eta eguneratzea behar-beharrezkoa da herritar

guztien garapen pertsonalerako eta gizartearen esparru guztietan parte har dezaten, herritar aktibo gisa zein lan-merkatuan” (Kailis, E. eta Pilos, S., 2005. “L'apprentissage tout au long de la vie en Europe”, Statistiques en bref. Population y Conditions Sociales 8/2005: 1. or.). Hain zuzen ere, egungo gizarte modernoetan, hezkuntza baliabide estrategikoetako bat da, banakako ekintzaren esparrua osatzen duten gizarte-ingurune konplexuetan moldatzeko. Nolabaiteko hezkuntza-maila behar da gizartean parte hartzeko moduak eta gizarteak gure eskura jartzen dituen kultura-baliabideak erabiltzeko. Dena den, hezkuntza ez da hezkuntza formala soilik, eta erakunde espezializatuak ez dira ezagutza- eta ikasketa-iturri bakarrak: lanak, gutxietsitako hedabideek, irakurketaren edo beste modu batzuen bidezko ikasketa pertsonalak edo bizitzako etapa batetik bestera igarotze hutsak ere prestakuntza eta informazioa ematen dizkigute (Pérez-Ortiz, 2006).

Azken urteetan, nabarmen handitu da adineko pertsonentzako prestakuntza-eskaintza (alfabetatzeko ikastaro eta tailerrak, teknologia berriei buruzko prestakuntza, askotariko ikastaro eta tailerrak, adineko pertsonentzako unibertsitate-programak, etab.). Horrek guztiak pertsonen zahartze aktiboa ahalbidetzen du, eta adineko pertsonen parte hartzeko aukera ematen die (EDE Fundazioa, 2013)

Hala ere, adineko pertsona gutxi hartzen dute parte hezkuntza-jardueretan. 55 urteko eta gehiagoko pertsonen %12,9 joan dira ikastaroren batera, unibertsitatera, eskoletara, etab. Kasu honetan ere, gazteenek gehiago hartzen dute parte zaharrenek baino (hurrenez hurren, %20,4 eta %2,6). IKTen erabileran bezala, sexuak, adinak, osasun-egoerak, laguntza-beharrak eta heziketa-mailak eragin handia dute hezkuntza jardueretan. Jarduera horiek portzentajerik handiengan egiten duten pertsonen profila hau da: gizonak, 55 eta 64 urte bitartekoak, osasun-egoera onekoak, laguntza beharrik ez dutenak eta heziketa-maila handikoak.

Jarduera horiek egiten ez dituzten edo gutxitan egiten dituzten pertsonen %6,1ek soilik adierazten dute egin nahiko lituzketela.

EDE Fundazioaren ikerketaren (2013) arabera, 2011n Euskadiko 65 urteko eta gehiagoko pertsonen ia erdiek (%48) “bizitza osoko ikaskuntza” terminoa entzuna zeukaten. Badirudi azken urteetan prestakuntza gero eta garrantzitsuagoa dela EAeko adineko pertsonentzat; hala ere, kolektibo horrek beste adin-talde batzuek baino nabarmen gutxiago hartzen du parte prestakuntza-jardueretan.

Hezkuntza-jarduerak egiten dituzten pertsonak

	EGITEN DITU	INOIZ EZ
55 urte eta gehiago	12,9	87,1
65 urte eta gehiago	8,1	91,9
Sexua		
Gizona	11,9	88,1
Emakumea	13,7	86,3
Adina		
55-64	20,4	79,6
65-79	10,6	89,4
80 urte eta gehiago	2,6	97,4
Osasun-egoera		
Oso ona + Ona	17,5	82,5
Hala-holakoa	8,2	91,8
Oso txarra + Txarra	9,4	90,6
Laguntza-beharra		
Behar du	4,4	95,6
Ez du behar	15,1	84,9
Ikasketak		
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	4,0	96,0
Lehen mailako ikasketak	11,3	88,7
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	23,4	76,6

5.6.2.10 Gizartean parte hartzeko jarduerak

Boluntariotzako eta gizartean parte hartzeko jarduerak ordaindu gabeko jardueren (lana ere izan litezkeelako), aisiako jardueren (borondatez aukeratzen direlako eta eginbeharren osteko aisialdia hartzen dutelako) eta jarduera sozialen (familia-esparrutik kanpo egiten direlako) artean daude (Barrio, 2007).

Gaur egun, erretiroak ez dakar gizarte-bazterketa berekin; izan ere, jarduera sozialez betetako aldi bat da, eta horretan, pertsonak baliagarriak sentitu beharra dute (Pérez Ortiz, 2006). Díaz Casanovak (1995) proposatzen duenez, erretiroa zerbitzutzat har liteke, jubilatutako guztiek elkartasunez joka baitezakete, une jakin bateko gizarte-eskariei erantzuteko jardueren bidez.

Inkestan jasotako informazioaren arabera, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen %18,7k borondatezko lanak egiten dituzte zenbait elkarte-motatan. Hona hemen zenbait adibide: gizarte eta komunitatearentzako zerbitzuak (esaterako, adinekoei, gazteei, ezgaituei eta behar bereziak dituzten kolektiboek laguntzen dietenak); hezkuntza, kultura, kirol, lanbide, gastronomia, koru eta literatura elkarteak; gizarte-mugimenduak (adibidez, ingurumena eta giza eskubideak) edo ongintzazkoak (funtsen bilketa, kanpainak); alderdi politikoak edo sindikatuak; eta parrokia-taldeak (esate baterako, katekesia eta kofradiak). Portzentajeak honela daude banatuta: %5,2k gizarte-erakundeetan hartzen dute parte; %6,9k

elkarteetan; %3,9k gizarte-mugimenduetan; %2,0k alderdi politikoetan edota sindikatuetan; %4,5ek auzo-elkarteetan; %4,1ek parrokia-taldeetan (adibidez, katekesiak, kofradiak), eta abar.

Elkarteetan eta alderdi politikoetan, emakumek baino gizon gehiagok hartzen dute parte. Emakume gehiago daude gizarte eta komunitatearentzako zerbitzuetan eta parrokia-taldeetan. Ondoriozta daitekeenez, gizonak aisiaren eta politikaren esparruetan jartzen dute arreta, eta emakumeek, berriz, zerbitzuen eta erlijioaren esparruetan.

Aztertutako aurreko jardueren kasuan bezala, adinak, osasun-egoerak, laguntza-beharrak eta heziketa-mailak eragina dute jarduera hauetan ere.

"EAEko borondatezko lanari buruzko ikerketa"ren (2013) datuen arabera, Euskadiko biztanleen %8,6 boluntarioak dira; alegia, 157.493 pertsona, gutxi gorabehera. Datuak adinaren arabera aztertuz gero, boluntarioen %56,3k 50 urte edo gehiago dituzte. Biztanleria guztia adin-taldearen arabera aztertuta, 50 eta 64 urte bitarteko pertsonen %8,9k eta 65 urteko eta gehiagoko pertsonen %5,5ek borondatezko lanak egiten dituzte; hau da, 50 urteko eta gehiagoko 60.906 pertsonak, guztira.


Ordaindu gabeko borondatezko lanak egiten dituzten pertsonak

	GIZARTE ETA KOMUNITATEARENTZAKO ZERBITZUAK	ELKARTEAK	GIZARTE- MUGIMENDUAK	ALDERDI POLITIKOAK ETA SINDIKATUAK	AUZO- ELKARTEAK	PARROKIA- TALDEAK	BESTELAKOAK
55 urte eta gehiago	5,2	6,9	3,9	2,0	4,5	4,1	2,9
65 urte eta gehiago	5,2	5,2	2,8	1,7	3,6	4,3	2,4
Sexua							
Gizona	4,8	9,3	4,4	3,4	4,3	2,9	2,6
Emakumea	5,5	4,9	3,5	0,8	4,6	5,0	3,2
Adina							
55-64	5,1	9,5	5,6	2,5	5,8	3,6	3,7
65-79	5,8	6,0	3,2	1,8	3,8	4,1	2,7
80 urte eta gehiago	3,9	3,5	2,1	1,3	3,4	4,8	1,9
Osasun-egoera							
Oso ona + Ona	6,4	9,4	5,3	2,8	6,1	4,4	3,8
Hala-holakoa	4,9	4,7	3,7	1,7	3,2	5,0	2,3
Oso txarra + Txarra	2,1	4,4	1,4	1,4	2,9	3,3	1,9
Laguntza-beharra							
Behar du	2,5	3,0	1,6	0,8	3,3	3,4	1,8
Ez du behar	5,8	7,9	4,5	2,3	4,8	4,2	3,2
Ikasketak							
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	2,7	4,3	1,6	1,3	4,8	4,9	2,7
Lehen mailako ikasketak	4,5	4,6	2,9	1,3	4,2	2,3	2,2
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	8,3	11,7	7,2	3,3	4,5	4,8	3,9

Horrelakorik egiten ez duten pertsonen %15,3k soilik adierazten dute egin nahiko lituzketela. Haietatik, gehienek (%12,9) gizarte eta komunitatearentzako borondatezko lanak egin nahiko lituzkete. Portzentaje txikiagoak dituzte gizarte-mugimenduetan eta elkarteren batean jardun nahiko luketenek (hurrenez hurren, %7,2 eta %6,7). Emakumeek eta 55 eta 64 urte bitarteko pertsonak dituzte horrelako erakundeetan parte hartzeko jarrerarik aldekoenak. 80 urte eta gehiago dituzten pertsonen artean, parrokia-taldeetan parte hartu nahiko luketenek dute portzentajerik handiena.

Borondatezko jarduera horiek ez egiteko arrazoi nagusiak honako hauek dira: denbora-eza, osasuna eta informaziozko eza. Horrenbestez, udalerrri bakoitzeko erakundeei buruzko informazioa ematea behar-beharrezkoa da herritarren parte-hartzea sustatzeko.

Borondatezko lanak egin nahiko lituzketen pertsonak, eta ez egiteko arrazoiak



Gainera, inkestan, zenbait galdera sartu ziren gizarte- eta boluntariotza-esparruetako programetan parte hartzeko interes-mailari buruz. Hauek dira adibide batzuk: nire lanarekin edo zereginarekin lotutako zerbait irakastea beste pertsona batzuei; nire herria/hiria eta monumentu eta museoak bisitariari erakustea; nire zaletasun nagusia beste pertsona batzuei azaltzea; herritarrak informatzeko eta orientatzeko lanetan laguntzea (izapideak egiten laguntzea, udal-zerbitzuetan edo kultura-zentroetan laguntzea, etab.); eta auzokoekin laguntza trukatzea (denboraren bankua), eguneroko eta unean uneko lanak egiteko.

Gizarte- eta boluntariora-esparruetan parte hartzeko interes-maila

	NIRE HERRIA/HIRIA ETA MONUMENTU ETA MUSEOAK BISITARIEI ERAKUSTEA	NIRE ZALETASUN NAGUSIA BESTE PERTSONA BATZUEI AZALTZEA	HERRITARRAK INFORMATZEKO ETA ORIENTATZEKO LANETAN LAGUNTZEA	AUZOKOekin LAGUNTZA TRUKATZEA (DENBORAREN BANKUA), EGUNEROKO ETA UNEAN UNEKO LANAK EGITEKO
55 urte eta gehiago	26,7	34,1	21,4	28,7
65 urte eta gehiago	24,1	29,8	19,1	25,6
Sexua				
Gizona	24,9	32,2	19,9	26,7
Emakumea	28,1	35,5	22,5	30,2
Adina				
55-64	30,6	40,3	24,7	33,2
65-79	24,4	31,4	20,2	27,1
80 urte eta gehiago	23,0	25,4	15,9	21,3
Osasun-egoera				
Oso ona + Ona	28,5	38,0	24,1	32,2
Hala-holakoa	24,4	27,6	16,9	23,5
Oso txarra + Txarra	23,2	32,3	20,0	24,6
Laguntza-beharra				
Behar du	21,1	24,7	13,1	22,1
Ez du behar	27,7	35,8	22,9	29,9
Ikasketak				
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	19,9	21,9	13,1	20,6
Lehen mailako ikasketak	30,4	35,8	23,7	31,8
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	29,6	43,7	26,8	33,3

Ondoen onartutako programa zaletasun nagusia beste pertsona batzuekin azaltzearena da (pertsona guztien %34,1). Belaunaldi gazteen artean, portzentajea %40,3koa da. Ondoren, horrelako programa batean parte hartzeko interesa dutenen %28,7k denboraren bankua aukeratuko lukete, eta %26,7k beren herria/hiria bisitariei erakustea. %21,4rentzat, interesgarria izango litzateke herritarrak informatzeko eta orientatzeko lanetan laguntzea. Aurreko ataletan bezala, interes-maila generoarekin, adinarekin, osasun-egoerarekin, laguntza-beharrarekin eta heziketa-mailarekin dago lotuta. Aldagai horiek guztiek aurreko jardueretako joera berbera dute, generoak izan ezik. Izan ere, emakumeak dira programa guztietan interes-mailarik handiena dutenak.

Gai horri buruzko literatura zientifikoaren hipotesi nagusiaren arabera, borondatzeko lan gehiena kultura- eta aisia-esparruetan egiten den lekuetan, jarduera horietan parte hartzen duten adinekoen portzentajea oso handia da; aitzitik, borondatzeko lanak arreta zerbitzuan –esaterako, esparru sozialean– jartzen duen lekuetan, parte hartzeko tasak txikiagoak dira (Barrio, 2007). Beraz, badirudi gizarte-partaidetzaren ikuspegia aldatu egin behar dela, eta haren alderdirik atsegingarriena ere nabarmendu.

Bestalde, elkartetako kideen batez besteko adina gero handiagoa da. Elkartetako zuzendaritzako eta lidergoko postuak ordeztzea zaila izaten da, belaunaldi berrietako kide gutxi baitaude. Egun, krisi ekonomikoaren garai honetan, ikus daiteke belaunaldirik gazteenetako kideak horrelako mugimenduetan parte hartzen hasi direla, premiarik larrienak arintzeko asmoz. Beraz, interes bereziko da komunitatea hobetu nahi duten belaunaldi berriak eta laguntza-modu horiek ezagutzen dituzten adinekoak elkartzea. Zenbait ekimen beren fruituak ematen ari dira dagoeneko, hala nola elikagaien bankua eta beste ekimen berri batzuk. Garrantzitsua da komunitateari laguntzeko martxan jartzen diren programak belaunaldi guztientzat erakargarriak izatea, adina bereizgarria edo baztertzaila ez izatea, eta jendea interes eta helburu komunengatik inguruan biltzea.

Gure gizarteak ondo garatuko badira, oso garrantzitsua da gizarte-partaidetza esparru guztietan sustatzea: herritarren partaidetza, borondatezko lana, laguntza informala... Biztanleria-talde guztiek parte hartu beharko lukete funtzio horietan, baina, batez ere, adineko pertsonak, denbora asko dutelako eta, bizitzan duten eskarmentuari esker, ezin ordainduzko gaitasunak dituztelako. Adineko pertsonak ezinbesteko eta beharrezko gizarte-baliabide bat dira.


Azken batean, jubilatutako berrien arabera, laneko jubilatutakoak eta gizarteko jubilatutakoak ez dira gauza berdina. Orain arte, pertsona batek erretiroa hartzen zuenean, bi erretiro-mota horiek egiten zituen. Orain, ordea, jubilatutako berriak laneko jubilatutako baino ez dira, gizarteko zati aktiboa izaten jarraitu nahi baitute. Horrenbestez, jubilatutako hitzaren esanahia aldatzen ari da; alegia, erretiroa hartzea ez da aktibo egotetik ez-aktibo egotera edo mendeko izatera igarotzea, laneko aktiboak izatetik gizarte- eta familia-ongizatearen sortzaile izatera baizik (Trinidad, 2006).

Bestalde, aipatu behar da jubilatuen taldean gertatzen ari den aldaketak bi ondorio nagusi izango dituela. Lehenengo eta behin, jubilatutako berriak baliabide ekonomiko handiagoak eta heziketa hobea dituzte, eta beraz, beste modu batean jokatzeko dute; gizarte-estrategia berriak garatzen ari dira. Bigarrenik, adinekoak bigarren mailakoak ez diren rolak egiten saiatuko dira, gizartean zeregin garrantzitsua izan nahi dute eta; izan ere, horretarako prestatu dira bizitza osoan. Jubilatutako berriak helburu hori lortzeko eta beren estatusa ez galtzeko egiten ari diren jarduerak ezaugarri hauek izan behar dituzte: 1) gizarteak onartuak izatea –balioetsiak–; 2) ekarpenak egiten dituztela jakitea –baliagarri sentitzea–; 3) gutxieneko eskakizun- eta konpromiso-maila izatea; eta 4) jubilatutakoaren independentzia eta autonomia bermatzea (Trinidad Requena, 2006).

Gaur egun, zahartzaroan sartzeko unea –erretiroaren bidez– aukeraz betetako alditzat hartzen da: bizimoduan aldaketak egiteko, proiektu berriak garatzen hasteko, osasun fisikoa eta mentala zaintzeko, orain arte aztertu ezin izan ditugun ekimenez gozatzeko... Azken batean, independentzia-prozesu sendo bat sortzeko, inoren –batik bat, seme-alaben– mendean egon gabe gure lehentasunen arabera bizi ahal izateko. Horri esker, afektibitate-loturen osasunari eutsiko diogu, urruneko intimitatearen bidez. Zahartze aktiboaren paradigma gauzatzen ari da. Ildo horretan, esan dezakegu adineko pertsonak gero eta adoretuago sartzeko direla bizi sozial normalizatuan.

5.6.3 Zahartze Aktiboaren Indizea (AAI)

Zahartze Aktiboaren Indizea (AAI) ikerketa-proiektu baten emaitza da. Proiektu hori batera kudeatu zuten Europako Batzordeko Enplegu, Gizarte Gaietarako eta Inklusio Zuzendaritza Nagusiak eta Nazio Batuen Europarako Batzorde Ekonomikoak (UNECE).



Iturria: Egileek egina (jatorrizko irudiaren itzulpena; UNECEren webgunea).

Zahartze aktiboaren lau alderdi hauek neurtzen dituen tresna bat da: enplegua, partaidetza, independentzia eta gaitasunak. Alderdi bakoitza 22 adierazleren bidez kalkulatu da. Adierazle horiek berez deskribatzaileak dira.

2013ko apirilean, Europako Batzordeak Europako zenbait herrialdeetako zahartzea alderatzen zuen adierazle-sistema bat eman zuen ezagutzera. Javier Etxebarriaren arabera (2014), datu enpirikoak lortzea zen helburu nagusia, Europan politika publikoak garatzen laguntzeko, politika publiko horiek, adineko pertsonen ongizateaz gain, ekonomiari eta gizarteari egin ahal dizkieten ekarpenak ere aintzat har zitzen.

Indize hori garatu ondoren, zahartze aktiboaren tratamendua aldatu egin zen. OMEren definizioan, paradigma horrek hiru oinarri hauek ditu: osasuna, segurtasuna eta parte-hartzea. Indizean, alderdi ekonomiko bat ere sartu zen: adineko pertsonak lan-merkatuan sartzea. Bosgarren alderdi bat ere sartu zen: belaunaldi arteko elkartasuna, gazte, heldu eta adinekoen artekoa. Horrenbestez, indibiduala gainditzen da, eta soziala nabarmentzen da.

Javier Etxebarriak AALri buruz egindako azterketan (2014) esaten duenez, indize hori egiteko erabilitako zahartze aktiboaren definizioa ez da OMEk 2002tik erabiltzen duenaren berdina. Izan ere, alde handiak daude. Hau da OMEren definizioa: "Zahartze aktiboan, pertsonak lan-merkatuan jarraitzen dute, eta ordaindu gabeko beste produkzio-jarduera batzuetan ere har dezakete parte (esate baterako, senideei laguntzea eta borondatezko lanak egitea), eta aldi berean, bizitza osasungarria, independentea eta segurua izan dezakete zahartzen diren neurrian".

Kontzeptuzko aldaketa hori 22 adierazleren bidez gauzatu zen. Adierazle horiek lau alderdi hauek neurtzen dituzte: enplegua, partaidetza, independentzia eta gaitasunak. Aldaketa nagusia gaitasunen ikuspegia sartzea izan zen, eta ondoren, parte-hartzearen alderdia aldatzea; ildo horretan, produkzio-jardueran jarri zen arreta harrezkero.

Ikuspegi horrek sustatzen dituen zahartze-prozesuak sozialki aktiboak dira, eta ez soilik pertsonalki aktiboak. Zahartzeari buruzko ikerketen eta politika publikoen biraketa sozial horrek berrikuntza handiak ekarriko ditu, erabiltzen den neurketa-sistemak garrantzi handia ematen baitie jarduera sozioekonomikoei (parte hartzeko gaitasuntzat eta modutzat hartuta). AAI indizean oinarrituta sortzen diren zahartze-politikek ez dute zerikusirik izango OMEren 2002ko paradigman oinarritutako ohiko politikekin (Etxebarria, 2014).

Euskadin, bi helbururekin kalkulatu da AAI indizea: lehenengoa eta garrantzitsuena politika publikoetako zer arlotan eragin behar den hautematea da, herritarren bizi-kalitatea gehiago sustatzeko; eta bigarrena Euskadiko datuak Estatukoekin eta Europakoekin alderatzea da, zer egoeratan gauden jakiteko.

Nazioarteko konparazioa jasotzen da, bai eta eremu bakoitzean hautemandako alderdirik garrantzitsuenak ere.

1. INDIZE OROKORRA:

Zahartze Aktiboaren Indizearen (AAI) kalkuluaren arabera, Euskadi aztertutako EBko 27 herrialdeetatik 7. postuan dago.

Euskadik lortutako puntuazioa (36,3) handiagoa da Europako batez besteko puntuazioa baino (33,8). Hortaz, oso leku onean dago Euskadi, kontuan hartuta Alemania, Austria, Frantzia eta ongizateko eta gizarte-babeseko maila handia duten beste herrialde batzuen aurrean dagoela.

Dena den, kontuan hartu behar da zerrenda hori egiteko erabilitako daturik berrienak 2011-2012koak zirela; hau da, gaur egun, aldaketa txikiak egon daitezke.

Espainiako Estatua zerrenda horretako 18. postuan dago (17.ean, Euskadi kontuan hartzen ez bada), 32,8 puntuekin.

	Enplegua	Gizarte-partaidetza	Bizitza independentea	Gaitasuna	Balioa	Postua
Euskadi	25,38	21,03	72,30	65,70	36,60	7
Espainia	23,33	18,26	69,80	56,28	32,80	18
EB 28	27,90	18,10	70,60	54,50	34,05	

2. ENPLEGUA:

AAren enpleguaren azpiindizea puntu guztien %35 da. Puntuazioa lortzeko, adin-talde bakoitzaren okupazio-tasa kalkulatu da (55-59; 60-64; 65-69; 70-74).


Euskadi 15. postuan dago (25,4 puntu). Europar Batasuneko 27ren batez bestekoa (27,1) baino apur bat txikiagoa da, eta Espainiako Estatuarena (23,3) (19. postua) baino pixka bat handiagoa.

Euskadiko eta Estatuko okupazio-tasen artean, desberdintasun batzuk daude. 55 eta 64 urte bitarteko pertsonen artean, EAEko okupazio-tasa handiagoa da Estatukoa baino, eta 65 urte eta gehiago dituzten pertsonen artean, berriz, pixka bat txikiagoa.


Euskadiko eta Estatuko enplegu-emaizten arteko konparazioa:

	55-59 urtekoen okupazio-tasa	60-64 urtekoen okupazio-tasa	65-69 urtekoen okupazio-tasa	70-74 urtekoen okupazio-tasa	Balioa	Postua
Euskadi	62,1	35,1	3	1,3	25,4	15
Espainia	54,8	31,8	5,2	1,5	23,3	19
EB 28	62,2	31,6	11,6	6,1	27,9	

Adierazle globala



1.Arloa. Lana



3. PARTAIDETZA:

Gizarte-partaidetza Zahartze Aktiboaren lindizearen puntuazio orokorraren beste %35 da.


Hori kalkulatzeko, hauek hartzen dira kontuan: borondatezko jarduerak; seme-alabak eta bilobak, adinekoak eta desgaitasunen bat duten pertsonak zaintzeko jarduerak (ordaindu gabeak); eta azkenik, parte-hartze politikoa.

Euskadi 9. postuan dago, 27en batez bestekoa (18.1) baino handiagoa den puntuazioarekin. Estatua 15. postuan dago, batez bestekoaren oso antzekoa den puntuazioarekin (18,26).

Espainiako Estatuarekin alderatuta, Euskadik puntuazio hobekitu jardueretan, partaidetza politikoan, eta seme-alabak eta bilobak zaintzeko jardueretan. Hala ere, Euskadin, astean behin gutxienez adinekoak edo desgaitasunen bat duten pertsonak zaintzen dituzten pertsonen portzentajea txikiagoa da.

	Boluntarioratza	Seme-alabak eta bilobak zaintzea	Adinekoak edo desgaitasunen bat dutenak zaintzea	Partaidetza politikoa	Balioa	Postua
Euskadi	19	44	9,4	12,3	21	9
Espainia	9,6	36,1	15,7	10,6	18,3	15
EB 28	14,8	32,5	12,9	12,0	18,1	

2. Arloa. Partaidetza



4. BIZITZA INDEPENDENTEA


Puntuazio osoaren %10 da; alegia, AAI indizean pisu gutxien duen osagaia da. Azpiindize horretan, hauek hartzen dira kontuan: ariketa fisikoa, osasun-beharrak (medikoak eta hortzetakoak), etxe-mota, batez besteko errenda, pobrezia-arriskua, gabezia materiala, segurtasun fisikoa eta bizitza osoko ikaskuntza.

EAE 13. postuan dago (72,3 puntu), aztertutako Europar Batasuneko 28 herrialdeen batez besteko puntuazioa (70,6) apur bat gaindituta. Azpimarratu behar da 55 urteko pertsonen artean astean bost aldiz baino gehiagotan ariketa fisikoa egiten dutenen portzentajea (kirola edo beste edozein jarduera fisiko egiten dutenak, hala nola ibiltzea, bizikletaz ibiltzea, lorategian edo baratzean lan egitea, etab.).

Estatuko datuak eta Euskadikoak alderatuz gero, ikusiko dugu jarduera fisikoaren adierazlea askoz handiagoa dela Estatuko baino; hain zuzen, Europako gainerako herrialdeetakoak baino handiagoa ere bada. Zenbait alde daude estalitako osasun-beharrei dagokienez; EAEko datua pixka bat txikiagoa da. Aitzitik, batez besteko errentaren, pobrezia-arriskuaren eta segurtasun fisikoaren adierazleak hobeak dira Euskadin

	Ariketa fisikoa	Medikuntza-eta hortz-beharrak estalita	Pertsona bakarreko edo bikoteko etxebizitza	Ratioa batez besteko errenta-errekiko	Pobrezia-arriskurik gabea	Gabezia materialik gabea	Segurtasun fisikoa	Bizitza osoko ikaskuntza	Balioa	Postua
Euskadi	60,9	81,5	61	91,3	94,8	97	89,1	5,3	72,3	13
Espainia	15,8	89,6	73,4	93,1	93,8	97,1	67,4	4,8	69,8	16
EB 28	15,6	88,2	84,2	86,3	93,0	90,0	69,3	4,5	70,6	

3. Arloa. Bizitza independentea



5. ZAHARTZE AKTIBORAKO GAITASUNA

Gaitasunen azpiindizeak ingurunea zahartze aktiborako egokia den ala ez adierazten du. Zahartze Aktiboko Indizeareen puntuazio osoaren %20 dagokio, eta besteak beste, alderdi hauek hartzen ditu aintzat: bizi-itxaropena, desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena, osasun mentala, teknologi berrien erabilera, gizarte-konektibitatea eta heziketa-maila.


Azpiindize horretan, Europako bi puntuaziorik onenetan dago Euskadi. Suediak baino ez du gainditzen.

Osasun mentalari, IKTen erabilerari eta gizarte-konektibitateari dagokienez, Euskadik Euskadik Estatuak baino puntuazio hobek lortzen ditu zati honetan neurtutako elementu guztietan. Alde handia ematen da heziketa mailan, bereziki. Euskadik 13,5 puntu gehiago lortzen ditu. Beraz, Euskadiko balorazio orokorra (65,7) Estaturakoa (56,3) baino 9,4 puntu handiagoa da.

Bizi-itxaropena antzekoa bada ere, Euskadi eta Estatuaren arteko egoera apur bat aldatzen da desgaitasunik gabeko bizi-itxaropenari erreparatuz gero; izan ere, Euskadiren puntuazioa 10 puntu handiagoa da Estatuarena baino.

	Bizi-itxaropenaren proportzioa	Desgaitasunik gabeko bizitzeko itxaropena	Osasun mentala	IKTen erabilera	Gizarte-konektibitatea	Heziketa maila	Balioa	Postua
Euskadi	60,5	62,5	76,6	38,8	95,8	42,4	65,7	2
Espainia	59,1	52,9	68,2	29,0	67,5	28,9	56,3	13
EB 28	53,8	53,2	64,6	40,8	49,0	59,7	54,4	

4. arloa. Zaharkitze Aktiborako gaitasuna



5.7. Ongizatea

5.7.1 Gogobetetasuna eta ongizatea

Gogobetetasuna eta ongizate subjektiboa garrantzi handiko aldagaitzat hartzen dira zahartze-prozesuan (Deep eta Jeste, 2006). Adinekoen beraien iritziz, alderdi psikoemozionala ere zahartze aktibo eta osasungarriaren alderdirik adierazgarrienetako bat da (Reichstadt, Depp, Palinkas eta Jeste, 2007).

Euskadin, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen beren bizitzarekiko duten gogobetetasun-maila altua da; 7,1 puntu 10etik. Gogobetetasunaren osagaia osatzen duten gainerako alderdietan (hala nola, osasun-egoera, harreman pertsonalak, etab.), puntuazioak 7 puntu inguruak dira. Puntuaziorik handiena 7,5 da (harreman pertsonalekiko gogobetetasuna), eta txikiena, 6,6 (etorkizunarekiko segurtasuna, eta bitza espirituala eta erlijio-sinesmenak).

Bizitzarekiko gogobetetasun maila, orokorrean

	Guztira 55 eta gehiago	Guztira 65 eta gehiago	Adina	55-64	65-79	80 edo gehiago	Sexua	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Etxebizitza mota	Unipertsonala	Bikotean	Belarrialdidugari etxean	Belarrialdidugari seme-alabaren etxean	BeSTE MOTA	Ikasketak	Lehen hezkuntzabaino baxuagoak	Lehen hezkuntza	Bigarren hezkuntza edo gehiago	Osasun egoera	Oso ona + ona	Erregularra	Oso txarra + txarra	Laguntza beharrak	Behar du	Ez du behar
Bizitzarekin gogobetetasuna orokorrean	7	7		7	7	7		7	7		7	7	7,1	6,9	7		6,8	7,1	7,4		8	7	6		6	7

Gogobetetasun orokorrari dagokionez, nabarmendu behar da pertsonak zahartu ahala txikitzen ez diren aldagaietako bat dela, nahiz eta pertsonen osasun-egoera okerragoa izan dezaketen. Izan ere, hori argi eta garbi ikus daiteke 80 urteko eta gehiagoko pertsonen gogobetetasun orokorraren puntuazioa eta osasun-egoerarekiko gogobetetasunaren puntuazioa alderatuta (hurrenez hurren, 6,8 eta 5,9). Osasun-egoerari buruz berriaz galdetzen badiegu, puntuazio txikiagoa lortzen dute adinekorik gazteenek baino; hain zuzen, 0,7 eta 1,1 puntuko aldea dago besta adin-taldeekin). Aitzitik, zenbaketa orokorrean, aldeak txikiagoak dira, 0,3-0,4 puntukoak.

Generoaren eta heziketa-mailaren arabera, ez da alde nabarmenik hautematen. Hala ere, osasun-egoera subjektiboa eta laguntza-beharrak kontuan hartzen baditugu, portzentajeak apur bat desberdinak izango dira. Lehenago esan dugunez, osasun-egoeran dauden desberdintasunak osasunaren eta etorkizunarekiko segurtasunaren eremuetan islatzen dira, batik bat. Gauza bera gertatzen da laguntza-beharrak aintzat hartuz gero.

Bizitzako zenbait eremurekiko gogobetetasun maila

	BIZITZA-MAILA	OSASUN-EGOERA	LORPENAK	HARREMAN PERTSONALAK	SENTITZEN DUZUN SEGURITASUNA ETA BABESA	KOMUNITATE BATEKO KIDE IZATEKO SENTIMENDUA	ETORKIZUNAREKIKO SEGURITASUNA	BIZITZA ESPIRITUALA ETA ERLIJO-SINESMENAK
55 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	6,8	6,7	7	7,5	7,2	7,2	6,6	6,6
65 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	6,8	6,5	6,9	7,4	7,2	7,1	6,6	6,9
Adina								
55-64	6,9	7	7,1	7,6	7,3	7,2	6,6	6
65-79	6,8	6,6	7	7,5	7,3	7,2	6,7	6,8
80 urte eta gehiago	6,6	5,9	6,6	7,2	6,9	6,9	6,4	7,1
Sexua								
Gizona	6,8	6,8	7,1	7,5	7,2	7,2	6,7	6,1
Emakumea	6,8	6,6	6,9	7,5	7,2	7,1	6,6	6,9
Etxe-mota								
Pertsona batekoa	6,7	6,4	6,8	7,3	7,1	6,9	6,5	6,7
Bikotea	7	6,9	7,2	7,6	7,4	7,3	6,8	6,7
Belaunaldi anitzekoa adinekoaren etxebizitzan	6,8	6,7	7	7,4	7,2	7,1	6,6	6,3
Belaunaldi anitzekoa seme-alaba baten etxebizitzan	6,8	6	6,4	7,4	7,3	7	6	6,6
Beste motaren bat	6,4	6,4	6,7	7,4	7	6,9	6,1	6,5
Ikasketak								
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	6,6	6,2	6,7	7,1	7	6,9	6,5	6,6
Lehen mailako ikasketak	6,7	6,7	7	7,5	7,3	7,2	6,5	6,8
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	7,1	7,1	7,3	7,7	7,4	7,4	6,8	6,2
Osasun-egoera								
Oso ona + Ona	7,3	7,7	7,4	7,8	7,6	7,5	7	6,6
Hala-holakoa	6,3	5,7	6,6	7,1	6,9	6,8	6,3	6,5
Oso txarra + Txarra	5,7	3,7	5,9	6,8	6,4	6,2	5,2	6,2
Laguntza-beharra								
Behar du	6	5	6,4	7	6,9	6,5	5,9	7
Ez du behar	7	7	7,1	7,6	7,3	7,3	6,7	6,5

Ongizate maila (OME)

	ONGIZATE TXIKIA	ONGIZATE ERTAINA/HANDIA	KOP.
55 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	23,4	76,6	2160
65 urtekoak eta gehiagokoak, guztira	26,6	73,4	1286
Adina			
55-64	18,5	81,5	874
65-79	22,7	77,3	951
80 urte eta gehiago	38,0	62,0	335
Sexua			
Gizona	15,8	84,2	950
Emakumea	29,4	70,6	1210
Etxe-mota			
Pertsona batekoa	31,9	68,1	481
Bikotea	17,9	82,1	841
Belaunaldi anitzekoa adinekoen etxebizitzan	22,5	77,5	679
Belaunaldi anitzekoa seme-alaba baten etxebizitzan	59,1	40,9	22
Beste motaren bat	25,8	74,2	138
Ikasketak			
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	31,2	68,8	690
Lehen mailako ikasketak	24,7	75,3	706
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	15,1	84,9	760
Osasun-egoera			
Oso ona + Ona	10,5	89,5	1246
Hala-holakoa	35,0	65,0	722
Oso txarra + Txarra	65,4	34,6	190
Laguntza-beharra			
Behar du	52,2	47,8	333
Ez du behar	18,2	81,8	1827

OMEren ongizate-indizean lortutako puntuazioei dagokienez, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen %75 inguru denboraren erdia baino gehiago umore onez, lasai, erlaxatuta, aktibo eta deskantsatuta sentitzen dira, eta interesatzen zaizkien gauzez betetzako bizi-tza bat dutela uste dute.



Alde handiagoak ikusten dira osasun- eta funtzionamendu-egoera okerragoa aurreikusten duten aldagaien arabera. Hona hemen aldagaiok: emakume izatea, heziketa-maila txikiagoa izatea eta pertsona bakarreko etxe batean bizi-ztea.

5.7.2. Zahartzaroari buruzko pertzepzioak

Gogobetetasun- eta ongizate-mailaz gain, jakin beharra dago Euskadiko adinekoak zenbateraino dauden kezkatuta beren zahartzaroarekin. 55 urte eta gehiago dituzten pertsonen %40k adierazten dute beren zahartzaroak ez dituela batere kezkatzen. Beste %40k adierazten dute pixka bat edo dezente kezkatzen dituela. Lagineko pertsonen %8k soilik adierazten dute oso kezkatuta daudela beren zahartze-prozesua dela eta. %40k kezkarik ez izatea oso datu ona da. Oso gomendagarria izango litzateke hurrengo inkestetan horren arrazoiak galdetzea.

Euskadiko adinekoen kezka-arrazoi gehienak zahartze patologiko posible batekin (narriadura fisikoa eta intelektuala) daude lotuta, eta etorkizunean mendekotasun-egoeran egotearekin. Erosteko ahalmena galtzeagatik eta harreman sozialak gutxitzeagatik ez daude hain kezkatuta.

Bere zahartzaroak zenbat arduratzen duen



5.8 Erretiroa

Errealitateak adierazten duenez, oso pertsona gutxi jarraitzen dute lanean 65 urte bete ondoren. Erretiroa instituzionalizatu egin da; alegia, herritar guztien itzaropenetako bat da. Neurri handi batean, zahartzaroaren hasiera adierazten du, eta nolabait, gizarte modernoetan, zahartzaroaren definizioan sartzen da (Perez Ortiz, 2006). Gaur egun, krisi ekonomikoaren garai honetan, ezkutuko diskurtsoak pentsio-sistema jartzen du zalantzan, bai eta, beraz, erretiroa ere, orain arte ezagutu dugun bezala, behintzat. Dena proposatu eta diseina daiteke berriro, eta aldaketak gerta daitezke etorkizunean. Egungo gazteek beste modu batean irudikatzen dituzte zahartzaroa eta erretiroa, ez beren aitona-amonek bezala.

Erretiroa aldatzen ari da, eta harekin batera, zahartzaroaren hasiera eta zahartzeko esperientzia bera zehazten dituen arau-esparrua ere bai, gizarte-arauen terminoetan. Aldaketa horretan, elkarren kontrako bi argudio biltzen dira. Alde batetik, biztanleria zahartzean herrialde garatuetakoa lan-indarra gero eta eskasagoa izango da, eta langileek gero eta urte gehiago egin beharko dute lan. Eta beste batetik, erretiroa langile askori inposatzen zaie oraindik ere, eta ez ohiko adina betetzen dutenean, lehenago baizik. Erretiro-adina luzatuko balitz, zahartzaroaren kontzeptu aldatu egin beharko litzateke, edo egutegian atzeratu beharko litzateke bizitzako etapa horretan sartzeko unea. Edonola ere, pentsioen bidez ordaindutako atsedentzat eta, beraz, aisiarako edo autoerrealizaziorako denboratzat hartzeari utzi beharko genioke. Aitzitik, erretiroa aurreratzen jarraituz gero, ez du adieraziko –eta agian, dagoeneko ez du adierazten– zahartzaroan sartzeko unea. Eta adinekoak lan-merkatutik kanpo geratuko lirake behin betiko; izan ere, 55 eta 64 urte bitarteko pertsona batek lana aurkitzea zaila bada, are zailagoa da 65 urte beteak dituen pertsona batentzat. Hala ere, gauzek orain bezala jarraitzen badute, oso litekeena da hemendik aurrerako jokabideak oso bestelakoak izatea; izan ere, zenbait pertsonak gero eta lehenago hartuko dute erretiroa, eta beste zenbaitek, berriz, gero eta beranduago (Perez Ortiz, 2006).

Euskadin, 55 urte eta gehiago dituzten pertsonen 61 urterekin hartzen dute erretiroa, batez beste. Adin-tarteetako erretiro-adinak desberdinak dira, adin-tarte bakoitzean erretiroa hartutako pertsonen soilik erantzun baitzieten galderi. Esate baterako, 55 eta 64 urte bitarteko pertsonen batez besteko erretiro-adina 59 urtekoa da, eta 80 urte beteak dituzten pertsonena, berriz, 62,2 urtekoa. Aipatutako ondorioaz gain, belaunaldirik gazteenetako pertsonak lehenago erretiratzen direla ikus daiteke.

Batez beste, benetakoa batez besteko adina (62 urte) baino urtebete geroago nahiko zuketen erretiroa hartu, edo erretiroa hartzea gustatuko litzaieke. Datu hori adinarekin batera handitzen da; pertsonarik zaharrenek erretiroa 64 urterekin hartu nahiago izango zuketen.

Horrenbestez, adin-tarte guztietan, desiratutako erretiro-adina benetakoa baino pixka bat handiagoa da. 1-2 urte handiagoa, hain zuzen.

Batez besteko erretiro-adina, desiratutako erretiro-adina eta lanean jarraitu nahiago zuketzen pertsonak

	BATEZ BESTEKO ERRETIRO-ADINA	DESIRATUTAKO ERRETIRO-ADINA	LANEAN JARRAITU NAHIKO ZUKEEN
55 urte eta gehiago	61,0	62,1	34,3
65 urte eta gehiago	61,5	62,9	34,9
Sexua			
Gizona	61,0	61,9	36,1
Emakumea	60,9	62,3	30,9
Adina			
55-64	59,1	61,3	32,3
65-79	61,2	62,5	35,1
80 urte eta gehiago	62,2	64,1	34,0
Osasun-egoera			
Oso ona + Ona	61,0	61,8	30,8
Hala-holakoa	60,4	62,5	38,1
Oso txarra + Txarra	60,9	63,4	44,5
Laguntza-beharra			
Behar du	61,5	63,3	37,8
Ez du behar	60,9	62,0	33,8
Ikasketak			
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	60,8	62,2	31,4
Lehen mailako ikasketak	61,0	62,2	35,5
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	61,1	62,0	36,0

Bestalde, erretiratutako pertsonen %34,3k adierazten dute erretiroa harrarazi zietenean lanean jarraituko zuketela, aukeran. Pertsona horientzat, beraiek erabaki ez zuten eta nahi ez zuten zerbait izan zen erretiroa.

Baina erretiro-adina atzeratzearekin ados dauden ala ez galdetuta, %8,0k soilik adierazten dute alde daudela. Gehien-gehienek (%83,4) neurri horrekin bat ez datozela adierazten dute. Adin aurreratuko belaunaldiko pertsonak adostasun-maila handiagoa dute, baina, hala ere, oso portzentaje txikia da (%10,5). Adineko gazteek arau-aldaketa horren eragina jasateko hurbilago daude, eta ia guztiek (%90,9) ez daudela ados adierazten dute.

Erretiroaren ordez lanaldia eta pentsio partzial bat uztartzearen aukerari dagokionez, ados dauden pertsonen portzentajeak gora egiten du. 55 urteko eta gehiagoko 10 pertsonatik ia bi ados daude proposamen horrekin. Belaunaldirik gazteenetako pertsonen %24,5, eta bigarren edo goi-mailako ikasketak dituzten 10 pertsonatik ia 3.

Badirudi pertsonak, bakoitza bere aldetik, erretiro-adina atzeratzeari eta lanpostuan jarraitzeari buruzko jarrera positiboak dituztela, baina, horrelako neurriei buruz orokorrean galdetzean, gehien-gehienak kontra daude. Horrek esan nahi du norberaren egoera arau estandarizatuen gainean dagoela.

Erretiro-adina atzeratzearekin eta lanaldia pentsio batekin uztartzearekin ados duden pertsonak

	ADOS, ERRETIRO-ADINA ATZERATZEAREKIN	LANALDIA PENSIO PARTZIAL BATEKIN KONBINATZEA
55 urte eta gehiago	8,0	18,2
65 urte eta gehiago	10,1	14,0
Sexua		
Gizona	9,6	21,2
Emakumea	6,7	15,9
Adina		
55-64	4,7	24,5
65-79	10,0	15,5
80 urte eta gehiago	10,5	9,7
Osasun-egoera		
Oso ona + Ona	8,3	20,9
Hala-holakoa	7,8	14,3
Oso txarra + Txarra	6,3	16,1
Laguntza-beharra		
Behar du	7,1	11,7
Ez du behar	8,1	19,5
Ikasketak		
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	8,5	8,9
Lehen mailako ikasketak	5,6	17,6
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	9,7	27,4

Behin lan-bizitza utzitakoan denbora zertan eman behar den galdetuta, gehienek familia eta lagunak (harreman sozialak), zaletasuna eta aisia (denbora libre), eta atsedena aukeratzen dituzte. Oso gutxik (%4,3) uste dute gizartearen onerako jarduerak egiteko denbora dela, eta adibidez, borondatezko lana egin edo bizitza profesionalean lortutako ezagutza zabaldu behar dela (ekarpen sozialak). Eta %6,8k uste dute erretiroarekin batera gauza berriak ikasteko garaia hasten dela.

Bizitza-zikloko une horrek izan behar duenari buruzko erantzun tradizionalak dira ugariak. Belaunaldirik gazteenetan, ekarpen sozialei edo ikaskuntzari buruzko jarrera proaktiboak apur bat hobetzen dira, baina, oraindik ere, oso portzentaje txikiak lortzen dira (hurrenez hurren, %5,6 eta %9,7). 80 urte eta gehiago dituzten pertsonen artean, %47,8k uste dute erretiroa atsedenerako unea dela; alegia, tradizioarekin oso lotuta dagoen argudioaren alde egiten dute.

Adineko pertsonatzat definitutako taldea oso heterogeneoa da; oso bizitza-estilo desberdinak dituzten pertsonak osatzen dute. Esate baterako, alde handiak daude adinekorik gazteenen eta 80 urte beteak dituzten pertsonen artean, Ikerlan honetan egiaztatu denez. Bi belaunaldi horiek oso bizitza-estilo desberdinak dituzte, haien bizi-denboraren, bizi izandako egoera historikoen eta norberaren biografien ondorioz. Horrelako inkestek biztanleriaren joera eta jokabide orokorrak ematen dituzte jakitera, baina ez dira hain baliagarriak jarrera-aldaketak edo diskurtso berritzaileak hautemateko, orokortu egiten diren arte, behintzat.

Erretiro osteko denbora zertan eman behar den

	FAMILIA ETA LAGUNAK	ZALETASUNAK ETA AISIA	EKARPEN SOZIALAK	GAUZA BERRIAK IKASTEA	ATSEDENA	BESTE BATZUK
55 urte eta gehiago	66,6	52,9	4,3	6,8	37,2	3,7
65 urte eta gehiago	66,8	47,3	3,5	4,9	40,5	4,1
Sexua						
Gizona	64,8	56,1	4,4	6,2	36,2	4,4
Emakumea	68,0	50,3	4,3	7,4	37,9	3,1
Adina						
55-64	66,4	61,0	5,6	9,7	32,3	3,1
65-79	68,1	50,4	3,7	5,5	38,0	3,9
80 urte eta gehiago	63,2	38,6	2,8	3,1	47,8	4,4
Osasun-egoera						
Oso ona + Ona	69,7	60,1	5,5	7,5	30,6	3,3
Hala-holakoa	63,1	44,0	2,0	5,8	46,0	4,5
Oso txarra + Txarra	60,1	39,4	5,8	5,8	47,6	3,0
Laguntza-beharra						
Behar du	64,7	34,4	3,1	4,9	54,5	3,0
Ez du behar	67,0	56,2	4,6	7,2	34,0	3,8
Ikasketak						
Lehen mailako ikasketak baino gutxiago	65,5	39,2	1,5	2,5	50,7	2,0
Lehen mailako ikasketak	67,8	54,4	2,4	7,0	38,2	4,3
Bigarren mailakoak eta goi-mailakoak	66,9	63,9	8,7	10,7	24,1	4,6

5.9 Emaizak Lurraldeka

5.9.1. Datu soziodemografikoak

Adina eta sexua

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
55-64	40,5	39,0	38,5
65-79	41,5	42,2	41,7
80 urte eta gehiago	17,9	18,8	19,7

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Gizona	46,3	44,9	44,1
Emakumea	53,7	55,1	55,9

Egoera zibila

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Ezkongabea	11,1	11,0	7,7
Ezkondua - Bizikidearekin	59,4	62,7	60,6
Banandua/ Dibortziatua	5,8	4,6	6,2
Alarguna	23,7	21,7	25,6
K	406,0	789,0	1301,0

Heziketa-maila

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Analfabetoa	1,4	0,8	0,6
Ikasketarik gabe (badaki irakurtzen eta idazten)	17,2	12,6	7,0
Lehen hezkuntza osatugabea	19,6	31,9	18,2
Lehen hezkuntza amaitua	38,2	20,9	36,8
Bigarren mailako hezkuntza	5,2	7,1	9,8
Lanbide Heziketa	12,2	13,5	12,3
Unibertsitate-ikasketak	6,2	12,6	14,9
Arautu gabeko bestelako ikasketak	-	0	0
K	406,0	789,0	1301,0

Jarduerarekiko lotura

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Norberaren konturako langileak	7,8	17,0	14,1
Zuzendaritza/Gerentzia eta tarteko agintariak	5,3	15,4	17,5
Langile gaituak	71,2	47,5	50,5
Langile ez-gaituak	11,4	15,9	15,4
ED/EE	4,3	4,2	2,5
K	285,9	607,7	927,0

Kategoria profesionala

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Lanean	11,0	16,5	17,1
Erretiratuak edo pentsiodunak	59,5	62,7	59,1
Langabezian	5,5	3,7	4,7
Etxeko lanak	23,8	16,2	18,7
Beste bat	-	0,2	0,1
K	406,4	788,5	1301,1

Diru-sarreraren maila

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
300 € baino gutxiago	0,2	0,3	0,3
301-600 €	3,1	3,0	3,3
601-900 €	10,8	9,0	15,9
901-1.200 €	10,3	12,5	18,1
1.200-1.800 €	8,4	18,1	17,8
1.800 € baino gehiago	6,1	20,3	15,7
ED/EE	61,1	36,3	28,8
K	406	789	1301

Etxeko egoera ekonomikoa

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Batezbestekoa	5,4	5,8	5,6
Desbiderapen Tipikoa	1,3	1,2	1,3
K	371	653	1057

5.9.2. Bizikidetza-ereduak eta gizarte-sarea

Etxearen tamaina

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Batez besteko tamaina	2,1	2,3	2,3
Gurasoekin bizi dira	3,3	3,9	3,0
Seme-alabekin bizi dira	26,3	31,1	36,0

Bizikidetza erak

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Pertsona batekoa	26,4	19,4	19,4
Bikotea	38,3	39,6	35,2
Belaunaldi anitzekoa, euren etxebizitzan	26,1	30,3	36,6
Belaunaldi anitzekoa, seme-alabaren etxebizitzan	0,8	1,3	1,5
Beste motaren bat	8,4	9,4	7,4

Gurasoekin duen harremana

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Inoiz ez, edo ez du gurasorik	86,0	81,4	84,1
Gutxiagotan	1,8	2,1	2,3
Hilean behin-hirutan	0,9	1,7	2,4
Astean behin, gutxienez	4,8	6,0	5,2
Egunero edo ia egunero	5,7	7,5	5,0

Seme-alabaren batekin duen harremana

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Inoiz ez, edo ez du seme-alabarik	21,2	21,5	24,3
Inoiz ez	0,9	0,5	1,2
Gutxiagotan	4,8	4,9	5,0
Hilean behin-hirutan	3,3	4,4	5,4
Astean behin, gutxienez	13,2	19,6	22,0
Egunero edo ia egunero	57,5	49,5	43,3

Neba-arrebarekin edo beste senideren batekin duen harremana

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Inoiz ez, edo ez du neba-arrebarik edo seniderik	11,1	16,2	18,7
Gutxiagotan	16,1	23,4	24,2
Hilean behin-hirutan	9,0	11,1	18,8
Astean behin, gutxienez	36,7	29,6	23,5
Egunero edo ia egunero	27,1	17,8	14,6

Lagunekin edo auzokoekin duen harremana

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Inoiz ez, edo ez du lagunik edo auzokorik	2,7	4,1	8,9
Gutxiagotan	8,9	5,5	7,3
Hilean behin-hirutan	1,8	4,9	5,7
Astean behin, gutxienez	14,1	30,0	26,5
Egunero edo ia egunero.	72,6	54,2	51,4

Hurbiltasuna (hurbilen bizi den seme-alaba)

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Eraikin berebako beste etxebizitza bat	2,8	4,9	3,0
< 1 km	61,1	42,9	50,7
1-5 km	23,0	25,8	21,8
6-25 km	5,4	12,4	13,3
26-100 km	2,7	4,1	3,3
101-500 km	2,6	2,1	3,7
> 500 km, herrialde berean	0,4	4,0	1,4
> 500 km, beste herrialde batean	1,2	1,2	1,9
ED/EE	0,4	1,3	0,7

5.9.3. Etxebizitza eta ingurunea

Jabetza-erregimena

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Jabetza	82,8	88,5	90,6
Seme-alaben jabetzakoa	0,8	1,6	1,9
Gurasoen jabetzakoa	1,8	1,8	1,2
Beste senide baten jabetzakoa	1,1	1,1	0,7
Alokairua	11,5	4,3	5,0
Norbaitek utzitakoa edo lagapenean emanda	0,2	0,4	0,1
Beste egoera batzuk.	1,8	2,0	0,4
ED/EE	0,0	0,2	0,2

Ekipamenduak

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Sakelako telefonoa	89,0	78,4	87,8
Telefono finkoa	86,9	92,2	91,4
Ordenagailua/ Tableta	33,7	51,9	53,2
Interneterako sarrera	39,2	49,7	54,2

Irisgarritasun-arazoak

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Etxe barruan	14,6	6,1	9,4
Eraikineko sarbidean	14,0	14,1	16,0
Ingurune hurbilean	10,5	12,7	17,2
Garraio publikoa erabiltzean	10,5	11,9	12,2

Etxebizitza egokituak eta egokitzapenerako laguntzen ezagutza

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Etxebizitza egokitua	63,8	45,3	33,4
Badaki informazioa non eskatu	41,6	51,5	28,1

Baliabideak eskuratzeko zailtasuna

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Bankua	7,5	7,1	8,4
Garraio publikoa	12,0	7,8	13,1
Zinema, antzokia edo kultura-zentroa	6,6	8,2	9,0
Osasun-zentroa	8,1	4,9	9,6
Parkea edo berdegunea	1,9	5,0	7,5
Supermerkatua edo janari-denda	8,1	4,9	8,4

Lagunkoitasuna

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Euskadi	94,5	94,4	96,1
Udalerrria	96,0	97,1	96,1
Auzoa	95,1	96,6	94,5

Udalerrrian lagunkoitasuna hobetzeko hobekuntzak

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Garraio publikoa	9,6	15,9	11,9
Etxebizitza	6,5	22,3	25,8
Komunitate-bizitza	3,4	8,8	6,3
Pertsonen arteko errespetua eta inklusioa	19,5	11,4	21,2
Aire zabaleko eremuak eta eraikin publikoak	2,1	16,0	18,3
Komunikazioa eta informazioa	5,2	4,3	5,4
Gizarte- eta osasun-zerbitzuak	12,9	19,4	18,8
Herritarren partaidetza	3,7	7,0	9,3
Beste batzuk	6,1	6,9	10,6
ED/EE	47,6	31,2	36,5

5.9.4. Osasuna, mendekotasuna eta gizarte-baliabideak

Osasun-egoera subjektiboa

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Oso ona + Ona	49,0	60,0	59,4
Hala-holakoa	37,1	32,9	32,5
Oso txarra + Txarra	13,9	7,1	8,0

Laguntza-beharra

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
EBOJ	11,8	8,4	8,8
EBJI	20,6	19,0	19,5
EBJ, guztira	21,2	19,7	20,1

EBOJ: Eguneroko bizimoduko oinarrizko jarduerak (jatea, garbitzea, janzteia, etab.); EBJI: Eguneroko bizimoduko jarduerak instrumentalak (erosketak egitea, telefonoa erabiltzea zer botika hartu gogoratzea, etab.); EBJ: Eguneroko bizimoduko jarduerak (bereizketarik gabe).

Laguntza behar izanez gero, non nahi duen bizitzea

		ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Beren etxebizitzan		90,6	79,3	83,4
Etxetik kanpo*	Seme-alabaren baten etxean	0,0	6,4	3,1
	Zaharren egoitza batean	27,9	82,8	79,4
	Adineko pertsonentzat egokitu-tako etxebizitza batean	63,0	9,6	15,5
K		355	534	914

* Portzentajeak kalkulatzeko, laguntza behar izatekotan beren etxetik kanpo bizitzea nahiago duten pertsonak hartu dira kontuan.

		ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Etxebizitzan jarraitzeko laguntza lehenesten du*	Senideen laguntza	64,4	51,9	56,8
	Gizarte-zerbitzu publikoen laguntza	65,9	43,2	32,4
	Kontratutako laguntza pribatua	6,4	25,1	20,7
ED/EE		9,3	6,4	9,2
K		355	534	914

5.9.5. Familia-elkarrekotasuna

EMANDAKO LAGUNTZA

Emandako zaintzak

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Erabateko zaintza	45,1	57,9	56,0
Seme-alabak	26,3	30,8	35,2
Bilobak	17,5	28,5	25,3
Adineko senideak edota desgaitasunen bat dutenak	8,5	15,0	9,2

Seme-alabak zaintzea

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Egunero	26,0	28,3	34,3
Astean behin	0,0	1,0	0,4
Gutxiagotan	0,2	1,5	0,5
Inoiz ez / Ez du / Ez dute beharrik	73,5	68,5	64,7
ED/EE	0,2	0,6	0,1

Bilobak zaintzea

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Egunero	3,1	8,1	7,5
Astean behin	3,6	10,1	8,5
Gutxiagotan	10,8	10,3	9,4
Inoiz ez / Ez du / Ez dute beharrik	82,5	70,6	74,5
ED/EE	0,0	0,9	0,1

Adineko senideak edota desgaitasuna dutenak zaintzea (desgaitasuna duten seme-alabak ere kontuan hartuta)

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Egunero	4,2	8,4	6,9
Astean behin	2,5	4,0	1,5
Gutxiagotan	1,8	2,7	0,8
Inoiz ez / Ez du / Ez dute beharrik	91,3	84,2	90,3
ED/EE	0,2	0,8	0,4

Adinekoei emandako laguntza mota

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Zaintza pertsonala	83,1	62,7	62,5
Etxeko lanak egiteko laguntza	82,9	62,0	72,7
Izapide eta gestioak egiteko laguntza	87,1	54,8	68,0
Lagun egitea	95,7	83,7	83,7

Laguntza ekonomikoak

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Laguntza ekonomikoa ematen dute	8,1	9,2	8,6
Maiztasuna			
Hilero edo ia hilero	37,6	38,7	46,1
Noizean behin	48,7	50,8	39,1
Kopurua			
< 100 euro	27,5	19,5	22,4
100-500	33,5	35,6	35,8
> 500	5,6	15,7	10,7
ED/EE	33,3	29,2	31,1

Emandako beste laguntza batzuk

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Familia-harreta	4,2	4,9	5,4
Etxeko lanak	6,3	3,3	4,6

JASOTAKO LAGUNTZA

Osasuna dela eta jasotako laguntza, eta nolakoa

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Osasuna dela eta laguntza jasotzen du	1,4	6,5	10,4
Laguntza mota			
Zaintza pertsonala	83,6	36,1	30,0
Etxeko lanak egiteko laguntza	83,6	88,7	95,1
Izapide eta gestioak egiteko laguntza	83,6	45,6	54,5
Lagun egitea	43,0	38,8	57,5

(*) Lagina urria izan da. Datuak ez dira adierazgarriak

Jasotako beste laguntza batzuk

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Familia-harrera	0,9	0,8	0,5
Etxeko lanak egiteko laguntza	5,2	8,7	8,8

Zaintza ematen duen pertsona

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Langile pribatua	16,4	39,0	45,0
Senidea	43,0	50,9	52,8
Gizarte-zerbitzu publikoak	40,7	7,8	1,3
Boluntarioek edo auzokideek	0,0	2,3	0,9

(*) Lagina urria izan da. Datuak ez dira adierazgarriak

5.9.6. Eguneroko bizitza

Etxeko lanak

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Egunero	45,4	72,5	71,5
Astean behin	17,5	7,3	8,3
Gutxiagotan	21,0	5,2	3,8
Inoiz ez	10,4	12,6	13,0

Ariketa fisikoa eta kirol-jarduerak

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Egunero	67,4	59,4	59,6
Astean behin	10,1	23,3	15,7
Gutxiagotan	13,0	8,3	8,5
Inoiz ez	9,5	8,8	16,2
ED/EE	0,0	0,2	0,1

Egoneko jarduerak (adibidez: telebista ikustea, irratia entzutea, irakurtzea...)

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Astean behin	98,2	96,8	97,6
Gutxiagotan	0,8	1,9	1,3
Inoiz ez /ED/EE	1,1	1,2	1,2

Aisialdiko jarduerak eta zaletasunak (adibidez: ortua edo lorategia zaintzea, esku-lanak, brikolajea, puntua, kakorraz-lana...).

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Egunero	11,8	29,6	14,8
Astean behin	6,2	17,2	15,2
Hilean behin	1,8	3,0	6,6
Gutxiagotan	23,6	10,1	9,2
Inoiz ez	56,4	39,5	53,9
ED/EE	0,2	0,6	0,3

Kultura-jarduerak (adibidez: zinera, antzerkera, erakusketetara, hitzaldietara... joatea)

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Astean behin	1,1	9,4	5,7
Hilean behin	2,7	11,1	14,5
Gutxiagotan	47,9	26,1	24,5
Inoiz ez	47,4	52,9	54,9
ED/EE	0,8	0,6	0,4

Azken urtean, zenbatean behin egin ditu gizarte-jarduerak (adibidez: bazkaltzera edo afaltzera joatea, lagunekin biltzea, tabernara edo kafetegira joatea, dantzara joatea, eta abar)

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Egunero	24,3	19,6	22,1
Astean behin	28,9	38,0	28,6
Hilean behin	4,3	10,1	13,6
Gutxiagotan	22,2	20,0	15,7
Inoiz ez	20,3	11,7	19,8
ED/EE	0,0	0,6	0,2

Turismoa, bidaiak eta irteerak

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Egiten ditu	69,7	58,9	59,0
Inoiz ez	30,3	40,3	40,7
ED/EE	0,0	0,8	0,3

Erljio-ekintzetara joatea

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Astean behin	17,5	28,2	21,3
Hilean behin	2,7	6,4	6,5
Gutxiagotan	31,2	33,1	21,7
Inoiz ez	48,6	31,4	49,9
ED/EE	0,0	0,8	0,6

Azken urtean zer maiztasunekin erabili du Internet

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Egunero	19,6	22,9	23,6
Astean behin	1,6	5,7	7,8
Hilean behin	0,2	2,7	2,4
Gutxiagotan	11,7	4,8	4,6
Inoiz ez	66,6	62,8	61,1
ED/EE	0,3	1,1	0,4

Hezkuntza-jarduerak (ikastaroak, esperientziaren unibertsitateak, klaseak...)

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Egiten ditu	7,7	13,7	14,1
Inoiz ez	92,3	86,3	85,9

Boluntario-lanak

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Guztira	14,0	20,2	19,3
Gizarte eta komunitatearentzako zerbitzuak	5,4	4,4	5,5
Elkarteak	2,6	8,5	7,3
Gizarte-mugimenduak	4,2	5,5	2,9
Alderdi politikoak eta sindikatuak	0,7	1,5	2,7
Auzo-elkarteak	1,8	3,4	5,9
Parrokia-taldeak	5,3	4,9	3,1
Bestelakoak	3,3	2,2	3,3

Boluntario-lanak. Egin nahi izango lukete

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Guztira	21,1	13,1	14,8
Gizarte eta komunitatearentzako zerbitzuak	17,5	6,9	14,9
Elkarteak	7,9	4,7	7,4
Gizarte-mugimenduak	5,3	8,3	7,3
Auzo-elkarteak	6,0	1,5	1,5
Parrokia-taldeak	6,4	2,5	1,3

Gizarte-partaidetzako programekiko interesa

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Nire hiri/herria eta monumentu edo museoak bisitariei erakustea	28,4	30,4	23,8
Nire zaletasun nagusia beste pertsona batzuei azaltzea	27,9	34,1	36,2
Herritarrak informatzeko eta orientatzeko lanetan lagutzea	21,6	23,3	20,1
Denboraren bankua	26,1	34,4	26,0

5.9.7. Gogobetetasuna, ongizatea eta kezak

OMEren Ongizate Indizea

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Ongizate txikia	29,2	23,3	21,4
Ongizate ertaina/handia	70,8	76,7	78,6
K	391	673	1095

Zahartzaroko kezak

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Asko	6,4	5,5	9,9
Nahikoa	17,5	16,3	22,4
Zerbait	19,7	23,5	17,2
Gutxi	8,3	17,0	9,5
Batere ez	46,0	33,8	39,6
K	391	673	1095

Gogobetetasuna eta lorpenak

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Bizitza-maila	6,1	7,1	6,8
Osasun egoera	6,4	6,8	6,7
Lorpenak	7,1	7,2	6,9
Harreman pertsonalak	7,5	7,4	7,5
Sentitzen duzun segurtasuna eta babesa	7,5	7,3	7,1
Komunitate bateko kide izatearen sentimendua	7,4	7,2	7,1
Etorkizunarekiko segurtasuna	6,8	6,9	6,4
Bizitza espirituala eta erlijio-sinesmena	6,7	7,0	6,2
Bizitzarekiko gogobetetasuna oro har	6,8	7,3	7,1

5.9.8. Erretiroa

Batez besteko erretiro-adina, desiratutako erretiro-adina eta lanean jarraitu nahiako zuketzen pertsonak

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Batez besteko erretiro-adina	61,3	60,9	60,9
Desiratutako erretiro-adina	62,0	62,4	61,9
Lanean jarraitu nahiko zukeen	34,6	37,2	32,2

Adostasun-maila (0-10 eskala)

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Erretiro-adina handitzea	5,3	11,8	6,5
Lanaldia pentsio partzial batekin konbinatzea	14,7	16,5	20,6

Erretiroa honako honetan eman behar da:

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
Familiarekin eta lagunekin	32,8	69,0	77,2
Zaletasunetan eta aisian	19,7	49,5	66,8
Ekarpen sozialetan	1,2	5,9	4,5
Gauza berriak ikasten	10,7	8,7	4,3
Atsedenean	65,8	33,3	29,3
Beste kontu batzuetan	4,4	6,4	1,8

/6/

Laburpena

6.1.1 Datu soziodemografikoak

2014ko bizi-baldintzei buruzko ikerketan, EAeko etxeetan bizi diren 55 urteko eta gehiagoko 2.469 pertsonak hartu dute parte. %55 gizonak dira, eta %45, emakumeak. Adina handitzen den neurrian, emakumeen portzentajea handitu egiten da gizonen portzentajearekiko.

Egoera zibilari dagokionez, laginaren pertsonen erdiak baino gehiago ezkondata daude edo bikotekidearekin bizi dira (%61,1); %25 inguru alargunak dira; eta %10 baino gutxiago ezkongabe daude (%9,3), edo bananduta edo dibortziatuta (%5,6). Zenbait alde daude adinaren eta sexuaren arabera.

Pertsona bakarreko etxeen erdiak baino gehiago (%62,3) alargunenak dira. Ezkongabeak etxeen %22,4 dira, eta bananduta edo dibortziatuta daudenak, berriz, %13,7.

Euskadin, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen %1 baino gutxiago da analfabetoa, eta 65 urteko eta gehiagoko pertsonen %1,2. Lagina osatzen duten ia pertsona guztiek (%88,6) lehen mailako ikasketak dituzte, baina haien %22,8k ezin izan zituzten amaitu. Horretan ere, aldeak hauteman ditugu, adinaren, sexuaren eta osasun-egoeraren arabera.

Egoera ekonomikoari begira, 55 urteko eta gehiagoko pertsonek (%16,3) 1.200-1.800 euro jasotzen dituzte hilean, batez beste. Arreta 65 urteko eta gehiagoko pertsonengan (hau da, erretiroa hartuta daudenak) jarriz gero, datu hori 900-1200 €-koa da (%17). Kontuan izan behar da lagina osatzen duten pertsona askok, %36 inguruk, galdera horri ez erantzutea erabaki duela. Desberdintasunak daudela ikus dezakegu: adinaren arabera, zaharrenen diru-sarrera txikiagoa baita; sexuaren arabera (emakumeek diru-sarrera txikiagoa baitute); eta heziketa-mailaren arabera (heziketa maila txikiak diru-sarrera txikiak dituzte).

Jarduerari dagokionez, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen %60k esaten dute erretiratuta daudela edo pentsiodunak direla; %15,9k lanean jarraitzen dutela adierazten dute, eta %18,7k, etxeko lanak egiten dituztela. Langabezia dauden pertsonen portzentajea %4,5koa da.

Lan egiten ari diren edo lan egin duten pertsonen erdiak langile gaituen kategorian daude (kategoria horretan, enplegatu eta langile gaituak daude). Lagineko gainerako pertsonak honela sailkatzen dira: norberaren konturako langileak (%14,1); zuzendaritza-postuak, gerentzia eta tarteko agintariak (%14,9); eta langile ez-gaituak (%14,9).

6.1.2 Bizikidetzaren ereduak eta gizarte-sarea

Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen etxearen (alegia, etxebizitza berean bizi diren pertsonak) batez besteko tamaina 2,2 pertsonako da.

Lagina osatzen duten pertsonen %3,3k adierazi dute aita edo amarekin bizi direla (65 urteko eta gehiagoko pertsonen %1,5), eta %32,9k, seme-alaba batekin bizi direla. Oro har, belaunaldirik gazteenak bizi dira beste belaunaldi batekin (gurasoekin zein seme-alabekin).

Horrenbestez, Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko biztanleen etxeen egungo errealitatea hau da: %37,1, portzentajerik handiena, bikotekide batekin bizi dira (habia hutsa); ondoren, beren etxean belaunaldi anitzeko familietan bizi diren pertsonak daude (oro har, gurasoek eta emantzipatu gabeko seme-alabek osatutako familiak dira, eta sostengatzaile

nagusia adineko pertsona da); %20,5 bakarrik bizi dira, pertsona bakarreko familietan; %8,2 bestelako familia-motetan bizi dira, beste senide batzuekin, adibidez; eta azkenik %1,3 seme-alabaren batekin bizi dira, haren etxean.

Adina da etheen egitura aldatzen duen faktore nagusia. Belaunaldi gazteak belaunaldi anitzeko etxeetan bizi dira, beren etxebizitzan, baina 65 eta 79 urte bitarteko pertsona gehienak bikotekidearekin bizi dira, eta 80 urte eta gehiagoko pertsonak, berriz, bakarrik.

Azken urteetan, adineko pertsonen (65 urtekoak eta gehiagokoak) ohiko bizikidetzeta-moduak aldatu egin dira. 1993an, adineko pertsonen %15,2 seme-alabekin edota ilobekin bizi ziren haien etxean. 2014an, portzentaje hori asko txikitu da; hain zuzen ere, %1,8koa da. Pertsona bakarreko etheen portzentajeak gora egin du; 1993an, %16,5koa zen, eta 2004an, berriz, %24,5koa. Beraz, ondoriozta dezakegu orain biztanleria autonomoagoa dela lehen baino.

Lehenago esan dugunez, 55 urte beteak dituzten pertsonen %32,9 seme-alabekin bizi dira. Gainerakoek hau adierazi dute: %53,6 seme-alaba baten etxetik kilometro batetik beherako distantziara bizi dira, eta %23,3, berriz, 1 eta 5 kilometro arteko distantziara. Alegia, 55 urteko eta gehiagoko 10 pertsonatik zortzi seme-alaba baten etxetik 5 kilometrora edo gutxiagora bizi dira. Zenbait ikerketatan, seme-alaba gehienek gurasoen etxetik hurbil bizitzeko joera dutela ondorioztatu da. Zenbait kausa ditu horrek; hala nola, baliabideak elkarbanatzea, eta laguntza elkarri ematea.

Harreman presentzialen esparruan, aipatu behar da 55 urte beteak dituzten pertsonen %67,4 astean behin seme-alabaren batekin daudela; alegia, 10 pertsonatik ia zazpi seme-alabaren bat ikusten dutela astean behin (%47,6k egunero edo ia egunero ikusten dute).

Ohiko harreman horren barruan, azpimarratu behar da astero lagunak edo auzokoak ikusten dituzten pertsonen portzentajea (biztanle gehien-gehienek kasua da), eta %45,2k harreman presentziala dutela gurasoak edo seme-alabak ez diren senideekin. Daturik txikiena adineko pertsonen gurasoekin daukaten harremanari dagokio; izan ere, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen %11,3k ikusten dute aita edo ama astean behin. Kontuan izan behar da aitarik edo amarik ez duten pertsonak ere sartzen direla portzentaje horretan; hain zuzen, horregatik da portzentajea hain txikia.

Sexu-ideak daude harremanei eta maiztasunari dagokienez: gizonen baino emakume gehiagok dute eguneroko harremana senideekin, eta emakumeen baino gizon gehiagok dute eguneroko harreman presentziala lagun eta auzokoekin. Generoak eragina badu harreman hauetan. Familiaren esparru pribatua emakumei dagokie oraindik, bereziki, eta etxetik kanpoko esparrua (publikoa), berriz, gizonen.

Adinari begira, ondoriozta daiteke adina handitu ahala harreman presentzialak gutxitu egiten direla, seme-alabena izan ezik. Adin aurreratueneko pertsonen %56,6k egunero ikusten dituzte seme-alabak, eta 55 eta 64 urte bitarteko pertsonen %39,0k. Urteak egin ahala, gurasoek seme-alaben laguntza handiagoa behar izaten dute, eta hori izan daiteke hazkunderaren arrazoia.

6.1.3 Etxebizitza eta ingurunea

Euskadiko adineko pertsona gehienak (%94,3) beren etxebizitzaren jabeak dira. Beren jabetzako etxe batean bizi diren biztanleen kopuruak behera egiten du adina txikitu ahala; alegia, gazteen artean, etxebizitza jabetzan dutenen portzentajea apur bat txikiagoa da, baina, hala ere, oso handia (%90,2). Talde horretan, alokairuan bizi diren pertsonen portzentajea handiagoa da, oraindik ere oso txikia bada ere (%8,1).

Ettxeko ekipamenduei dagokienez, Euskadiko ia adineko pertsona guztiek telefono finkoa dute (%92,6), eta gehienek, sakelako telefonoa (%78,5). Hirutik batek ordenagailua edo tableta eta Interneterako sarrera ditu etxean.

Irisgarritasunaren arloan, hauek dira emaitzarik nabarmenenak: Euskadin, 55 urte beteak dituzten pertsonen %9,2 eta %15 bitartekoek adierazten dute irisgarritasun-arazoren bat dutela beren ohiko ingurunean (%11,2-18,8: 65 urteko eta gehiagoko pertsonak). Bi portzentajeetatik txikiena etxe barruan mugitzeko oztopo fisikoren bat duten pertsonen dagokie. Daturik handiena (%15,1), berriz, beren eraikinean sartzeko arazoak dituzten pertsonen dagokie. Ingurune hurbilean irisgarritasun-arazoak dituztela esaten dutenen portzentajea oso antzekoa da (%14,7). Adina handitu ahala, arazo horiek areagotu egiten dira. 80 urte beteak dituzten pertsonen %18,0k etxebizitza barruan dituzte arazoak, %27,7k beren eraikinean sartzeko arazoak dituzte, eta %31,6k, berriz, garraio publikoan mugitzeko. Garraio publikoan mugitzeko arazoak oso handiak dira adin aurreratuko pertsonentzat, baina gazteenentzat oharkabeak dira.

Inkestatutako pertsonen %42,1ek adierazten dute gerta daitezkeen mendekotasun-egoeretara egokituta dutela etxebizitza (65 urte beteak dituzten pertsonen %43,9k). Besteak beste, azpimarra daiteke etxebizitza egokitueta bizi diren biztanleen portzentajea adinarekin batera handitzen dela; hain zuzen, 80 urteko eta gehiagoko pertsonen artean, portzentaje hori %46,9koa da. Bestalde, osasun-egoerarik txarrean dauden eta eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza behar duten pertsonen artean, etxebizitza egokituak dituztenen portzentajea handiagoa da beste adin-tarteetan baino. Alegia, beharrik handiena duten pertsonen neurri handiago batean dute etxebizitza egokitua. Dena den, nabarmendu behar da eguneroko bizitzako jarduera bat edo gehiago egiteko laguntza behar duten pertsonen %48,9k ez dutela etxebizitza egokitua. Gainera, 65 urte eta gehiago dituzten 10 pertsonatik hiruk baino ez dakite nola eta non eskatu informazio hori. Adina handitu ahala, datu hori gutxitu egiten da; hain zuzen, %25,5koa da 80 urte beteak dituzten pertsonen artean.

Ingurune hurbileko baliabideen irisgarritasunari dagokionez, inkestatutako pertsona guztien %7,8k adierazten dute bankura joateko zailtasunak dituztela; %11,3k garraio publikoak erabiltzeko arazoak dituztela; %8,4k kultura-jardueretara joateko (zinema, antzokia, etab.); %7,9k osasun-zentrora joateko; %5,8k parkeetara eta berdeguneetara iristeko; eta %7,2k supermerkatuan edo janari-dendan eguneroko erosketak egiteko.

Dena den, adineko biztanle gehienek lagunkoitzat hartzen dituzte Euskadi, beren herria eta beren auzoa, pertsonen beharretara egokituta baitaude eta bizikidetzara erraza baita. Pertzepzio hori orokorra da adin-talde guztietan, baina zenbait desadostasun daude osasun-egoera txarrean dauden pertsonen eta eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza behar dutenen aldetik. Herriak lagunkoizko izateko, honako alderdi hauek hobetu daitezke, besteak beste: etxebizitza, errespetua, gizarteratzea, eta gizarte- eta osasun-zerbitzuak 80 urtetik beherako pertsonentzat. 80 urte beteak dituzten pertsonen aburuz, gizarte- eta osasun-zerbitzuak hobetzea garrantzitsuagoa da errespetua eta gizarteratzea baino; eta garraio publikoa, aire zabaleko esparruak eta eraikin publikoak baino.

6.1.4 Osasuna, mendekotasuna eta gizarte-baliabideak

Euskadin, 55 urteko eta gehiagoko biztanleen erdiek baino gehiagok (%57,7) ontzat edo oso ontzat sailkatzen dute beren osasuna; herenek (%33,5) hala-holaketat hartzen dute, eta %10ek baino gutxiagok, berriz, txartzat edo oso txartzat.

Osasun-adierazle objektiboen kasuan bezala, alderantzizko lotura dago osasun subjektiboaren eta adinaren artean. Esparru horretan ere, sexu-desberdintasunak daude; izan ere, emakumeen osasun-egoera txarra gizonena baino.

Etxe-motari dagokionez, ezkondata dauden pertsonak dute osasun-egoera hobe (63,3k ona edo oso ona), alargunekin alderatuta (48,1). Hala-holakoa eta txarra edo oso txarra kategorietan, alargunen portzentajeak handiagoak dira besteenak baino.

Euskadiko adinekoen mendekotasun- eta desgaitasun-maila kalkulatzeko, eguneroko bizitzako zenbait jarduera egiteko behar duten laguntza neurtzen duen eskala bat erabili da. Lagineko pertsona guztien %20k soilik behar dute laguntzaren bat. 65 urteko eta gehiagoko pertsonak soilik kontuan hartuz gero, portzentaje hori %29koa da. Jakina denez, jarduera instrumentaletan laguntza gehiago behar dute eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretan baino.

Lotura dago laguntza-beharraren, sexuaren, adinaren, heziketa-mailaren eta etxe-motaren arabera.

55 urteko eta gehiagoko ia pertsona guztiek inolako laguntzarik gabe egin ditzakete eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak. Jarduera guztietatik, hauek dira zailenak, zailtasun-mailaren arabera: bainatzea edo dutxatzea, eta janzteia edo erantztea.

Jarduera instrumentaletatik, hauek dira laguntza gehien behar dutenak: erosketak egitea, etxeko lanak egitea eta garraio publikoa erabiltzea. Hala ere, jarduera horiek beren kabuz egin ditzaketen pertsonen portzentajeak oso handiak dira, %84-92koak, jardueraren arabera.

Laguntza behar izatekotan, adinekoek oso garbi daukate non bizi nahi duten. Euskadiko adineko pertsonen %83,4k beren etxebizitzan bizi nahi dute, etxetik kanpoko beste aukera batzuen aurretik.

Adina handitu ahala, etxebizitzan jarraitzeko lehentasuna ere handitzen da; 80 urte eta gehiago dituzten pertsonen %89,3k hori nahi dute.

Laguntzaren bat behar izateagatik etxetik joan nahiago dutenak honako hauek dira: zaharren egoitza batera joango liratekeenak (%78,1), adinekoentzat egokitutako etxebizitza batera joan nahiko luketenak (%15,5) eta seme-alabaren baten etxera joatea erabakiko luketenak (%4,3).

Laguntza behar izanda ere beren etxean geratu nahi dutenei zer prestazio-mota jaso nahiko luketen galdetu zaie. Pertsona horien erdiei baino pixka bat gehiagori (%56,8) senideen laguntza jasotzea gustatuko litzaieke; %40 ingururi gizarte-zerbitzu publikoek laguntza hori ematea gustatuko litzaieke; eta %20 inguruk laguntza pribatua jaso nahiko lukete.

6.1.5 Laguntza-trukea

Zaintzak aztertzean inkestan lortutako datuen arabera, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen %31,1ek egunero edo ia egunero laguntzen diete seme-alabei. Datuek agerian uzten dute genero eta adin aldeak daudela; alde batetik, zaintzalan gehienak emakumeek egiten dituzte, eta beste batetik, pertsonarik gazteenek proportzio handiago batean egiten dituzte lan horiek.

55 urteko eta gehiagoko pertsona guztien %25,0ek adierazten dute seme-alabei laguntzen dietela bilobak zaintzen. Zaintzea behar duten bilobak dituzten pertsona guztiak kontuan hartzen baditugu, biztanleen %50 zaintzaileak direla ondorioztatuko dugu. Pertsona zaintzailearen profilean, hau da aipatzekoa: 65 eta 79 urte bitarteko emakumeak direla.

55 urteko eta gehiagoko pertsonen %11k adineko senideak edota desgaitasunen bat duten pertsonak ere zaintzen dituzte. Datu horretan, senidetasun-loturarik ez duten edo laguntzarik behar ez duten pertsonak ere sartzen dira. Adineko edota desgaitasunen bat duten senideak dituzten pertsonetatik, lautik batek laguntza ematen die.

Inkestatutako biztanleen erdiek baino gehiagok zaintza-mota horietako bat egiten dute (seme-alabak, bilobak edota adineko senideak edo desgaitasunen bat duten pertsonak zaintzea): %54,8. Pertsona horien %57,0 emakumeak dira, eta %43,0, gizonak. 55 eta 79 urte bitarteko pertsonak dira zaintza-lanak oro har egiten dituztenak. Pertsona zaintzaile guztien %58,8 belaunaldi anitzeko etxeetan bizi dira, beren etxebizitzan. Kasu honetan, oso handia da seme-alabekin bizi diren pertsonen portzentajea. Eskuarki, pertsona horiek 55 eta 64 urte bitarteko adina dute, oraindik ere emantzipatu gabeko seme-alabak dituzte, edo batez besteko amatasun-adinean daudenak; alegia, adin txikiko seme-alabak dituztenak (adineko pertsonen bilobak). Orobat, adin-tarte horretan dauden pertsonen aita edo ama bizirik egon daitezke. Pertsonen belaunaldi horri "sandwich belaunaldi" esaten zaio, ohiko familia-egitura bertikaleko (aldi berean belaunaldi asko dituena) bi belaunaldiren artean baitago; hau da, aldi berean pertsona asko zaindu beharrean egon daiteke. Emantzipatu gabeko seme-alabak edota biloba txikiak eta adin aurreratuko gurasoak edo adineko senideak (aita-amaginarrebak) dituzte.

Zaintzaz gain, badaude familia-elkartasuna transferitzeko beste modu batzuk ere. Besteak beste, laguntza ekonomikoak nabarmentzen dira. 55 urteko eta gehiagoko pertsonen %8,7k diruz laguntzen diote beren etxetik kanpoko pertsonaren bati. Laguntza hori ematen duten biztanleen ia erdiek hileru ematen dute. Pertsonen %35,4k 100 eta 500 euro bitarteko laguntza ekonomikoa ematen dute.

Halaber, %4,5ek etxeko lanak egiten laguntzen diete etxetik kanpoko senideei. Gehienbat, emakumeek eta 55 eta 64 urte bitarteko pertsonak ematen dute laguntza-mota hori.

Inkesta honetan aztertutako familia-elkartasunaren beste ohitura bat familia-harrera da; hau da, behar duen senide bat etxean hartzea. Kasu honetan, 55 urte beteak dituzten pertsonen %5ek esan dute etxean senideren bat hartu dutela. Gizonak baino emakume gehiagok eman dute laguntza-mota hori, eta adin aurreratueta.

Jasotzen duten laguntzari dagokionez, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen %7,7k laguntzaren bat jasotzen dute beren osasun-egoera dela eta. Jakina, jasotako laguntza adinarekin batera handitzen da. 80 urte eta gehiago dituzten pertsonen %22,6k jasotzen dute zaintza pertsonalerako laguntza.

Zaintza horiek ematen dizkieten pertsonen dagokienez, ikerketa honen emaitzek berriro ere ondorioztatzen dute senideen protagonismoa. Laguntza behar duten pertsonen erdiek senide baten laguntza jasotzen dute. Ondoren, pertsonen %42,6k etxeko langilearen laguntza jasotzen dute; haien zatia, zaintzarako euskarri nagusia da etxeko langilea kontratatua. Gero eta ohikoagoa da etxeko langileak kontratatzea mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaindu ditzaten. Pertsonen %4,2ren lehen aukera gizarte-zerbitzuak dira, eta %1,2k boluntario edota auzokoen laguntza jasotzen dute.

Osasun-egoeratik jasotzen den laguntzaz gain, osasun-arazorik ez duten pertsonak jaso dezaketen laguntza ere aztertu da. Ildo horretan, etxeko lanak egiteko laguntzari, familia-harrerari eta laguntza ekonomikoari buruzko informazioa bildu da. 55 urte eta gehiago dituzten pertsonen %8,2k etxeko lanak egiteko laguntza jasotzen dutela adierazten dute; oso gutxi (%1,4) laguntza ekonomikoak jasotzen dituzte; eta %0,7k senide baten etxera joan behar izan dute. Dirudienez, etxeko lanak egiteko laguntza da biztanle horiek jasotako laguntza nagusia.

Laguntza informaltasunez ematen duten adineko pertsonen eta laguntza jasotzen dutenen portzentajeak alderatuz gero, balantzeak agerian uzten du 55 urteko eta gehiagoko pertsonen %54,8k laguntza-mota informalaren bat (seme-

alabak, bilobak, adineko pertsona bat edo desgaitasunen bat duen pertsona bat zaintzea) ematen dute, eta %7,7k soilik osasun-egoera dela eta jasotzen dute.

Laguntza ekonomikoei dagokionez, %8,7k laguntza ekonomikoak ematen dituztela adierazten duten, eta %1,4k, jasotzen dituztela. Hala ere, etxeko lanak egiteko laguntza informalarri dagokionez, jasotzen duten adineko pertsonak gehiago dira ematen dutenak baino (%8,2 eta %4,5, hurrenez hurren). Atzeraldi ekonomikoetan, senideek ematen duten beste laguntza-mota bat familia-harrera da. Pertsonen %5ek adierazten dute etxean senideren bat hartu dutela, baina %0,7k soilik esaten dute senide baten etxera joan behar izan dutela.

65 urtetik gorako pertsonen taldean, datuak oso antzekoak dira: %49,7k zaintzak ematen dituzte, eta %11,2k jasotzen dituzte; %8,4k laguntza ekonomikoak ematen dituzte, eta %1,6k jasotzen dituzte; %5,3k senideren bat hartu dute etxean, eta %0,7 joan dira senide baten etxera; eta %3,2k etxeko lanak egiten laguntzen dute, eta %11,1ek jasotzen dute laguntza hori. Etxeko lanak egiteko laguntzaren kasuan, jasotzen dutenak gehiago dira ematen dutenak baino.

6.1.6 Eguneroko bizitza

Atal honetan, egunean zehar egiten diren jarduerak azalduko ditugu, zaintzarekin lotutakoak izan ezik, lehenago azaldu baititugu.

Etxeko lanak eta zaintza-lanak egiten ematen dute bizitza pribatuko denbora hori. 55 urteko eta gehiagoko 10 pertsonatik ia zazpi etxeko lanak eguneroko egiten dituztela adierazten dute. Horri dagokionez, genero eta adin alde handiak ikus daitezke.

Aisiako eta denbora libreko jardueri dagokionez, pertsonen %60,8k ariketa fisikoarekin edo kirolarekin lotutako jarduerak egiten dituzte eguneroko. Adin aurreratuko pertsonen –80 urte eta gehiago dituztenen– artean, portzentajea txikiagoa da, %47,8koa, baina datu hori, beste adin-tarteetan dagoena baino txikiagoa bada ere, oso handia da.

55 urteko eta gehiagoko ia pertsona guztiek eguneroko egiten dituzte jarduera sedentario horiek (telebista ikustea, irakurtzea, irratia entzutea...). Bestalde, ez dago alde nabarmenik adinaren, sexuaren, osasun-egoeraren edo heziketa-mailaren arabera. Bestalde, adin guztietako biztanleek egiten dituzte jarduera horiek. Esaterako, ia biztanle guztiek masiboki kontsumitzen dituzte hedabideak.

55 urte eta gehiago dituzten pertsonen erdiek aldian-aldian egiten dituzte etxeko aisiako jarduerak (baratzea edo lorategia zaintzea, eskulanak egitea, puntua edo kakorraz-lana egitea, etab.). Emakumeek gizonak baino gehiago egiten dituzte; izan ere, lotura handiagoa dute etxeko bizitzarekin, bai eta, beraz, etxean egiten diren aisiako jarduerekin ere.

Kultura-jardueri erreparatuta, 55 urte eta gehiago dituzten pertsonen erdiek baino gehiagok –eta 65 urteko eta gehiagoko %63,8k– onartzen dute ez dutela inoiz horrelako jarduerarik egiten.

Hala ere, bizitza sozialeko jarduerak oso ohikoak dira 55 urte eta gehiago dituzten pertsonen artean. Pertsonen %82,4k aldian behin egiten dituzte jarduera horiek; %21,7k eguneroko egiten dituzte; %31,6k astean behin; eta %11k hilean behin. Beraz, biztanle gehienek egiten dituzte jarduera horiek, eta gainera, maiztasun handiz.

Turismoarekin eta bidaiekin lotutako jardueri dagokienez, 55 urteko eta gehiagoko 10 pertsonatik seik bidaiak, irteerak eta turismo-jarduerak egiten dituzte. Pertsonarik gazteenak dira jarduera horiek gehien egiten dituztenak (%74,8). 80 urte eta gehiago dituzten pertsoneri dagokienez, askoz txikiagoa da portzentajea; hain zuzen ere, %27,1ek soilik adierazten dute horrelako jarduerak egiten dituztela.

Erljio-ospakizunetara joatea adina handitu ahala biztanleriaren portzentajea handitzen duen jarduera bakarra da. 80 urte eta gehiago dituzten pertsonak gehiago hartzen dute parte gazteagoek baino, eta emakumeek, gizonak baino. Etxetik kanpoko jardueretatik, hori da adineko emakumeen artean hedatuena, eta oso garrantzitsua da emakume zaharrentzat (%63,9k hartzen dute parte jarduera horietan).

IKTen erabilerari dagokionez, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen %36,8k Internet erabili dute azken urtean. Teknologia horien erabilera-maila asko aldatzen da belaunaldi batetik bestera. Gazteenen artean, 10etik seik erabiltzen dituzte, eta adin aurreratuko pertsonen artean, berriz, %7,4k; alegia, 100 pertsonatik zazpik.

